



Euskaltzaindia: 100 urte euskara zaintzen

Lorea Argaratek, zientzia eta musika ardatz



ONATIKO ELTZIAN SINERGIA BERRIAK SORTZEKO LANEAN

Eltziako hainbat onatiar eragile, eraikinaren aurrealdean.

'Eltziari eragiten' jardunaldiak antolatu dituzte astebururako, espazio publikoen kudeaketarako formula berrien gainean hausnartzeko / 36

XABIER URZELAI



Bergarako Musika Bandaren disko berria domekan aurkeztuko dute, Udal Pilotalekuan / 24

Debagoieneko larreetan hainbat ardi akabatu dituzten txakurrek solte segitzen dute / 2

Emaitzen banaketa baliabide propioetara bideratuko dute Mondragon Taldeko kooperatibek / 4



Ibarra kiroldegi aurreko berdeguneko futbol zelaia, urtarrilean hasi eta udarako gertu / 18

Kultura ikuskizunak eta zozketak egingo ditu Arrasateko Ibai-artek, komertzioa sustatzeko / 13

'Luisa Fernanda' zarzuela agertokira eroango du Izaskun Murgia taldeak asteburuan / 15

Astana taldearekin lanean hasi da Ivan Velasco txirrindulari ohi eta ingeniari arrasatearra / 38

SINADURAK

 IÑAKI ETXEBESTE / 8

 ASIER ELORZA / 26

 JOKIN LARRAÑAGA / 17

 IDOIA ETXEBERRIA / 48



Artzainak, txandakako zaintza egiten duten txabolan, Degurixan. AMAIA ZABALA

Txakurrek solte jarraitzen dute

Aste honetan ez da erasorik izan, baina artzainek, badaezpada, gau eta egun txandakako zaintzak egiten jarraitzen dute, harrapatu bitartean. Basozainek, berriz, artzainen salaketari erantzunez, prentsaurrekoa eman zuten astelehenean Donostian

AMAIA ZABALA DEBAGOIENA

"Harrituta gaude. Aurreko lau asteetan ia egunerokoak izan dira erasoak, eta orain bat-batean gelditzea oso arraroa da; dena den, horrela, askoz hobeto", dio Jon Murgiondo Aretxabaletako artzainak. Gaineratu du administrazioen babesik gabe jarraitzen dutela oraindik.

Txakurren jabea

Jose Gazteluk, ihes eginda dabilzan *Kaxka* (5 urte) eta *Kira* (urte eta erdi) txakurren jabeak, jakinarazi du ez direla etxera itzuli eta itzuliko diren itxaropen handirik ere ez duela: "Atzo, ordea, gatzagar bati esan zitoren txakurrak etxetik 500 metrora dagoen pistan ikusi zituztela, eta hori entzutean zeharo poztu nintzen, behingoz etxera itzuli eta guztia amaituko zela pentsatu bainuen". Gaineratu du

inguruko baserrietan txakurren bila hasi zela, baina ez zirela inon ageri. "Ikusi zituztela gezurra izango zen, haiek ondo ezagutzen baitute inguru hau, eta behin hona jaitsita etxeratu egin behar zuten", dio txakurren jabeak. Gaineratzen du pena

"HARRITUTA GAUDE, BAT-BATEAN ERASOAK EGITEARI UZTEA OSO ARRAROA DA"

JON MURGIIONDO, ARTZAINA

"ETXERA ITZULIKO DIREN ITXAROPEN HANDIRIK EZ DAUKAT DAGOENEKO"

JOSE GAZTELU, TXAKURREN JABEA

handia daukala, gustuko txakurrak zituelako eta haiek dagoeneko erabat basati bihurtuak daudelako.

Gizakiei erasotzeko gai ikusten ote dituen galdetzean, berriz, dio ez duela uste horrelakorik egiteko gai direnik, baina da-

"EZ DUGU INOLAKO UXALDIRIK DEITU, MOMENTUKO NEURRI PUNTUALA IZAN ZEN"

JOSE RAMON ZUBIZARRETA, ALKATEA

"NOLA HASIKO GARA, BADA, TXAKURREI TIROKA, ALDUNDIAREN AGINDURIK GABE"

JON UGARTE, BASOZAINA

goeneko ez dituela ezagutzen bere txakurren jabeak eta bera ez dela aditua gai diren edo ez esateko.

Ahal Dugu-ren kritika

Horrekin lotuta, Imanol Gudek, Podemos-Ahal Dugu alderdiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusiko kideak, txakurren jabearen eta Eskoriatzako Udalaren jarrera salatu zuen astelehenean, Onda Vascako *Gipuzkoako Kale Nagusia* saioan. Guderaren esanetan, jabea ez da inor txakur horiek hiltzeko agindua emateko, eta Udalak ehiztariei txakurrak "ti-rokatzeko" agindua eman izana ere kritikatu zuen. "Txakurrak harrapatu, dagokion zentrorera eraman eta, 1993ko Animalien Babeserako Legeak dioen moduan, sufrimendurik gabe eta albatari baten ikuskapenarekin sakrifikuak izan behar dute, eta ez tiroka akabatuak", dio Gudek.

Eskoriatzako Udalaren erantzuna

Hala, Jose Ramon Zubizarreta Eskoriatzako alkateak argi utzi nahi izan du beraiek emandako agindua ez zela "inolako uxaldirik izan, hedabide askok dioten moduan", baizik eta momentu jakin batean, leku jakin batean eta ehiztari jakin batzuei emandako agindua izan zela: "Herriko Aldaie ehiztari taldeak txakurrek erasoak egin dituzten puntu jakin batean uso postuak dauzka eta komunikatu honen bitartez postu horiek dituzten ehiztari jakin batzuei txakurrak leku horretan bertan agertuz gero harrapatzeko baimena ematen zitzaien, ez besterik". Gaineratzen du deialdiaren asmoa ez zela edozein ehiztariri bi txakur horiek mendian tiroka hiltzeko baimena ematea. Amaitzeko, azpimarratzen du txakurrak harrapatu ezinik egonik eta erasoak etengabeak izanik, momentuko arazoari erantzun bat izateko neurri puntual bat izan zela eta dagoeneko ez dagoela indarrean.

"Bai artzainekin eta bai Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jarraitzen dugu eta azken hauek egoera aztertzen ari dira etorkizunean egon daitezkeen antzeko gertakariei irtenbide bat emateko", dio Eskoriatzako alkateak.

Zubizarretak gaineratzen du barru-barruan baduela gizakiren bati eraso egingo ote lioketen kezka: "Espero dezagun horre-

lakorik ez gertatzea, guztion onerako, baina erasoak gertatu diren inguru horietan mendizale, ganaduzale, ehiztari eta perretxikozale asko ibiltzen dira, eta beldurra badut; izan ere, ez lirakeke gizakiei erasotzen dieten lehen txakurrak izango".

Basozainen erantzuna

Artzainek "utzikeria" leporatu zieten basozainei pasa den aste prentsaurrekoan, eta, horri erantzunez, prentsaurrekoa eman zuen Gipuzkoako Basozainen Elkarte Profesionalak astelehenean Donostian.

Bertan, argi utzi zuten basozainek Aldunditik datozen aginduei erantzuten dietela eta gertaera horren aurrean ez dutela inongo mandaturik jaso. "Uler-tzen dugu artzainen haserre, baina guri utzikeria leporatzeak ez du zentzurik; prozedura zorrotza jarraitu behar izaten dugu eta basozainok ezin dugu inolaz ere erabaki hori gure kabuz hartu eta tiroka hasi", dio Jon Ugartek, Gipuzkoako Basozainen Elkarteko kideak.

Debagoieneko txakur horien erasoen kasua duela lau urte

Isunak txakurren jabeentzat

Gipuzkoako Foru Aldundiak, basozainen bitartez, mendiko zaintza handituko du, txakurrak mendian lotuta eramateko legea bete dadin. Gipuzkoako Foru Aldundiko bozeramaile Imanol Lasaren esanetan, neurri horren helburua da txakurrek mendiko ganaduei egiten dizkieten erasoak saihestea. "Zigorak ezartzea azken errekurtsua izango da, baina, kontzientziario kanpainak ez badu funtzionatzen, isunak ezarriko ditugu", argitu du Aldundiko bozeramaileak. Isunak 100 eta 1.000 euro artekoak izango dira. Nahiz eta legea aspalditik egon indarrean, txakurra solte eramateagatik azken isuna 2006an ezarri zen.



Basozainak, astelehenean Donostian eman zuten prentsurrekoan. AMAIA ZABALA

Azkoitian ahuntzekin gertatutakoarekin alderatu zuten prentsurrekoan. Antza denez, zuhaitzen landaketan kalteak egiten ari zen ahuntz talde bat identifikatzeko eta kargu egiteko eskatu zitzaizen ganaduzaleei, baina haiek "kasurik ez zutela egiten" ikustean, Azkoitiko Udalak ahuntzak akabatzeko eskatu zion Aldundiari. "Saiakera asko egin ziren ahuntzak bizirik harrapatzeko, baina ez zegoen modurik, eta ez genuen ganaduzaleen inolako laguntzarik izan; kontrakoa; gutaz trufatu ziren, eta, azkenean, identifikatu gabeko zortzi ahuntzak tiroz akabatu behar izan genituen", jakinarazi zuten Gipuzkoako basozainek astelehenean.

Prensurrekoan gaineratu zuten ahuntzak hil zituzten basozainei EHNE eta ENBA sindikatuen laguntzarekin salaketa jarri zietela hainbat artzainek, eta aurten, lau urte geroago, epaileak arrazoari eman diela basozainei. "Kasu honetan, Aldundiak emandako aginduari erantzunez jokatu genuen, eta, hala ere, artzainek juzgatu eta salaketara eraman gintuzten, Kurtzebarri, Degurixa

eta Alabitako kasuan, nola hasiko gara, bada, txakurrei tiroka, Aldundiaren inongo agindurik gabe", zioen Jon Ugartek, Gipuzkoako Basozainen Elkarteko kideak. Gaineratu zuen hasiera batean hasi zirela txakurren jabearekin elkarlanean haien bila, baina ezinezkoa zela harrapatzea.

Ugartek gaineratu du gero eta txakur gehiago daudela eta, ondorioz, erasoak ere ugartu egin direla eta problematika hor dagoenez Aldundiak neurriak hartu beharko dituela.

Prensurrekoan, basozainek jasaten dituzten salaketen aurrean Foru Aldundiak babesik ez eman izana ere salatu zuten, eta jakinarazi zuten elkarteak gizarteari beren lanaren garrantziaren berri emateko sortu zutela iaz. "Gizarteak ez dauka ingurumenaren alde egiten dugun lanaren berri", zioten basozainek.

Amaitzeko, elkartasun eta laguntza osoa eskaini zioten lehen sektoreari. "Artzainen eta basozainen arteko eguneroko tratua oso ona da eta espero dezagun gai honek horri ez eragitea", zioen Ugartek.

"Egin ezazue euskaraz konplexurik gabe"

Debagoieneko udalek eta Mankomunitateak elkarlanean, 'Biharko euskara gaur' egitasmoaren barruan, 0 eta 8 urte arteko haurrak dituzten gurasoendako euskararen erabileraren inguruko aholku sortekin osatutako liburuxka banatu dute aste honetan

Amaia Zabala DEBAGOIENA

Lehen urtetik zortzi urte bitartera arteko epean finkatzen omen dira hizkuntza ezagutza, erabilera-ohiturak eta hizkuntzarekiko jarrerak, batez ere. Hori dela eta, adin horrek hizkuntzaren ikasketan eta familia transmisioan duen garrantzia aintzat harturik, Debagoieneko Mankomunitateak eta udalek gurasoengana zuzentzea erabaki dute. "Liburuxka honetan datozen aholkuekin familiei euskararen normalizazioan laguntzea da helburua", dio Amaia Axpek, Debagoieneko Mankomunitateko Euskara teknikariak.

Eskualdeko bederatzita herrietan banatu dute liburuxka aste honetan; guztira, 4.600 ale. "0 urtetik 8 urte bitarteko haurren gurasoei zuzendua izanik, ikastetxe eta haur eskola guztietan umei eskura banatu zaie", gaineratu du Euskara teknikariak.

Hamar urteren ostean bueltan

Liburuxka hori duela hamar urte sortu zuen Kike Amonarriz soziologoak, eta, egokitzapen batzuk egin ostean, berriro argitaratu dute. "Aholkuak, azken batean, berberak dira; aldatu ditugunak gizarte faktoreak dira: genero ikuspegia eta sare sozialen aipamena, esaterako".



Kike Amonarriz, eskuan liburuxka duela. ENEKO AZURMENDI

Denei zuzendua

8 urtez azpiko haurrak dituzten guraso euskaldun, erdaldun eta mistoei dago zuzendua liburuxka hori, baina egileak guraso erdaldunak nabarmendu ditu, batez ere. Gaineratu du euskara ere etxeko hizkuntza izaten saiatzeko, haurrak hizkuntzarekiko motibatuzko, guztia eskolaren gain ez uzteko eta halako aholkuak datozela bertan. "Izan zaitetz zure haurraren ikasle eta aprobetxatu zure haurraren gehiago egoteko eta denbora horretan berarekin euskara

ikasteko", dio soziolinguista tolosarrak.

Gurasoetako bat euskalduna eta bestea erdalduna den kasuetarako ere badaude aholkuak liburuxka horretan; horietan aipagarriena, euskaraz haurrari soilik ez hitz egitearena; horrela bada, haurrak euskara umeen hizkuntza moduan identifikatu dezakeelako.

Amaitzeko, guraso euskaldunen kasuan, aholku nagusi bat eman du Amonarrizek: "Izan zaitetz erreferente eta egin ezazu euskaraz inongo konplexurik gabe".

NISSAN
Innovation that excites

**APROBETXATU WLTP ARAUDI BERRIA ETA LORTU
NISSAN X-TRAIL BAT LIKIDAZIO PREZIOAN. 50 DITUGU!
GAURSAN BAKARRIK.**

GAURSA Gamarrako Atea, 46 - 01013 Gazteiz - Tel. 945 26 25 01
Consumo mixto: 4,9 - 6,4 l/100 km. Emisiones de CO₂: 129 - 149 g/km. Consumo homologado de acuerdo con la normativa europea.



Eguaztenean egin zuen Mondragon Korporazioak 2018ko Kongresua, Kursaalean. MONDRAGON KORPORAZIOA

Kooperatiben baliabide propioetan fokua jarritz

Mondragon Korporazioak 2018ko Kongresua egin du aste honetan, Donostiako Kursaalean; 650 konpromisario batu dira hitzorduan, eta 'Emaitzen banaketa baliabide propioak indartzeko' txostena onartu dute, "kooperatibak indartzeko"

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Kooperatiben egoera finantzarioa eta beren negozioen iraunkortasuna indartzea. Horixe da aste honetako kongresuan Mondragon Korporazioak aurkeztu, eztabaidatu eta onartu berri duen txostenaren helburu nagusia; *Emaitzen banaketa baliabide propioak indartzeko* ponentzia, hain zuzen ere.

Beste helburuetako bat da kooperatiben baliabide propio iraunkorrak –erreserbak– sendotzea. Korporazioaren esanetan, ponentzia hori bat dator 2017-2020 Politika Sozioenpresarialean ezarritako erronkarekin, etorkizunera begira "negozioen iraunkortasuna ahalbidetzeko", eta horretarako "ezinbestekoa" da kooperatibek finantza eta

ondare egitura sendoak eta orekatuak edukitzea.

Ponentziak proposatzen du ratio hauek hartzea erreferentzia gisa: Enpresa Errentagarritasunaren Tasa (> %9); Finantza zor Garbia/Ebitda (< 2,5) eta Independentzia Ratioa (>1). "Kooperatibak ratio horiek betetzen baditu, emaitzak banatzeko gaur egun dauden arauak mantentzen

dira. Aitzitik, kooperatibak ez baditu erreferentziako ratio horiek lortzen, emaitzak banatzeko irizpideak aldatu egiten dira, eta, horrenbestez, bazkideen kapitalerako ekarpenen interesen sortzapena eta itzulkin kooperatiboak gehiago mugatzen dira, erreserben zuzkidura handitzeko".

Iñigo Uzinen adierazpenak

650 konpromisario batu dira Kursaalean, "talde kooperatiboan integratuta dauden kooperatiba guztiak ordezkatzeko".

Aurtengo kongresuan, besteak beste, organo korporatiboek egindako gestioa aurkeztu dute, bi aldetatik. Batetik, Batzorde Iraunkorraren aldetik –aurrez kide guztiei bidalitako agiri baten bitartez ere aurkeztuta dago–. Bestetik, Kontseilu Orokorraren aldetik.

Kontseilu Orokorreko lehendakari Iñigo Uzinek foroan azpimarratu du kooperatibek munduko eraldaketa testuingurura etengabe egokitu beharra dutela, "aldaketa azeleratu batean murgilduta" baitaude, zeinak "modu erabakigarrian" eragiten dien korporazioaren negozioei.

Uzinek egokitzapen horri aurre egiteko funtsezkoak izango diren alderdietan jarri du fokua. Era berean, pertsonen ekarpena azpimarratu du: "Erdigunean pertsona kooperatibistak jarrita, taldean lan eginez, kultura partekatuta batekin, eta gure erakundeentzat talentua erakartzeko eta garatzeko gaitasunarekin".

Elkarlana indar handiagoz bultzatu beharra ere aipatu du, "bai elkartasunari dagokionez, baita negozioei lotutako alderdiei dagokienez ere, etxe barruan zein kanpoan". Halaber, berrikuntzaren rol esanguratsua ere

nabarmendu du, "baina ez soilik teknologikoa, baita merkatuaren garapenarekin eta taldeek erronka konplexuenei aurre egiteko duten jarrerari dagokiona ere".

Bestalde, presentzia globala bultzatzeko beharra, negozioen sendotasun finantzarioa eta digitalizazioaren erronka ere izan ditu hizpide Uzinek.

Azkenik, Mondragonek 2018an izan duen bilakaerari erreparatuta, adierazi du positiboa izaten ari dela, salmenta metatuak iaizkoak baino handiagoak direla, eta enplegu sorreraren inguruko zifrak gorantz doazela. Horrek, korporazioaren esanetan, azken urteetako joera berresten du: "Bereziki, industri arloan. Azken bost urteetan, 8.000 lanpostu berri baino gehiago sortu dira sektore horretan".

Elkarretaratzea

Kongresua baliatuta, Ordaindu eta Eskuratu asoziazioetako kideek manifestazioa eta elkarretaratzea egin dute Donostian. Lehenik, autobus geltokitik Kursaalera manifestazioa egin dute, eta ondoren, elkarretaratzea egin dute. Itzuleran, Justizia Auzitegiaren paretik ere igaro dira. "Fagorrek eta Korporazioak engainatu egin gintuztela gogorazi nahi diegu, eta bost urte igaro arren eta justizia oso motel badao ere, ziur gaude iritsiko dela. Justizia eskatzen jarraituko dugu, arrazoia daukagulako, eta haiek ere ondo dakite hori", azaldu dute.

IÑIGO UZINEK ADIERAZI DU 2018AN BILAKAERA POSITIBOA IZATEN ARI DELA KORPORAZIOA

Arizmendik 'Changemaker eskola' izendapena jaso du

Euskal Herriko lehen ikastola eta Debagoieneko lehen ikastetxea da Ashoka nazioarteko sarean egongo dena

E.A. DEBAGOIENA

Aste honetan, lau hezkuntza entitate sartu dira Ashoka nazioarteko sarean; tartean, Arizmendi Ikastola. Estatu mailan zortzi ikastetxe zeuden orain arte, baina, aurrerantzean, ha-

mabi ikastetxe izango dira sare horretako kide. Zazpi irizpide baliatu dituzte izendapen hori egiteko: bisio eraldatzailea, ikasketza aktiboa, berrikuntza, eragina, taldea, jarrera irekia eta proiektu integrala.

Izan ere, gizarte berrikuntzaren alde apustua egiten duen fundazioa da Ashoka, aldaketa eragilez osaturiko gizarte bat eraiki nahian, eta munduko bost kontinenteetan eta 87 estatutan zabaldua dago.

Sare horretan aritzeak "Arizmendiren konpromisioa areagotzea" dakar, hezkuntzan ikastolek eginiko "ekarpen eraldatzailea" ezagutarazteko eta, aldi berean, "testuinguruetatik datozen ekarpenez ikasteko eta hobetzeko obligazioa".



Izar Ruiz de Austri ikasleak jaso zuen saria. ARIZMENDI IKASTOLA



Bizilagunak egitasmoaren baitan Bergaran egin zuten bazkaria. SOS ARRAZAKERIA

Kulturarteko bazkariak, estereotipoak apurtzeko

Bizilagunak egitasmoaren baitan, 52 lagun elkartu dira Debagoieneko hainbat herritan egin dituzten bazkarietan. "Bazkari guztiak oso ondo joan dira, eta sentsazio positiboarekin geratu gara", adierazi du Nora Ugarteburuk, SOS Arrazakeriako kideak

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Zazpigarren urtea da Bizilagunak martxan jarri zenetik, eta, egitasmo horren baitan, urtero egiten dituzte kulturarteko bazkariak Euskal Herri osoan –normalean, azaroan izaten dira–. Hain zuzen, pasa den asteburuan egin dituzte bazkariok.

Debagoienari dagokionez, 52 lagun elkartu dira: Bergaran hogeit lau lagun, Arrasaten hamaika, beste horrenbeste Oñatin, Elgetan sei eta Aretxabaletan lau –eskoriatzar bat tartean–.

SOS Arrazakeria da Gipuzkoa mailan egitasmoa koordinatzeaz arduratzen dena, eta, mugimenduko kide Nora Ugarteburuk azaldu duenez, "oso ondo" joan dira bazkari guztiak. "Oso balorazio positiboa egiten dugu. Ni Bergarako bazkarian egon nintzen, eta primerako giroan egon ginen. Beste bazkarietan ere sentsazio onekin geratu zirela adierazi didate. Batzuek, gainera, urtean zehar gehiagotan elkartzeko asmoa erakutsi dute,

eta hori erakusle ona da", zehaztu du. Horri lotuta, gaineratu du beste herri batzuetan egiten dituztela topaketak urtean zehar ere, baina Debagoiengan oraindik ez da halakorik egiten.

Elkar ezagutzea helburu

Ugartebururen esanetan, Bizilagunak egitasmoaren helburua da "elkar ezagutzeko estereotipo eta aurreiritziak apurtzea, horretarako espazio bat eskainiz".

Horrekin lotuta, CEAR Euskadik azaldu du herritarrek euren etxeen atea zabaltzeko modu bat dela hau, "oso alderdi intimoan". Era berean, bazkari horiek herritar moduan egingako adierazpen kolektibo bat direla gaineratu du: "Ekimenean

ARETXABALETAN, ARRASATEN, BERGARAN, ELGETAN ETA OÑATIN EGIN DITUZTE BAZKARIAK

parte hartzen duten pertsonen beren etxeen edo txokoen atea zabaltzen dizkiote kultura aniztasunari eta itxi egiten dizkiete migratzaileak eta errefuxiatuak arbuatzea dakarten mezu populistei".

Izan daitezke etxeak, edota elkarte gastronomikoak, eta, ekimenarekin bat egitean, herritarrek aukeratu dezakete anfitrioi edo gonbidatu izango diren bazkarian. Horrez gain, bazkari bakoitzean dinamizatzailer bat egon da. "Haren ardurua da bazkaria ondo joan dadin batu beharreko informazio guztia batzea eta baldintza guztiak egokiak izatea".

Mundu osoko ordezkariak

Latinoamerikarrak izan dira gehiengo bazkari horietan, Ugarteburu dioenez: Honduras, Kolonbia, Paraguai eta Venezuela. "Hala ere, mundu osotik etorritako jendea izan da: Guinea Konakry, Pakistan, Senegal, eta abar", zehaztu du.

EUSKARALDIA, GERTU!

7
EGUN FALTA
DIRA

Martitzenean / letrarekin egin zuten bideoa. OÑATIKO EUSKARALDIA BATZORDEA.

Hizkiz hizki, atzera kontaketa hasi dute Oñatin, bideo bidez

Hamaika enbaxadoreek bideo bana egin dute, bakoitzak bere letrarekin; egun bakoitzean bat publikatzen ari dira

E.A. OÑATI

Azaroaren 12an hasi, eta egun bakoitzean bideo bat argitaratzen ari da Oñatiko Euskaraldia batzordea, ekimenari hasiera emateko atzera kontaketa eginez.

A letratik hasi, eta e letraraino, enbaxadore bakoitzak bideo bat osatzen du, bakoitzaren letratik abiatutako esaldi batekin. "Azaroaren 23a iristen ari dela eta, pentsatu dugu modu polita dela bideo hauek egitea. Atzera kontaketa denez, *Euskaraldia* hitza ere atzekoz aurrera osatzen ari gara", adierazi du Iñaki Olalde, Oñatiko Euskaraldia batzordekideak.

Esaldiei dagokionez, Olalde berak osatu ditu enbaxadore bakoitzak esan beharreko esaldiak. "Lana aurreratuta eramate aldera, guztiak nik egin ditut. Modu horretan, esaldi guztien artean oreka bat topatu ahal

izan dut, eta gai desberdinak landu eta mezu desberdinak eman", dio batzordekideak.

Atzekoz aurrera, hastera goaz. Hamaika egun euskaraz; Ilusioa eta indarra batuta, hemendik aurrera euskaraz; Denon arteko erronka delako, euskaratik eta euskaraz eta Lagunekin, etxekoekin, lankideekin, ezagunekin nahiz ezezagunekin, dakigun horretan mintza gaitezen dira orain arteko esaldiak, eta gaurkoa honako hau da: Amestea eta abestea zoragarria da, eta euskaraz bada, are zoragarriagoa.

Hainbat kanal

Bideoak zabaltzeko hainbat kanal erabiltzen ari dira; gehienbat, sare sozialak –Whatsapp, Facebook, Instagram, Twitter...–. Honen guztiaren helburua da ilusioa piztea eta Euskaraldira begira jendea animatzea.

'Ahotsak.eus' proiektuak jasoko du Abbadia saria

2018ko Anton Abbadia saria Euskal Herriko *Ahotsak* proiektuari emango diola jakinarazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Euskararen alde egin duen lana saritu nahi du horrekin, eta 15 urteko ibilbideari aitortza egin.

Badihardugu Euskara Elkarateak abiarazi zuen proiektu hori, 2003an, eta, sorreratik, Euskal Herriko ahozko ondarea eta he-

rri hizkerak bildu eta hedatzea izan da *Ahotsak.eus*-en helburua, eta, gaur egun, 51.082 bideo-parsate biltzen ditu, 350 herritako 5.793 hizlarirenak –tartean, hainbat debagoiendar–. Egun, Idoia Etxeberria oñatiarra eta Goienaren kolaboratzailea ari da lanean webgune horretan.

Diputazioak 1966a ezkereratu du sari hori, eta euskararen normalizazioaren aldeko lanetan nabarmendutako pertsona edo elkarten jarduna saritzen du urtero.



Elgetako eta Antzuolako alkateak, erreklamazioa jartzeko prest. TXOMIN MADIDA

Elgetaren eta Antzuolaren erreklamazio formala

Ez daude ados Bergarako Agorrosingo kirol zerbitzuak erabiltzeagatik euren herritarrek gehiago ordaindu behar izatearekin. Erreklamazioak onartzen ez badira, bide judizialek jotzeko asmoa erakutsi dute alkateek

Jokin Etxebarria DEBAGOIENA

Urteetako hitzezko kexa bat erreklamazio formal bihurtu dute aste honetan Elgetako eta Antzuolako alkateek, Iraitz Lazkanok eta Beñardo Kortabarriak. Arrazoa da ez daudela ados Agorrosingo oinarrizko kirol zerbitzuak erabiltzeagatik elgetarrek eta antzuolarrek bergarrek baino gehiago ordaindu behar izatearekin. "2010etik errepikatzen ari den kontu bat da hau. Bergararrak ez garenok %30 gehiago ordaindu behar dugu zerbitzu horiek erabiltzeagatik eta uste dugu ez dela justua", adierazi du Iraitz Lazkanok.

2005ean Bergarako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sinatutako hitzarmen bat aipatzen dute bi alkateek euren eskaria argudiatzeko. Honelaxe azaldu du Beñardo Kortabarriak: "Hitzarmen horren arabera, Bergarako Udalari 2,1 milioi euroko diru-laguntza ematen zitzaion eta kopuru horretan Antzuolari eta Elgetari zegokion

parte bat zegoen, ulertzen baitzuten instalazio horiek ez zirela Bergarako bakarrik, eta horregatik aitortu zitzaion *influentzia eremu* izaera berezia".

Foru Aldundia, bi herrien alde

Bilera batzuk egin eta gero, aurtengo uztailean kexa formala aurkeztu zioten Gipuzkoako Foru Aldundiari, egoera zein zen erakutsiz eta 2005eko hitzarmenak jartzen zuena oinarri moduan hartuta. Aldundiak arrazoa eman diela azaldu du Beñardo Kortabarriak: "Hasiera batean, bi herrioi eman digu arrazoa, bai, eta, nolabait ere, Bergarako Udalari esaten dio antzuolarroi eta elgetarroi berridin kobratu behar digula".

AGINTALDI HONETAN, HIRU ALDIZ AHALEGINDU DIRA BILDU ETA EGOERA KONPONTZEN

Alkateek aipatu dute agintaldi honetan saiatu direla Bergarako Udalarekin bildu eta egoera konpontzen, baina ez dela posible izan: "Hiru ahalegin ezberdin egin ditugu, urtero ahalegin bat, gai hau bideratzeko, baina uste dugu behar den moduko erantzunik ez dugula jaso. Uste dut utzikeria puntu bat ere egon dela, Bergarako Udalak ez duela gai hau behar bezala hartu eta landu. Horregatik, geure burua behartuta ikusi dugu beste bide batzuk jorratzera".

Iraitz Lazkanok eta Beñardo Kortabarriak gaineratu dute, era berean, ordenantza fiskalei jarritako erreklamazioak onartzen ez badira, bide judizialek jotzeko asmoa daukatela.

Bien bitartean, GOIENA harremanetan jarri da Bergarako alkatearekin, bertako Udalaren ikuspegia ezagutzeko asmoz, baina adierazi du aurrerago emango dutela gai horren inguruko erabakien berri.



UNED berriko liburutegia erakusten. ARANTZAZU EZKIBEL

UNED Bergarak lehen mailako eraikina inauguratu du

Gaur egun, unibertsitateko 27 gradu, 76 master eta doktoregoko 19 programa eskaintzen ditu UNEDek

J.E. DEBAGOIENA

Pasa den asteartean, hilak 13, Udaleko, Aldundiko, UNEDeko, UNED Bergara fundazioko eta Kutxabankeko ordezkariak bertan zirela, Bergarako UNEDek eraikuntza berriua inauguratu zuen.

Errege seminarioko birgaitze-lan integralaren ondoren XXI. mendeko ikasleen premiak asetzeko moduko eraikuntza dela azpimarratu zuten guztiek. Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olanok, adibidez, egin den baliabide publikoen erabilera nabarmendu nahi izan zuen:

"Iruditzen zait erabilera zorrotza eta brillantea egin dela".

Eraikin berriak 2.350 metro karratu ditu erabilgarri, sei pisu ezberdinetan banatuta, eta obraren exekuzioa ia 1.700.000 eurotan egin da.

40 urte gipuzkoarren zerbitzura

Azken 40 urteotan, UNED Bergarako ikasteko aukera eman dio jendeari, betiere, bakoitzaren zirkunstantzia pertsonaletara egokiturik. Gaur egun, unibertsitateko 27 gradu, 76 master eta doktoregoko 19 programa eskaintzen dira bertan.

Arrikruzteko lehoia San Telmo museoan egongo da ikusgai

Udaberrian, Gordailutik Burgosera eraman zuten, eta, Atapuercako ikerlariek aztertuta, Gipuzkoara itzuli da

J. E. DEBAGOIENA

Arrikruzteko lehoia gure lurretan aurkitu den paleontologiaren harribitxietako bat da. Iñaki Zubeldiak aurkitu eta Jesus Altunak indusitako hezurdura hori iberiar penintsulako handiena da, eta, horregatik, Gipuzkoako Gordailuko piezarik esanguratsuenetako bat ere bai.

Udaberrian, Gordailutik Burgosera eraman zuten lehoia, Atapuercako ikerlariek aztertu zezaten. Denbora tarte batean, Burgosko Gizakiaren Garapenaren Museoan egon da ikusgai,

baina orain, Gipuzkoara ekarri dute berriz eta San Telmo museoan egongo da ikusgai datorren urteko otsailera arte.

Bestalde, Aranzadi Zientzia Elkarteak Arrikruzte buruzko liburu monografiko bat argitaratu du, *Arrikutz, Arrikruzteko lehoia* izenarekin. Liburuak hainbat atal ditu: Arantzazu euskal kulturaren sorlekua, lehoia aurkitu zuteneko pasarte, geologia, leize-ikerlariak, Arrikruzte Oñatiko kobak proiektua... Abenduaren 11n Oñatin egingo dute liburuaren aurkezpena.

Arrasate 1936-1956: giza eskubideen urraketak osatzen

JUAN RAMON GARAI

INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA
ARRASATE

Arrasateko Udalak adostutako Memoria Partekatu Baterantz programak 1936tik 2018ra Arrasaten eta arrasatearrei egindako giza eskubideen urraketak argitaratzea du helburu.

Horretarako, bi liburu argitaratuko dira, eta Intxorta 1937 kultur elkarteak 1936-1956 pasartearen ikerketa bere gain hartu du.

Ikerketa honek izen-abizen ugari jasotzen ditu:

Gerraren ondorioz hildakoak 395: 209

Arrasatekoak eta 186 kanpotarrak hemengo frontean hilak.

411: preso edo langile batailoietan.

154 emakume errepresaliatuak.

Herritik alde egindakoak: bi mila eta hiru mila artean -580 Union Cerrajerako langileak eta 205 Elmakoak-.

Frontean lehen larroan ibilitakoak: 895.

Gerrako umeak: 189 -8 ihesean jaio ziren-.

Erantzukizun politikoen prozesatuak: 137.

Eta abar.

Hala ere, pasarte batzuk osatzea gustatuko litzaiguke; adibidez, herritik ihesi joandakoak, gerrako umeak herri desberdinetara joan edo bertan jaio zirenak, langile

batailoietan edo kartzeletan egondakoak, erbesteratuak, isunak jaso zituztenak...

Horretarako, arrasatearren laguntza beharrezko ikusten dugu, baita urte hauetan jasandako edozein giza eskubideren urraketa ere.

Azaroa bukatu arte, telefono zenbaki honetara dei egin dezakezu: 678 24 20 31.

Prest gaude zuen aportazioak entzuteko zita baten bidez, zure etxean edo gure lokalean -Ferrerias kalea 28-.

Irabazi Bergara eta 2019ko Ordenantza Fiskalak

AIERT LIZARRALDE

IRABAZI BERGARA
BERGARA

Laugarren urtez jarraian, Irabazi Bergarak ez ditu onartu EAJ-PSE gobernuak onartutako Ordenantza Fiskalak, "aldebakarrekoak direlako, ezer gutxi landu direlako, ez direlako progresiboak, subjektibotasunean oinarritzen direlako eta helburutzat, ingurumen justizia eta justizia soziala izan beharrean, diru-bilketaren xedea bakarrik dutelako".

Koaliziotik egin ditugun proposamenen artean daude: Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan, ludotekan eta udaleku irekietan hobariak diru sarreren arabera progresiboak izatea, eraikinek energia-efizientziaren hobekuntzan

hobariak izatea, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan %5eko hobaria ematea energia-efizientziaren bidean lortutako jauzi bakoitzeko, eta %40ko hobaria konposta egiteagatik.

Bestetik, Udal Euskaltegian euskara ikastea doakoa izatea proposatu dugu, hezkuntzak publikoa eta doakoa izan behar duelako, gure ustez, eta, euskararen kasuan, are gehiago.

Eta, urtero bezala, Agorrosin kiroldegiko tasak aldatzea ere proposatu dugu, besteak beste, gaizki deituriko familia-tasa ezabatuz. Irabazirentzako ez delako logikoa adingabeei kobratzea gurasoak kiroldegiko bazkide ez badira, eta ez kobratzea, aldi, gurasoak bazkide badira. Neurri hori guztiz bidegabea eta diskriminatzailea dela iruditzen zaigu.

Bestetik, Agorrosin kiroldegiko tasetan, gimnasioaren, igerilekuaren eta sparen erabilerak bereiztea proposatu dugu, eta tasa hau instalazioak erabiltzen direnaren arabera kobratzea.

Jarduera ekonomikoen gaineko zergari dagokionez, tipoa gehienekora igotzea -%2,2-; zerga hau milioi bat eurotik gorako fakturazioa duten enpresek bakarrik ordaintzen dute.

Kutzazain automatikoen zerga igotzea.

Eta uraren kontsumoari dagokionez, 2 tarifazio-maila

izartetik 4ra pasatzea, herritarren artean kontsumo hidrikoarekiko kontzientziazioa zabaltzeko.

Egia, justizia eta oroitzapena

IÑIGO AKAITURRI, MAREN BELASTEGI
ETA IBAI REDONDO

BERGARAKO SORTU
BERGARA

"1937an Gernika gorri-separatistek bonbardatu zuten"; 1937-1977: "40 urteko bakea bizi izan dugu"; 1977-2018: "Tortura ETaren esku-liburuaren asmakuntza da"; 1977-2018: "Demokrazian bizi gara"; "Altsasun 40 terroristak bi guardia zibil eta beraien bikoteak bortizki jipoitu zituzten..."

Irabazleen eta galtzaileen errelatoa, gatazka politikoa ukatzen duena, gezurraren gainean eraikitakoa, alde bakarreko sufrimendua eta biolentzia aitortzen duena, gasolina sutara.

Sortu ez dago prest errelato hori onartzeko.

Bergaran Euskal Herriaren askatasunaren alde, demokraziaren alde, faxismoaren aurka, herriari hitza eta erabakia emateko, gazte edota langileen eskubideen alde borroka egitearren ehunka lagun atxilotu -gutxienez, 130, 1960tik- eta torturatu dituzte -gutxienez, 54, 1960tik- kolore guztietako poliziek, eskuin muturraren ekintza armatuek hainbat herritar kaltetu dute, dozenaka gudari bergarar

erail zituzten gerran, poliziaren kontroletan bi bergarar hil zituzten, presoak bisitatzen jasandako istripuak... eta Anjel Irazabalbeitia *Txorta* Bergarako Basalgo auzoko semea erail zuen Ertzaintzak orain 24 urte Loiun. Estatuarentzat, biktima hauek ez dira inor.

Adibidez, *Txorta* ez da ezer, ez da inor, akabatu egin behar zen terrorista bat besterik ez; ez familiak, ez lagunak, ezta kideek ere ez dute gertatutakoa ezagutzeko eskubiderik, eragindako minaren aitortzarik, ezta erreparaziorik jaso ere.

Ez dugu estatuaren aldetik ezer espero, baina Jaurlaritzaren eskutik?

Bergarako Udalaren eskutik?

Gertatutako guztia jakin nahi dugu, Ezker Abertzaleak eta ETAk eragindako mina aitortu dute, kaltetuak erreparatu behar direla onartu.

Zer egin dute besteek?

Egia, justizia eta erreparazioa eskatzen dugu, gatazkaren ondorioak bizi izan dituzten guztientzat. Bakea demokraziaren eta justiziaren gainean eraiki behar da, gatazka betiko konpondu, erroetara joaz, Euskal Herriari bere etorkizuna erabakitzeke eskubidea aitortuaz eta "alde bietako" kaltetuak askatasunez oroitzeko aukera emanaz.

Agur eta ohore, *Txorta*.

Beti bihotzean, beti gogoan.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Amodio-gutuna • Eskertza-gutuna • Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna • Aldarrikapen-gutuna • Kexa-gutuna



ZABALIK

IÑAKI ETXEBESTE

'Gizon grisak', pinu gorriak

Denbora daramat pentsatzen zer gertatuko zen *Momo* XX. mendeko euskal baserriar artean kokatu izan balu Michael Endek, batez ere, garai hartan berrekin zen basogintzaren baitan, eta egur ekoizpen eredu berrietan. Nik nire bertsio partikularra eraiki dut...

Gizon grisek denbora aurreztearren lanerako adinean zeuden baserriar asko eraman zituzten fabriketara; horrela, *Denboraren Aurrezki Kutxa*-n zituzten aurrezkiak sendotze aldera. Eta zer egin ordura arte gari, arto, baba, arbi, gaztaina, ikatz, eta abar ekoizten ziren landa eta basoekin? *Denbora* asko aurrezten zuen mirari bat ekarri zuten *gizon grisek*; urte berdea, pinuak.

Baina nire bertsio partikularrean, *Momo*-k ez zuen *Casiopea* edo *Beppo* edo Ordu maisuaren laguntzarik izan, eta *gizon grisak* gailendu ziren; urte gutxi batzuek, baina.

'MOMO'-K EZ ZUEN 'CASIOPEA' EDO 'BEPPO' EDO ORDU MAISUAREN LAGUNTZARIK IZAN

Zigarro grisak erre eta erre, *Denboraren Aurrezki Kutxa* krisialdian sartu baitzen, eta *Denbora*-ren aurrezki ziren pinuak, gorriak, eta bi bandaz, agertu ziren.

Hor agertzen da nire *Beppo* partikularra,

"zergatik gorritu dira pinuak?" galderari hurrengo hau erantzuteko: "Hamaika arrazoiengatik". Erratzarekin alde batera eta bestera kaleak garbitzen asteak, hilabeteak, urteak eman zituela erantzun horren bila esan zion *Momo*-ri.

Egun hauek *Momo*-ren eta *gizon grisen* arteko talka egunak dira, baita basogintzan ere.

Natura da bizidun denontzako *Denbora*-ren banku zentrala, Ordu maisua buru duela. *Interesik* ez digu kobratzen, eta hobariak sarri eta oparoak banatzen dizkigu. Bere baldintzak ere badakizkigu, denboraren jabe gu izatea eta bere *plazoak* errespetatzea.

Iraganean *gizon grisen* eskaintzak baserriar asko erakarri bazituen ere, *Momo*-k, *Casiopea* dortokaren laguntzarekin, etorkizuneko basogintza irudikatu du, eta *Gigi* kontuariarekin ari da baserriarrek tratuan.

Denborak esango du nola bukatzen den bertsio hau.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Tijuana

AMAGIOIA MUJIKATOLARETXIPI

[HTTPS://LABUR.EUS/T3J1Y](https://labur.eus/t3j1y)
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Tijuana ez da azken geltokia, baina hara iristea asko da.

Galdetu, bestela, ailegatu direnei, azken hamarkadan Mexikon aurkitu dituzten 2.000tik gora hobietatik libratu direnei, talde kriminalek kudeatzen dituzten hilobietatik.

Tijuana bidea da oraindik ere, baina bada helmuga bat, oihan idorrean den lasterketarik arriskutsu eta zoroenetakoaren amaiera; garaipen handia da, lapurretak, bortxaketak,

bahiketak eta hilketak gainditzea lortu dituenarentzat.

Iritsi dira batzuk karabanen, nahiz eta senide, lagun eta bidaideak utzi behar izan dituzten bide bazterretan.

Eta iritsiko dira egunero-egunero beste batzuk, eta beste asko ez.

Iristen direnek ez lukete lortuko jenderik egongo ez balitz bidean, jatekoa, edatekoa, babeslekua, aholkua eta sosegua ematen; mafien menpeko estatuen hutsunea betetzen duen jende hori ez balego, beti nahi baino gutxiago eskainiz, baina apur hori emanez aurrera egiteko.

Eta orain zer?

Nola egin jauzi amestutako iparraldera daraman harresia?

Nola saihestu mugaren mugan diren asilo eskatzaileez jositako kanpalekuak, kontzentrazio esparru bilakatuak?

Nola ez erotu Tijuana edo Lesbosen, krisi humanitarioa krimen antolatua eskutik dagoen bitartean, han eta hemen?

Baina gaur Tijuana iritsi denak amets bat izango du, datorkiona ez dakienaren ilusioa, atzean utzitakoak ez baitio beste aukerarik ematen.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goyatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa
arduraduna Igone Osinaga.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua

BERBAGAI

"Diabetesa saihesteko, osasuntsu bizi behar da"

ZIHORTZA MARZAN ERIZAINA, DIABETESEKO HEZITZAILEA ETA DIETISTA

Eneko Azkarate ARRASATE

Diabetesaren Nazioarteko Eguna izan da eguaztenean, hilaren 14an. Zihortza Marzan bergararra erizaina da, eta diabetesa dauka.

Gaixotasunaren berri ematen du han eta hemen.

Diabetesak familia osoari eragiten dio?

Bai; familiaren babes garrantzitsua da, egunerokoan ingurunearen ohiturak eragin zuzena izan dezakeelako gaitzaren garapenean.

Elikadura egokia izatea, jarduera fisikoa egiteko ohitura izatea edota tratamenduari aurre egiteko inguruko laguntasuna eta gaitasuna edukitzea; hipogluzemia kasuetan, esaterako.

Datuek diote bi lagunetik bat ez dagoela diagnostikatuta.

Kontua serioa da. 2 motako diabetesak garapen isilagoa du eta zaila da antzematea. Zorionez, 1 motako diabetesean, deigarriak dira sintomak eta familiak samur



Zihortza Marzan. GOIENA

antzean dezake zerbait ezohikoa gertatzen ari dela: umeen kasuan, gehiago jaten hasten dira, nahiz eta argal egon; ura ere gehiago edaten hasten dira; gauez txiza egiten...

Nola jakin diabetesa daukagula?

Nahikoa da odola ateratzea eta analisiak egitea.

Diabetesa kontrolatzea zenbateraino da garrantzitsua?

Oinarrikoa da. Gluzemia maila handia edukitzea ez da

egokia, ze hainbat arazo sor ditzake horrek luzaroan: begietan, giltzurrunetan, oinetan, bihotzean... Bizimodu osasuntsua edukitzea da inportantea.

Martitzenean, Donostian, hitzaldia emango duzu. Zu dietista zara; elikaduraren garrantziaz ariko zara?

Bai. Nabarmendu nahi dut gluzemia maila egokia edukitzea oso garrantzitsua dela eta elikadurak, horretan, eragin zuzen-zuzena duela. Karbohidrato motak; jakiak prestatzeko moduak; jatordu batek grasak eta proteinak badauzka gluzemia mailan eragin ezberdina daukala...

Diozue eskola gune garrantzitsua dela diabetesa kontrolatzeko. Zergatik?

Batez ere, haurrak babes barik egon daitezkeelako eskoletan. 1 motako diabetiko batek, egunean, gaitzarekin zerikusia duten 30 erabaki hartzen ditu. Eta tratamendu farmakologikoa aldatzen du profesionalen babesik barik. Horregatik inportantea da hezitzaileek jakitea nola jokatu behar duten unean-unean, baina irakasleak hezteko profesionalik ez du bideratzen ez Osasun Sailak, eta ezta Hezkuntza Sailak ere. Hori gabezia handia da eta ondorioak izan ditzake.

HAU BE BADOGU!

Quim Torra presidentea Donostian izan da



Gure Esku Dago-k antolaturiko hitzaldia eskaini zuen eguaztenean Torrak, eta sarean *trending topic* izan zen *#JuntsElkarrekin* traola

@izarodriozola: "Torra: "Ezinezkoa dena elkarlanean amesten bada, soilik denbora kontua da" *#JuntsElkarrekin*".

@aitortsu69: "Txalo zaparrada eta independentzia oihiak Torra Kursaal aretoan sartu denean".

Euskal boxeoa, ofizialtasunerantz



Euskal Boxeo Federazioa, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzaren laguntzarekin, IBFn ofizialki onartua izan da (International Boxing Federation), eta ofizialtasunerantz aurrerapauso handia eman du:

@koikili12: "Zorionak Kerman Lejarraga eta zure taldeari @BATbasqueteam taldeko kide berri izateagatik. *#boxeoeffizialakgara*".

Stan Lee komikigileari azken agurra

Marvel etxeko ikur izan den Stan Lee zendu da, eta sare sozialetan hipzide izan da komikigilea mundu osoan zehar:

@gaizkalarranaga: "Txikitatik komiki zalea. Brugerakoekin hasi eta gero super heroiak ezagutu. Gero hauek pasa eta beste komiki mota bat deskubritu nuen arte. Baina *#StanLee* hil dela jakitean, zerbait hautsi zaigu bihotzean, kra".

ITURRI ONETIK

Mondragon, Humanity at Music egosten

Humanity at work edo *Gizateria lanean* da Mondragon Korporazioak bere marka borobiltzeko darabilen esaldia. Horren haritik, Humanity at Music sortu du. Korporazioaren soinu banda izan nahi duena 2019ko irailean aurkeztuko dute, Buesa Arenan. Fernando Velazquezek konposatu du musika; baina Jon Maya dantzaria, Maite Mutuberria ilustratzailea eta Onintza Enbeita bertsolaria ere murgilduta daude proiektu artistikoan. Lanaz gain, artea ere maite du Mondragonek.

ALBISTE IZAN ZEN

2004-11-14

Behobia-Donostia lasterketan laugarren

Ritxar Fernandez oñatiarra Behobia-Donostia lasterketako podiumera igotzetik gertu-gertu egon zen 2004an. Laugarren geratu zen, 1.01.39ko denborarekin. Debagoiendar batek lasterketa horretan inoiz lortu duen denborarik onena egin zuen. Aurten, esaterako, Endika Donnay izan da azkarrena; 1.09.03ko denborarekin 31. postuan sailkatu zen domekan arrasatearra. Urte hartan, Alberto Juzgado madrildarrak irabazi zuen (01.00.14).



GOIENA



Ezkerretik eskumara: Ander Garay eta Maria Ubarretxena –EAJ– eta Oscar Garcia –PSE-EE–. XABI GOROSTIDI

Gobernuak prest du aurrekontua

33.402.524 euroko aurrekontu proposamena aurkeztu dute, eta abenduaren 11n egingo den osoko bilkuran botatuko dute. Finantza arloan, urtarrilean 'zero zor' egoera izango du Udalak, eta agintaldiko bi proiektu garestienak "ia ordainduta" geratuko dira

Xabi Gorostidi ARRASATE

%3,61 handiagoa den aurrekontua proposatu du Udal Gobernuak 2019rako; 33.402.524 eurokoa. Eragina izan du igoera horretan Aldundiko Foru Fondotik milioi bat euro inguru gehiago jaso izanak. Aipatu behar da, urtero legez, aurrekontuaren %70 baino gehiago pertsonal gastuetara eta zerbitzuen mantentzerara bideratzen dela.

Erguingo igogailua, eta gehiago

Hirigintza Sailean bi inbertsio nagusi aipatu zituzten. Lehena Erguingo igogailuarena da. Aurrekontu parte hartzaileetan aukeratua izan zen, eta proiektu teknikoak aurten idazteko diru-kopuru bat bideratu zitzaion. Proiektua "nahiko aurreratuta" dago –urte hasiera aldean aurkeztu nahi dute– eta berau exekutatzeko hasteko 100.000 euro

bideratu nahi dituzte 2019ko aurrekontutik. Exekuzio kostua 1.000.000 eurotik gorakoa izango da, eta hainbat urtetan banatuta ordainduko dute.

Bestalde, Araba etorbidean, espaloi gainean dauden aparkalekuak kentzea aurreikusten dute, eta baita bidegorria txertatzea ere. Proiektua aurreko agintaldian idatzi zen, eta hura exekutatzeko hasteko 200.000 euroko partida bat izan nahi dute.

'Zero zor' egoera, urtarrilean Urtarrilean, Udalak duen zorraz arzen kuota ordainduko

33.402.524 EUROKO AURREKONTUA IZANGO DU UDALAK 2019RAKO, IAZ BAINO %3,61 GEHIAGO

dute, eta momentu horretan *zero zor* egoeran geratuko da Arrasateko Udala. "Etorkizuneko inbertsio garrantzitsuak egiteko, posizio ezin hobean utziko dugu Udala", azaldu du Ogasun batzordeburu Ander Garayk. Kultura arloko bi inbertsio garrantzitsuenei dagokienez, bi partida aurreikusten dituzte 2019rako: 1.080.000 euro Juan Arzamendiko lanak egiteko –%100ean finantzatuta geratuko litzateke– eta 500.000 euro Kulturarentzako –%70ean finantzatuta geratuko litzateke–.

Oposizioaren emendakinak

Azaroaren 5ean helarazi zieten proposamena oposizioko alderdiei. Abenduaren 11ko osoko bilkuran botatuko dira aurrekontuak, eta ordura arte emendakinak aurkezteko aukera izango dute hiru alderdiek.

Aurrekontu proposamenerako zifrak

Hona hemen asteleheneko prentsa agerraldian aipatutako diru partidetakozko batzuk, sailez sail.

HIRIGINTZA

- **200.000 euro** Araba etorbidea berriro urbanizatzeko.
- **200.000 euro** Asfaltatze-planak jasotzen dituen ekintzetarako.
- **200.000 euro** Santa Teresa eta Agerre kaleetako ezponda konpontzeko. Guztira, 800.000 euroko kostua izango du.
- **125.000 euro** Jolas parkeen exekuziorako, eta partida honetatik finantzatuko da ahateen putzuko ur parkea.
- **100.000 euro** Gipuzkoa etorbideko espaloiak konpontzeko.
- **100.000 euro** Erguingo igogailua exekutatzeko hasteko.

KULTURA

- **1.080.000 euro** Juan Arzamendi Musika Etxerako. Partida honekin %100 finantzatuta geratuko da musika etxe berria.
- **500.000 euro** Kulturola eraikina birgaitzeko. Partida honekin birgaitze lanen kostuaren %70 aurreztuta geratuko litzateke.
- **50.000 euro** Amaia antzokiko hobekuntza lanak egiteko.
- **6.000 euro** Herrian muralak egiteko. Horietako bat Makatzenan egingo dela aurreratu dute.

ENPLEGU SAILA

- **3.335.000 euro** lazko programak mantenduko dituzte, eta, *GazteLan* programaren ordeza, *Lan-r bai* programa jarriko dute.

KIROLA ETA GAZTERIA SAILAK

- **40.000 euro** Kiroldegi berriko proiektua idazteko. Anoetako birmoldaketa diseinatu duen enpresa berak egingo du.
- **6.000 euro** Kirol Plan Estrategikoaren barruan dagoen *Guztientzako kirola* proiektuan, kirol egokitua txertatzeko.
- **14.400 euro** Okendo Kirolak denda zegoen lokala behin-behineko txiki-txoko gisa erabiltzeko.

BESTE BATZUK

- **15.000 euro** Parte hartze prozesuak egin ahal izateko.
- **5.000 euro** Udalbatzan eta herrian, ikurren parekidetasuna lortzea helburua duen adituen batzordea martxan jartzeko.
- **10.000 euro** Memoria, bakea eta bizikidetzaren lantaldearentzat.



Parkearen gaur egungo egoera. JAGOBA DOMINGO

Ur parkea, ahateen putzuan

Jolas parkeei dagokienez, ur parke bat egiteko hainbat eskari jaso dituztela azaldu dute; Antzuolan, Oñatin eta Aramaion daudenen modukoa. Hala, asteleheneko prentsaurrekoan aurreratu zuten Santa Barbaran egingo dutela, ahateak egoten ziren putzuan.

Arartekora joko dute Baleikek eta Irabazik

Oscar Garciari jarritako salaketarekin "protokoloa ez zela aplikatu" berretsi dute, eta osoko bilkuran "ustez irainak eta mehatxuak" izan zirela salatu; Garciak dio "min egitera" doazela bi alderdiak eta ustezko mehatxuaren muina laster argituko dela

Xabi Gorostidi ARRASATE

Azaroko osoko bilkuran mozioa aurkeztu zuten bi alderdiek, Oscar Garciak uztailean jasotako salaketa batekin eraso matxisten protokoloa bete ez zela salatzeke. Salaketa hura Garciaren emazteak jarri zuen, baina, gero, erretiratu egin zuen. Fiskalak ez zuen prebentzio neurririk hartzeko zantzurik ikusi, eta Garciak dio salaketa "artxibatzeko bidean" dagoela une honetan. Mozioak eztabaida piztu zuen, eta astelehenean prentsa agerraldia egin zuten bi alderdiek, gaiari buruz hartuko dituzten lau neurri iragartzeko. Arartekora joko dute salaketa horrek izan duen "kudeaketa politikoa" salatzeke. Alkateari gutuna idatziko diote Garciak osoko bilkuran esandako "hau ordainduko duzue, eta hemendik kanpora ordainduko duzue, gainera" hitzen aurrean "ezer ez egiteagatik". Udal Gobernuak ez badu gaia "bideratzen", abendu osoko bilkuran beste mozio bat sartuko dutela ohartarazi dute, eta, azkenik, Garciak ustez egindako mehatxuak aztertuko dituzte, neurri legalak hartu edo ez erabakitzeko.

Oscar Garciaren erreakzioa

Garciak, berriz, esan du bi alderdiak etekin politikoa bilatzen ari direla, eta "oso maila baxukoa" dela horrelako gaiak baliatzea politika egiteko. "Helburua, euren ahotik entzunda, gainera, min egitea da. Baina ez dut uste lortu dutenik; ni lasai gelditu nintzen-eta esan nuenarekin". Bailekek eta Irabazik aipatzen duten "hemendik kanpora ordainduko duzue" esaldiari buruz esan du laster argituko dela zeri egiten zion erreferentzia. Irainei buruz, ordea, zera dio: "Gezurtiak zirela esan nien, eta berretsi egiten dut. Informazioa ukatu zaiela diote, baina gertakariaren hurrengo egunean pertsonalki deitu nien. Gezurretan ari dira".

EH Bilduk gogor gaitzetsi ditu Oscar Garciak "jaurtitako irain eta mehatxu pertsonalak" eta babes osoa eman die zinegotziei. Bestalde, salaketa matxistaren berri izan zenetik gaurdaino EAJK "utzikeria" erakutsi duela esan dute. Maria Ubarretxenak azken bilkuran erakutsitako jarrera "arduragabea" dela diote, isiltasuna erabiliz Garciaren jokabidea babestu duela iritzita.



Eva Abuin eta Igor Urizar –Baleike– eta Juan Luis Merino –Irabazi–. AMAIA ZABALA

OHARRAK

Gaztaina erre jana gaur arratsaldean

Arrasate Herri Eskolako lagunak Herriko Plazan batuko dira –16:30ean– urteroko gaztaina erre jana egiteko.

Harreman-ek zozketa egingo du zarzuelan

Lau emanaldietako bakoitzean otarre bat zozketatuko dute. Horrez gain, ekainean egindako Ibai-Arte tonbolaren sari nagusia Nerea Abadek irabazi duela jakinarazi dute. 539 zorbakiari esker lortu zuen Eroski Bidaien saria.

Pentsiodunen elkarretaratzea

Astelehenean egingo dute, 12:00etan, Herriko Plazan.

Kultura Dôan!

Arrasaten erosi eta lortu zure sarrerak doan

8 Sarrera bikoltz

ZARZUELA
Luisa Fernanda

Sarrik azaroparen 17an bertan dagoen 01002etik gainera Herriko Plazan.

25 Sarrera bikoltz

ANTZERKIA
Hamalika amaren seme (alaba)

Erroketatik sarrerak sari hauetarako Antzokian bertan irakutsiko dira.

25 Sarrera bikoltz

ANTZERKIA
Erlauntza

Erroketatik sarrerak sari hauetarako Antzokian bertan irakutsiko dira.

50 Sarrera bikoltz

ZINEMA

Tiketetik sari hauetarako Antzokian bertan irakutsiko dira.

PARTE HARTU ETA LORTU ZURE SARRERAK

Ibai-Arte antolatutako promozio eta zozketan **PARTE HARTU.**
www.ibaiarte.eus







Ana Isabel Ugalde, Xabier Bengoa, Maria Ubarretxena, Jose Angel Barrutiabengoa eta Josu Etxezarraga. ENEKO AZURMENDI

Aurkitutako hilobiaren datazioa jakiteko zain

Gesalibarren dagoen Erenuzketa (Enuzketa) baserri ondoan, garai batean Santiago ermita zenaren arrasto bat aurkitu dute AZEko lagunek. Eraikinaren arrastorik ez dute aurkitu, baina bai hari lotutako hilobi bat, eta baita Erromatar garaiko zeramikak ere

Xabi Gorostidi ARRASATE

Aste emankorrek izaten ari dira hauek AZEko lagunentzat. Kanpatorpeko indusketen bigarren faseak hainbat fruitu eman ditu, eta, azken urteetako ohiturarekin jarraituz, herriko historia arrasatearrei helarazteko Iragana Astintzen hitzaldi zikloa dute martxan. Baina hori gutxi ez, eta Erenuzketa (Enuzketa) baserri inguruan indusketa bat egin berri dute. Bertan, garai batean zegoen Santiago ermita-kilobi bat aurkitu dute.

IX. eta XII. mende artean egin ohi zituzten hilobi estilokoa da, baina oraindik ez dakite zehazki zein mendetako den. "Iaz San Bixenten aurkitu genuen hilobiaren antzekoa da", dio Aranzadiko ikertzaile Josu Etxezarragak. Harlauzaz egindako hilobia da, eta haur baten buruzurra dago barruan. "Estalpe gabe denbora luzea egin du gorpuak, eta, baldintza klimatologikoen ondorioz, desegin egin dira hezurak. Hala ere, bure-

zurra nahiko osorik dago. Izan ere, hilobiko harlauza bat buru gainean du, eta, nolabait, babestu egin du. Horregatik kontserbatu da hobeto. Burua mende baldera begira dauka, eta hankak ekialdera. Horrez gain, besotakoak izan daitezkeen hezur batzuk ere aurkitu ditugu, baina oso deseginda daude", adierazi du Etxezarragak.

Kokapenari dagokionez, garai batean Erenuzketa izenarekin agertzen zen elizate edo herrirka bat zen; gutxienez, XIV. mendera arte iraun zuena. "1353an, Arrasateko hiribildura batu ziren Garagartza, Uribarri, Gesalibar, eta abar, eta horien artean Erenuzketa ere bai. Gero, desagertu egin zen herrirka

HILOBIAK XI. ETA XII. MENDEETAKOEN ANTZA DU, BAINA ZEIN MENDEETAKO DEN JAKITEKO ZAIN DAUDE

moduan, baina bagenuen zantzu bat hori herrirka bat izan zela. Ez dakiguna da noiz sortu zen".

Zeramikazko pieza

Leku berean beste aurkikuntza garrantzitsu bat egin dute; izan ere, hilobia eraiki zen buztin horretan erromatar garaiko zeramikazko pieza batzuk topatu dituzte. "Asentamendu hau askoz

ere lehenagokoa dela frogatzen du horrek. Hala ere, ez dakigu erromatar garaiko zein urtetakoak diren, ezta erromatar garaia ere eta Goi Erdi Aroko hilobi horren artean zer gertatu zen ere. Izan daiteke Erromatar garaiko asentamendu horiek denboran irautea eta ondoren elizak eraikitzea, baina ez dakigu oraindik".

Indusketekin jarraituko dute

Oraingoz, miaketa txiki bat besterik ez dute egin, eta zabalean induskatu arte ez dute informazio gehiagorik izango. "Asmoa da indusketak egiten jarraitzea, jakiteko benetan zer zen, ermita nolakoa zen, ea hilobi gehiago dauden eta nolakoak diren, eta aurreko asentamendu hori nola garatu zen. Gainera, lekua oso aproposa da indusketak egiteko, eta, gainera, bizilagunek ez dute trabarik ipini".

Martitzeneko hitzaldia

Iragana Astintzen zikloak ez du etenik. Asteazkenean, herri lurren galera izan zuen hizpide Josu Narbartek. Martitzenean, hilak 20, Gipuzkoako itsas ekonomian Arrasatek izan zuen eraginaz hitz egingo du EHUko doktore Xabier Alberdik. "Arrasateko burdin ekoizpena Europara zabaltzeko kanala itsasoa zen. Era berean, itsaso bidez etortzen ziren hona soinekoak, kristalak...", azaldu du AZEko kide Xabier Bengoak.

EUSKARALDIA

Biziprest eguna bihar eta mahai ingurua eguaztenean

Euskaraldia hasteko sei egunen faltan, *Biziprest* eguna ospatuko da bihar. Honako hau da egitaraua: 12:00etan, bizikleta martxa herriko kaleetan zehar; 12:00etatik 14:00etara, *Ahobizi* eta *Belarriprest tronkomobilean* auzoz auzo -San Andres, Arimazubi, Musakola eta Herriko Plazatik pasako dira-; 12:00etatik 14:30era, Herriko Plazan, *Biziprest* festa ospatuko da txosna, txapa banaketarako gunea, *photocall*-a, eta abar egongo dira-; 12:00etatik 13:00etara, ipuin kontaketa egongo da, Herriko Plazan, txikientzako; eta ostean, 13:00etatik 14:30era, DJa.

Azaroaren 21ean, *AED*: *sorreatik Euskaraldia* mahai-ingurua egingo dute, Joxe Mari Muxika *AED*ko presidente ohiak, Jasone Mendizabal Topaguneko zuzendariak, Ane Zuazubiskar kazetariak eta Oskar Elizburu *AEK*-ko irakasleak. Hitzordua 18:30ean da, Kulturaten.

OHARRAK

Baserritarren azoka

Laugarren postre lehiaketa izango da bihar protagonista, eta erosleek horiek dastatzeko aukera izango dute, 13:00etatik aurrera.

Txakurren emozioak.

Gai horri buruzko lanketa egingo dute Okendoko ludotekan. Hitzordua: gaur, egubakoitza, 18:00etatik 19:30ak arte.

LANA • FISKALITATEA • KONTABILITATEA • JURIDIKOA-ABOKATUAK



30 urteko eskarmentua fiskal, kontabilitate, lan eta merkataritza arloetan, enpresen, autonomoen, partikularren eta enpresa bat sortu nahi dutenen zerbitzura

Basabe Industriaidea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa) • Tel.: 943 71 21 12 www.zenbaki.eus

Kultura eta zozketak, Ibai-Arteren eskutik

Hilaren 15etik 30era, 24.000 euro emango dituzte 5 eta 10 euroko erosketa-txarteletan. Bestalde, hiru musika emanaldi eta ipuin kontalari ikuskizun bat ere lotu dituzte azaroan, eta zarzuelarako, antzerkirako eta zinemarako sarrerak banatuko dituzte

Xabi Gorostidi ARRASATE

Gabonak gerturatzen ari diren honetan, herriko merkatarien elkarteak ekintza zaparrada interesgarria prestatu du.

Hasteko, kultura egitarau bat antolatu dute azarorako, ipuin kontaketeekin eta kontzertuekin. Hala, bihar, zapatua, Kontukabi ipuin kontalaria Herriko Plazan arituko da, 12:00etan. Ostean, 19:00etan, What A Band bergarrek kontzertua egingo dute, leku berean. Hilaren 23an, Sara Alonso abeslariak emanaldia egingo du, 19:00etan, Herriko Plazan. Eta hilaren 24an, zapatua, Arrasateko Musikaleko Big Banda herriko kaleetan zehar arituko da, 11:30etik aurrera.

Baina kultur arloko ekarpena ez da hor amaituko; izan ere, Arrasate txartelaren erabiltzaileek beste kultur emankizun batzuetara joateko aukerak izango dituzte. Hasteko, *Luisa Fernanda* zarzuelarako zortzi sarrera bikoitz zozketatuko dituz-

te. Herriko Plazan emango dute irabazleen berri, bihar, zapatua, 13:15ean. Ostean, Doke antzerki taldeak abenduaren 2an egingo duen *Hamaika Amaren Seme (Alaba)* antzezpenerako 25 sarrera bikoitz ere banatuko dituzte. Hori gutxi ez, eta Valven Producciones-en *Erlauntza* antzerkirako 25 sarrera bikoitz eta Amaia Antzokian zinema ikusteko 50 sarrera bikoitz ere zozketatuko dituzte.

24.000 euro erosketa-txarteletan
Aipatutako guztiaz gain, hilaren 15etik 30era herriko dendetan erosketak egiten dituztenen artean –Arrasate txartelarekin, edo txartelik gabe– 24.000 euro banatuko dituzte erosketa-txarteletan. 5 eurokoak edo 10ekoak izango dira, eta abenduaren 1etik 15era bitartean egiten dituzten hurrengo erosketan aplikatu ahaliko dira. Ibai-Arteko ekintzetan parte hartzeko, deitu 943 79 30 90 telefonora.

Itxaropena plazako jolas parkeko lanak, abendu amaierarako

Joan den astean, plaza horretako jolas parkeko lanak geldi zegoela salatu zuen irakurle batek. Lan horiek Altuna y Uria enpresari esleitu zitzaizkion, eta, hasiera batean, urriaren 27an amaitzea zen enpresak eta Udalak aurreikusten zutena. Baina estalpearen hornikuntzan izandako atzerapen batengatik, lanak amaitzeko epea abenduaren 20ra luzatzea eskatu du enpresak.

Auzoko bizilagunengan izan ditzakeen eraginen inguruan, zera adierazi du Udala Gobernuak: "Sentitzen dugu erabiltzaileei dakarkien eragozpena. Dena den, Udalaren kudeaketatik kanpo dagoen arrazoa du oinarrian atzerapen honek".

OHARRAK

Doako wifi gune bi

Orain arte, hiru gune zeuden herrian erabilgarri –Arimazubi, Laubide eta Biteri–, eta orain, beste bi gehiago jarriko ditu Victor Fuentes buru duen Teknologia Berrien batzordeak: udal kiroldegia eta Euskararen plaza. 16.932,95 euroko aurrekontua izango du esku hartzeak, eta ahalik eta azkarren egingo dute.

EH Bildu

Alkategaia eta zerrendakideak aukeratzeko prozesua martxan dute. Prozesuan izena emateko, 644 29 85 87 telefonoa jarri dute eskuragarri, eta *Elkarrekin. ehildu.eus* ataria ere bai.



Sara Alonso abeslaria. FACEBOOK

Hipermerkatuetan soilik

EROSKI

BLACK FRIDAY

azaroak 22 23 24

BEZa

* Beza deventar soilik

oparituko dizugu

produktu Elektronikoa
eta Etxetresna Elektrikoetan

Eta, gainera

Jostailuetan, Modan eta
Oinetakoetan, etxeko Ehunetan eta
Atsedeen-produktuetan, Lurrinetan,
aurpegiko produktu Kosmetikoetan,
Makillajeetan eta Parafarmazian,
Bitxi-dendan eta Optikan... eta
Urdaiazpiko piezetan.

*Auzo-eremuetan, hiru guneetan EROSKI eta herriko eremuetan, prozesuak azkarren egiten direla erabiltzaileei erabiltzeko aukerak emango dira. Hurrengo EROSKI hipermerkatuetan erabiltzeko aukerak emango dira. Hurrengo EROSKI hipermerkatuetan erabiltzeko aukerak emango dira. Hurrengo EROSKI hipermerkatuetan erabiltzeko aukerak emango dira. Hurrengo EROSKI hipermerkatuetan erabiltzeko aukerak emango dira.

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

ARRASATE

"Aurten 5,40-5,50eko marka dut helburu"

Istar Dapenak Gipuzkoako pertika jauziko errekorra hautsi du 5,31 metroko saltoarekin, eta Urrezko Ezkurra eman berri diote, baina denboraldiak gazitik gozotik baino gehiago izan duela uste du, lesioek ez diotelako utzi nahi zuen mailarik ematen

Jokin Etxebarria ARRASATE

Urrezko Ezkurra jaso berri du Istar Dapenak. Gipuzkoako Atletismo Federazioak urtero egiten duen galan eman zion saria, pertika jauzian Gipuzkoako marka hautsi zuelako iaz. 1995ean Jon Karla Lizeagak errekorra jarri zuenetik, inor ez da gai izan marka hori hausteko, arrasatearra iritsi den arte. "Jon Karla gainditzea ez zen erraza eta horren erakusgarri handiena da zenbat urte pasa diren errekorra egin zenetik eta zenbat jende egon den ahalegindu dena hori lortzen eta ezin izan duena egin".

Gipuzkoako eta Euskadiko atletismoan protagonista handietako bat izan dela ez dago dudarik, eta horregatik jaso du jaso duen saria. Baina Dapenarentzat, denboraldi gazi-goza izan da: "Ez dut nahi nuen beste mailarik eman. Lesioengatik, hasieran jarri nituen helburuetara gerturatzerik ez dut



Istar Dapena, entrenamendu baten aurretik. ARTXIBOA

lortu, eta, gauza positiboak egon badira ere, gazitik denboraldiak asko izan duela esango nuke".

Lesio gehiegi

Goi mailako kirolaria denez, entrenatu eta zaindu beharra

dauka Istar Dapenak. Kirol batzuetan, baina, kirol horietan egiten den lanetik bizi izatea ia ezinezkoa da. Askok ikasketekin uztartzen dituzte maila profesionaleko entrenamendu pila horiek; beste askok, lantegiko

lanarekin. Hori da Dapenaren kasua. Lantegian hiru txandatan ibili eta markak uztartzea ez zaio batere erraza egin. Eta horri, izandako lesio guztiak gehitu behar zaizkio.

"Pista estaliko denboraldia justu-justu amaitu nuen. Egia da Espainiako Txapelketa Absolutuan brontzea eskuratu nuela eta Gipuzkoako errekorra hautsi nuela, baina aire libreko denboraldiari ezin izan nion ondo aurre egin. Astero arazoren batekin ibili nintzen, orkatila zela, iskioak, bikiak..." dio Istar Dapenak. Frustraziora eraman zuen egoera horrek mondragotarra, eta, azkenerako, denboraldia amaitutzat eman zuen.

Iazkoak helburu aurten

Pista estaliko denboraldia ez da urtarrilera arte hasiko, baina atzetik lana lepo egin behar delako, buru-belarri ari da Istar Dapena, Jonathan Perez bere entrenatzailearekin lanean.

"Uste dut mentalki ere egoerari eman diodala buelta. Hiru errelebotan jarraitzen dut lanean, baina dagoeneko ohitu naiz eta eguneroko errutina aurrera eramaten ez daukat horrenbeste arazorik," dio pertika jauzilariak. Gogotsu dago, iazko denboraldi zailetik ikasi bai, baina berau lehenbailehen ahazteko gogoarekin. Hori horrela, bere ibilbidean aurrerapauso garrantzitsu bat emateko prest dagoela aitortzen du: "Aurten,

5,40-5,50eko marka dut helburu. Uste dut iaz ondo egon izan bainintz, lortuko nuela, eta aurten lortu beharra daukat. Egia da 5,31koarekin marka bat apurtu nuela, baina, azken finean, nire eguneroko jauzietan lortzen dut 5,30 inguruan ibiltzea."

Montxu Mirandak, 2000. urtean, Bartzelonan, Espainiako errekorra ezarri zuen, 5,81 metroko jauzi batekin. Urteak pasatu dira ordutik, eta aurtengo urterako Dapenak daukan helburua urrun dago marka horretatik oraindik. Kontuan hartu behar da, baina, Jonathan Perezek zuzentzen duen atletak 22 urte besterik ez duela, dagoeneko Espainiako maila absolutuan podiumean amaitzeko gai izan zela eta Europako Promesen Txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu zuela.

Lanarekin, esfortzuarekin eta zorte apur batekin, nazioarteko txapelketetan izango da parte hartzen Dapena denbora gutxian. Arrasaten pertika jauzilari eskola bikaina dagoela erakutsi dute azken urteetako emaitzek, eta eskola horrek sasoi onean jarraitzen duela erakutsi nahi du Istar Dapenak aurten.

HORRENBESTE LESIO IZATEAK FRUSTRAZIORA ERAMAN ZUEN ATLETA ARRASATEARRA



Ointxe! ere, Euskaraldiarekin

Goierriren aurkako derbia erabili du Ointxe! Saskibaloitza Taldeak Euskaraldiarekin bat egiten duela erakusteko -92-66 irabazi zuen MUK-. Saskibaloiak batzen gaitu, Euskaraldiak batu egingo gaitu leloa hartu dute klubean. Oraingo, indarra eman dio EBA mailako taldeari; Santurtzin bosgarren garaipena jarraian batzen saiatuko dira asteburu honetan.

Kanpanzar-ART: lesiorik ez izatea eta aurrera begira jartzea

Arrasatearrek Bilboko Universitario taldearen aurka jokatu dute bihar, zapatua, 16:00etan, Mojategin

J.E. ARRASATE

Denboraldi hasieran egutegia ikusi zutenean, lehen jardunaldiak Kanpanzar-ART errugbi taldearentzat oso gogorrak izango zirela barneratu zuten Igor Isasiren mutilek. Lehen mailako talde indartsuenen aurka jokatzeko egokitu zaie, eta horri, min hartutako jokalariren zerranda luzea gehitu behar zaio. Horren guztiorren adibide gordinena azken jardunaldian gertatu zitzaiena da: Ordizian, zortzi jokalareri erabilgarriekin bakarrik gelditu zen Kanpanzar

ART atsedendaldian, eta epaileak bertan behera utzi zuen partidua, 31-5 emaitzarekin.

Orain arte jokaturiko partiduetatik, irabazteko moduko bakarrenetakoa Gernikaren aurkakoa izan zen. Igor Isasirenek oso neurketa txukuna jokatuz, batez ere, hasierako minutuetan, baina, orduan ere, min hartutakoek eragina izan zuten eta galdu egin zuten.

Bilboko Universitario, bihar

Sailkapenean bi talde besterik ez dute atzetik arrasatearrek eta

aste honetako aurkaria ez da egoerari buelta emateko aproposena; izan ere, Bilboko Universitario, hasiera batean, denboraldi amaieran goiko postuetan amaitzeko hautagaietako bat da.

Hori horrela, aurrera begira jartzea dagokie Isasiren mutilei. Bilbokoen aurka bonusen bat lortzen saiatu -irabazten bada askoz hobeto, noski- eta neurketa, min hartutako jokalaririk izan gabe, hurrengo partidua prestatzeko erabili. Izan ere, Gabonak bitartean etorriko zaie arrasatearrei euren ligako taldeen kontra aritzeko momentua eta sailkapenean lasaitasun apur bat hartzeko aukera. Getxo, Menditarrak eta Bera-Bera izango dira hurrengo aurkariak. Horien kontra behar dituzten puntuak batuta, liga beste modu batera ikusiko dute.

"Berezia da aitaren lana taula gainean ikustea"

FEDERICO MORENO TORROBAN LARREGLA MUSIKARIA

'Luisa Fernanda' zarzuela idatzi zuen Federico Moreno Torroba musikariaren izen bera du semeak ere. Aste bukaeran Arrasaten izango da, zarzuelaren estreinaldian

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE Bihar, zapatua, estreinatuko dute *Luisa Fernanda* zarzuela; eta, publikoan, ikusle berezia izango dute: obraren egilearen semea. Federico Moreno Torroba "pozik" dago Arrasatera etortzeko jaso duen gonbidapenarekin.

Ilusio berezia egiten du aitaren lana taula gainean ikustea?

Bai, noski! Beti izaten da gustukoa norberaren familiaren lanak ikustea. Arrasaten, gainera, lehenengo aldiz egingo dute. Interesgarria da horrelako herri baten zarzuelarekiko duten interesa; eta nabarmentzekoa da Gipuzkoan lirikarekiko dagoen zaletasuna. Zarzuelarekiko gustua estimulatu du horrek.

Zure ustez, nolako da *Luisa Fernanda* zarzuela?

Obra liriko-dramatikoa da, umorezko ukituekin zipritzindua. Liburua oso ondo idatzia dago eta musika, aldiz, zarzuelen historian gehien ipini dena da. Uste dut 20.000 bat aldiz antzeztu dela estreinatu zenetik; mundu mailan ezaguna da.

Nola definituko zenuke zure aita musikari moduan?

Beharbada, ez dago ondo neuk esatea, baina musikari aparta zen. Lan asko egin zuen zarzuelan, eta, batez ere, horregatik da ezaguna; baina sinfonia mailan ere hainbat lan egin zituen; batez ere, gitarra klasikoarendako. Gainera, jende askok ez dakien arren, aditua zen musika gregoriarrean. Izan ere, bere aita, gure aitaita, organo-jotzaile profesionala zen; Madrilgo hainbat elizatako organo-jotzaile titularra zen. Horregatik, txikitatik dokumentatu zen musika gregoriarrean, nahiz eta zarzuelatan eta musika sinfonikoan ez den erabiltzen. Eskola handiko musikaria zen: irakasle izan zuen Conrado del Campo. **Musikarekiko pasioa familiaratik datorkizue?**



Federico Moreno Torroba Larregla –semea–. F.M.T.

"BEHARBADA, EZ DAGO ONDO NEUK ESATEA, BAINA GURE AITA MUSIKARI APARTA ZEN"

Bai, amaren aldeko aitaita Joaquín Larregla zen, konpositore eta piano-jotzaile handia. Nik ere tradizioa jarraitzen dut eta esan daiteke ez dakidala besteirik egiten. Musika da nire ogibidea: zuzendu egin dut, konposatu egin dut... Gaur egun, zarzuela batzuk egokitzen nabil bertsio sinfonikoetarako.

Gainera, aitaren lanak ere zuzendu izan dituzu.

Bai, askotan. Batez ere, AEBetan; 60ko hamarkadatik, urtero joaten naiz hara musikarekin zerikusia duen zerbait egitera. Zarzuela Corporation elkarte lirikoa sortu nuen han. AEBetan *Luisa Fernanda* lehenengo aldiz estreinatu genuen, San Diegon, hain zuzen. Ondoren, Plácido Domingo Washingtongo Operan eskaini zuen, arrakasta handiarekin; baina lehenengoa ni izan nintzen.

Arrasate moduko herrietan, nolako lana egiten dute elkarte lirikoek?

Handia, handia... asko laguntzen dute zarzuelak ezagun egitera. Horrelako herrietan zarzuela asko egiten dira, profesionalak ez diren konpainiekin. Batzuetan, gainera, orkestrarako dirurik ez dute izaten eta pianoaz lagunduta bakarrik egiten dute. Garrantzi izugarria du horrek. **Gaur egun, zer-nolako osasuna du zarzuelak?**

Oso ona, osasun ona du. Gertatzen dena da, askotan, konparaketak egiten ditugula, eta adituek esaten dute operaren anaia txikia garela. Ez da horrela, bi gauza ezberdin dira: opera gauza bat da eta zarzuela, berriz, beste bat. Denok dakigu askoz ere transzendentzia handiagoa duela musikalki *Parsifal* operak *Luisa Fernanda*-k baino. Gertatzen dena da zarzuelarekiko grabazioak oso zaharkituta daudela, 50eko hamarkadakoak. Grabazio berriak egin beharko lirerateke.

Zer egingo duzu Arrasaten?

Gaur, egubakoitza, iritsiko naiz. Bihar herria ezagutuko dut eta arratsaldean zarzuela ikustera joango naiz.

Jon Basaguren musikaria izango da Irati topalekuan

Domekan eskainiko du kontzertua, 19:00etan; horrez gain, hilaren 23an Audience taldeak joko du Iratin

A.E. ARRASATE

Irati topalekuak hainbat emanaldi antolatu ditu azaroan zehar eskaintzeko. Etzi, domeka, hasiko dituzte emanaldiak, Jon Basaguren musikariarekin.

Izaki Gardenak taldeko liderrak bakarka aurkeztuko du Izaki Gardenak taldearen *Dena oskol* disko berria. Hil honetan bertan aurkeztutako lana da *Dena oskol*; hilaren 14an Iruñean aurkeztu zuen diskoa gasteiztarrek eta bigarren emanaldia Arrasateko izango da. Emanaldia Irati topalekuan izango da, 1900etan.

Eguenean, azaroaren 22an, Aracely Leon Medinak hitzaldia eskainiko du: muntaia polizial baten ondoren atxilotua izan zen Mateo Gutierrez preso politikoaren ama da hura. Hitzaldi hori gaztelaraz izango da, 18:30ean.

Hurrengo egubakoitzean, berriz, Audience taldeak hirukote formatuan joko du Iratin. Audience taldearen abestiez gainera, beste zenbait bertsio ere eskainiko dituzte gernikarrek. Emanaldia 23:00etan izango da, doan.

Kulturate teknologia berrien topaleku izango da bihar

New Age Generation jardunaldia antolatu dute beste behin ere; Kulturaten izango da, egun guztian zehar

A.E. ARRASATE

New Age Generation jardunaldia egingo dute bihar, zapatua, Kulturaten. Modu horretan, teknologia berrien topaleku bilakatu dute kulturagunea. Jardunaldi horien bitartez teknologia berriak ezagutzera eman eta horiez gozatzeko bidea eman gura dute.

Errealitatea birtuala, robotika eta dronen lasterketak eta zozketak egingo dituzte. Horrez gain, 200 euroko sariak banatuko dituzte e-sports lehiaketako sarietan.

Egun guztian zehar zenbait Clash royale eskainiko dituzte. Teknologia berrien arloan errealitate birtuala ezagutzeko aukera egongo da; dronen tailerrak eta erakusketa ere egingo dituzte; eta, robotika tailerra eskainiko dute.

Jardunaldia 10:00etan hasiko dute eta egun guztian zehar egongo dira Kulturaten. Teknologia berriak eta bideo jokoak gustuko dituztenen jardunaldia izango da; izan ere, gustuko duten horretan trebatzeko aukera izango dute.

4 urtetik gorako umeendako ipuinak kontatuko dituzte

Karabi karaba: ipuin barregarriak saioa egingo du Ines Bengoa ipuin kontalariak. 4 urtetik gorako umeendako ipuinak izango dira aurkeztuko dituenak. Bi saio eskainiko ditu: azaroaren 20an, martitzena, Santa Marinaran izango da; eta azaroaren 27an, martitzena, Kulturaten. Bi saioak 18:00etan eta euskaraz izango dira.

Kanpaina bat abiarazi dute, gazteek sarea ondo erabil dezaten

Zibereskubideen eta ziberbetebeharren gaineko kanpaina prestatu dute Aldundiak eta Udalak. Prebentzioa eta sentsibilizazioa sustatu eta gazteak ahalduntzea izango du helburu. Ludoteka eta gazte txokoetan landuko dute gaia, hurrengo astetik aurrera; horrez gain, *Kulturadigitala.eus* atarian kanpaina osoa ikus daiteke.

EUSKARALDIA



Hiru aramaioar ahobizi txapekin, martitzeneko Biziprest formazio saio aurretik. J.I.

Ahoa bizi, belarriak prest, bikoizketa lehiaketarako

Euskaraldirako girotzen ari da herria. Martitzenean banatu zituzten txapak, eta formakuntza saioa ere egin zuten; datozen asteetarako, berriz, bikoizketa lehiaketa antolatu dute: hainbat film pasarteren elkarrizketak ordezkatu beharko dira bertan

Julen Iriondo ARAMAIO

Bikoizketa aurrez prestatu bai, baina zuzenean eszenaratu beharko da, azaroaren 30ean kultura etxean egingo den jaialdian. Lehiaketaren funtsa da filmetako pasarteen jatorrizko elkarrizketak eta soinuak asmatutakoengatik ordezkatzea. Ordezkatu beharko diren pasarteetarako lotura Aramaio Udalaren webgunean aurki daiteke. Inork nahiko balu bertan jaso gabeko proposamenik egin, izena ematerakoan abisatzeko eta aztertu dutela azaldu dute antolakuntzatik, Udalaren Euskara sailetik. Elkarrizketa berri guztiak euskaraz izan beharko dira, batuan edo euskalkian.

Lehiaketan parte hartu dezakete Aramaio jaio, bizi edo lan egiten duten pertsonak, eta taldeak bi eta lau pertsona artekoak izan beharko dira. Hiru kategoría egongo dira: 8 eta 12 urte artekoak; 12 eta 20 artekoak; eta 20tik gorakoak. Adin nahasketak

ere onartuko dituzte –izena ematerakoan zehazteko eskatzen dute–, eta kategoría erabakitzeke txikiena hartuko da kontuan.

Testu berriak prestatzeko laguntza emateko, tailerrak ere egingo dituzte –ez da derrigorrezkoa horietan parte hartzea–. Hauek datorren astean izango dira, martitzenean eta eguaztenean, hilak 20 eta 21; 8 eta 12 urte artekoentzat izango da lehenengoa, 16:30ean kultura etxean, eta 12 urtetik gorakoentzat bigarrena, 17:30ean udal-etxean. Saiotako gidaria Iurgi Etxebarría izango da; eskolako antzerki irakaslea da Etxebarría, eta filmen eta pasarteen auke-raketan ere hartu du parte.

AZAROAREN 30EAN EGINGO DUTE SAIOA BIKOIZTUTAKO PASARTEAK ESZENARATZEKO

Tailerrerako eta lehiaketarako izena udaletxean edo liburutegian eman daiteke, eta baita euskara@aramaio.eus helbidean ere; tailerrerako, azaroaren 19a baino lehen eman behar da, eta lehiaketarako hilaren 26a aurretik. Hilaren 30eko jaialdian, 17:30ean hasita 8 eta 12 urte artekoen txanda izango da, eta 18:30ean hasita, berriz, 12 urtetik gorakoena.

Sariei dagokionez, Hontza Extremera joateko sarrerak izango dira gazteenentzat, 75 euroko bonua bigarren kategoriakoentzat eta Aramaio jatetxe batean erabiltzeko 80 euroko beste bat nagusienentzat.

Txapak eta formakuntza

Martitzenean 240 aramaioar inguru zeuden izena emanda Euskaraldirako, bosten bat *belarriprest* modura eta besteak *ahobizi*. Sastiñan egindako *Biziprest* formazio saio aurretik banatu zituzten txapak.

Lapurrak sartu dira gazteen lokalean eta Asanbladarenean


Telebista eta kotsola eraman zituzten lehenengotik; bigarreanean, batez ere, endredoa eragin, domekan

J.I. ARAMAIO

Kanpoko atean kristala apurtuta, barruko armairuak ere bai, eta gazte lokaletik Gazte Asanbladaren gelarako ateko sarraila txikituta; eta dena hankaz gora. Horrela utzi zuten lapurrek gazte lokala eta Asanbladak bilteko erabiltzen duen gela.

Lapurtutakoari dagokionez, telebista, bideo-kotsola... gazteen lokalean, eta disko gogor bat eta ezer gutxi gehiago Asanbladarenean. Lapurrak sartzen diren lehen aldia ez dela eta "nazkatuta" daudela azaldu dute Gazte Asanbladakoek publiko egin duten komunikatu batean.

Haien gela beste talde batzuek ere erabiltzen dute, Orixol mendizale elkarteak eta talde feministak, adibidez. Komunikatuan adierazi dute han biltzen diren eragileek ez dutela arazorik beste kolektibo edo pertsona



ATGA. ATGA

batzuekin, eta gertatutakoak ez duela "azalpen logikorik", eta ez dela "mendeku" bat izan.

Aramaio gazteria berriz indarberrituko dela diote, eta beste herri batzuetako gazte eragileak arriskuaz ohartarazi dituzte.

Martxan dago Kuadrillaren orri markagailu lehiaketa

Lanen neurria izan beharko da 4,5x21 zentimetro. Gehienez, hiru aurkeztu ahalko ditu parte-hartzaile bakoitzak, eta irudi, marrazki edo pertsonai ezagunak ezingo dira irudikatu. Adin mugarik ez dago parte hartzeko, eta sariak kategoriaren araberrakoak izango dira. Azaroaren 29ra arte aurkez daitezke. Informazioa: www.aramaio.eus.



Orri markagailuak. ARAMAIO.EUS

Oskarbi abesbatzaren emanaldia izango da bihar kultura etxean

Bihar, zapatua, 19:00etan izango da Gasteizko Oskarbi abesbatzaren emanaldia kultura etxean. Printzipal antzokian eta Jesus Guridi kontserbatorioan emaldiak egindakoa da abesbatza, eta Espainiako hainbat lekutako abesbatzekin trukeak ere egin izan ditu. Nagore Alangua da zuzendaria, zuzendaritzan esperientzia handia duena.

Mugitzeko arazoak dituztenek laguntzak eska ditzakete

Mugitzeko arazoak dituzten pertsonak taxia garraibide alternatibo modura erabiltzeko laguntzen urteko deialdia kalean da. Onuradun izateko hainbat baldintza bete behar dira. Eskerak aurkezteko epea datorren urteko urriaren 31n amaituko da. Argibide gehiago Udalaren gizarte zerbitzuan eta webgunean eskura daiteke.

Parkean egingo direnak zehazten hasiak dira

Ehunik gora lagun izan dira parte-hartze prozesuko saioetan, eta Olgeta enpresako Itsaso Pagoagak astean aurkeztu du, kultura etxean, jasotako informazioa aintzat hartuta diseinatutako proposamena. Lanen lehen fasea aurten bertan hasiko da

Julen Iriondo ARAMAIO

Lehen fase honetan gaur egungo parkeko txikieneen gunea eraberrituko dute. Zorua eta jolaserako elementuak kendu eta mailakatutako egurrezko egitura bat jarriko dute; eta, bertan integratuta, kaxa magikoa deitu dutena: "Lurzorua desnibelatuta dago, eta, desnibel hori aprobetxatuta, pentsatu dugu zur teknologiko batekin estaltzea, eta zoru horrek izango ditu koxka edo maila desberdinak; oinez ibili ez baina euren kabuz mugitzen diren umeak eroso ibiltzeko, oinez dabiltzanek gora igo eta salto egiteko, eta zaintza lanetan dabilzan gurasoak eroso eta goxo jarrita egoteko. Bestetik, kaxa magikoa egongo da askotariko materialez beteta, harri, harea, askotariko kaskarak; zentzumenetarako aberatsa izango da". Horrekin batera, eskolatik beherako txirristaren eskuinaldean, malda horretan gora eta behera ibili ahal izateko sokak jarriko dituzte, eta esperimenezko txoko bat

–sukalde moduko bat, adibidez– ere proposatu du Pagoagak, azken hori auzolanean egiteko. Hilabeteotan egindako parte-hartze prozesuko saioetan 4 eta 12 urte arteko 89 umek hartu dute parte –galdezu zaie parkean



Lehen fasean jarriko duten egurrezko zoru egitura. OLGETA

PARKE OSORAKO DISEINUA EGIN ARREN, LEHEN FASEA SOILIK EXEKUTATUKO DUTE, ORAINGOZ

zer erabiltzen duten, nola, zer duten gustuko...-. Horrez gain, hamasei gurasok ere hartu dute parte, eta hamar hezitzailek ere bai, haur eskolako eta eskolako artean, eta baita jangelako zaindzaileek ere.

Aurten berritzen hasiko direna aipatutako gunea izan arren, parke osorako diseinu proposamena egin du Pagoagak: "Kontuan hartu dugu mugimendu beharrak zeintzuk diren jaiotzatik eta nerabezaro, gaztaro edo helduarora arte, eta parkeko diseinuak erantzuten die horiei modu progresibo baten. Badago katamarrean ibiltzeko espazio bat, oinez ibiltzeko, korrika, salto egiteko, gordetzeko...". Dagokionean erabakiko da, dena den, parkea eraberritzeko hurrengo urratsak zeintzuk izango diren.

Jolas libre, irizpide nagusi

"Ikusi dugu umek gustuko dituztela parkeko elementu naturalak, zuhaitz, aldapa eta harri-inguru. Pentsatu dugu horiek horrela uztea inportantea dela. Jolas librearen aldeko apustua interesgarriagoa da, jolas konkretuetarako eraikitzen diren egiturak baino"; beraz, jarriko liritekeen elementu berriek irizpide horri erantzungo liokete, Pagoagaren arabera.



Kaxa magikoa deitzen dutena, jolas librerako egitura edo espazioa. OLGETA



Finaletako pilotari denak, garaikurrekin. ARAMAIO PILOTA ELKARTEA

Aramaioko ordezkari guztiek irabazi egin zuten finaletan

Garaipen erraza izan zen Sanz-Arriolabengoarena; estuak, berriz, Herrarte-Errasti eta Letona-Olaizolarenak

J.I. ARAMAIO

Harmailtan jende ugari zela jokatu ziren San Martin pilota txapelketako finalak. Lehenengo bostak jokatu, seigarrenean, Infantil A mailakoan, Herrartek eta Errastik 18-14 irabazi zieten De Toro eta Cariñanos. Legutiokoak ondo hasi ziren, kolpe handiagorekin, eta bizpahiru tantoko aldeak izan zituzten partiduaren lehen erdian; baina fisikoki behera egin zuten gero, eta hobeto aguantatu zuten etxekoek neurketa luzea.

Kadete B mailako finalean, Zaramagako Sanzek eta Arriolabengoak 22-9 irabazi zieten Lakuako Perez de Lezeta eta Alavari. Sanzek tanto mordoa egin zituen sakez, eta garaipen erosoan izan zen beretzat eta atzelari aramaioarrarentzat.

Kadete A mailan, azkenik, Del Campok ezin izan zuen jokatu, eskuan min zuen eta; Zaramagako Letonak osatu zuen bikotea Olaizolarekin. Aramaiokoak hartu zuen partiduaren erantzukizuna bere gain, eta, 20-21 galtzen zihoazela, bi tanto bikainekin eman zion buelta markagailuari, Lakuako Estibalezen eta Antiaren kontra.

Kadete B mailako finalean, Zaramagako Sanzek eta Arriolabengoak 22-9 irabazi zieten Lakuako Perez de Lezeta eta Alavari. Sanzek tanto mordoa egin zituen sakez, eta garaipen erosoan izan zen beretzat eta atzelari aramaioarrarentzat.



NIRE USTEZ


JOKIN LARRAÑAGA

Gizaera

Gu gara. Izan ginen, eta izango gara. Ala ez? Egunen joan-etorriarekin batera, konturatu naiz kaleek ez dutela txikitako oroipenetako distira bera. Haurren ahotan jada ez da entzuten euskaldunon legatua, eta gurasoek ez dute inolako ardura arrastorik erakusten. Gure izaeraren alderdi astunenatariko bat lurperatua izan dela dirudi. Hala ote? Hizkuntzaren edertasunean gordeta dagoen izaera ulertu ezean, gainbehera goaz, hizkuntza bakoitzak bere ingurua ulertzeko modu berezi bezain bakarria duelako, eta euskaldunon ingurumenarekiko lotura izugarri ongi azaltzen du gure hizkuntzak. Tamalez, gaur egun bizi dugun mundu azeleratu honek funtzionalitatea eta etekina soilik ditu helburu; ondorioz, izaera eta edertasuna ez dira garrantzitsuak. Eta, onerako ala txarrerako, Euskal Herria azelerazio horren erdiguneetako bat da. Serie fabrikazioak artisautza ordezkatu zuen lez, hizkuntza *erabilgarriek* euskara ordezkatu dute, egoerak berdin jarraituz gero, eta, euskarak euskaldun egiten gaituen heinean, desagertzeaz gaude. Gure heriotzaren zein etorkizunaren jabeak gara; jardun dezagun, beraz, hilezkortasunerako bidean.



Ibarra kiroldegi aurreko berdegunea, atzealdean skate parkea dagoela. MIRARI ALTUBE



Futbol zelai berriaren kokalekua. ARQUINICA ESTUDIOA

Zazpiko futbol zelaia, gertuago

Ibarra kiroldegi aurreko berdegunean egingo duten futbol zelaiaren proiektua dagoeneko gertu dago. Lanak esleituko dituzte orain, eta, urte berriarekin batera eraikitzen hasiz gero, udarako bukatuta izango delakoan daude Udala eta UDA

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Ia bi urte pasatu dira Ibarra kiroldegi aurreko berdegunean zazpiko futbol zelaia egingo zutela iragarri zutenetik. Eta horretarako lehen oinarriak jarri dituzte: proiektua. Arquinica Estudios taldeak egin du, eta, Udalaren eta UDAREN oniritzia jasota, lanak esleitzea geratzen da orain. Unai Elkorok alkatearen esanetan, lehenbailehen egingo da lehiaketa deia; lanak egiteko hamasei aste aurreikusitako dituzte.

Hitzarmena, sinatzeak

Proiektuaren idazketa gertutik jarraitu dute udal ordezkariak: "Zelaia ahal zen handiena izan zedin gura genuen. Era berean, berdegune osoa ez genuen erabili gura; hala, zelaiaren eta skate parkearen artean zati bat hutsik geratu da, etorkizunean beste zerbaitekin erabili izateko".

Lanen aurrekontua 451.260 euro da: "Udal aurrekontuan sartuta ditugu 400.000 euro, eta gainerakoa, UDAK hartuko du beregain", dio alkateak. Eta egunotan hitzarmena sinatuko dute bi erakundeek, Udalak eta UDAK: "Han jasoko da UDAK entrenamenduak dituen bitartean guretako izango dela, eta bestela, edonork erabili ahal izango duela", dio Agurtzane Elkorok, kirol elkartearen presidentea.

Ureztatuta eta argiztapenarekin

Sasoi bateko futbol zelaia egon zen lekuan bertan egongo da

ENTRENAMENDUAK EGITEKO ERABILIKO DU UDA-K ETA LIBRE DAGOENEAN EDONORI ZABALIK IZANGO DA

berria; hortaz, orduko arrastoren bat ager daitekeela uste dute proiektuaren egileek. Berdegunearen mendebaldean eraikiko dute, eta egin beharreko lehenengo lana lurra berdintzea izango da. Futbol zelai ingurua- ren neurria zehaztu dute: 58x38 metro; eta zelaiak berak 52x32 izango ditu. Belar artifiziala jarriko diote eta hori ureztatze- ko sei aspertsore izango ditu.

Hormatxo batek itxiko du zelaiaren ingurunea, eta haren gainean bi metroko hesia izango da; baloiek ez alde egiteko, ostera, 6 metroraingo sarea jarriko diote. Argiztapena ere izango du zelaiak; 12 metroko lau zutabe jarriko dira eta bakoitzaren gainean LED motako lau proiektore. Hainbat sarrerak izango ditu gune horrek; bata autoendako eta beste bi oinezkoendako bakarrik. Ihes egin-

dako baloi bila joateko ere izango da beste irteera bat.

Futboleko jokatzeko behar den materialarekin hornituko dute gero: bi ate (porteria) mugiezin, kornerrendako lau zutabe, eskuz aldatzeko markagailua, jokalarientzako aulkiak, ikusleendako eserlekuak eta zakarrontziak. Elkororen esanetan, ez da partidurik jokatu hor: "Entrenatzeko soilik erabiliko dugu, partiduak jokatzeko txikia delako", eta gaineratu du: "Kirola egiteko zelaia izango da, gura duen guztiarentzako zabalik. Nire esku

balego, beste bat ere egingo nuke, mundu guztiak egin dezan kirola!". Aretxabaletako kirol elkartearen dauden 500 kirolaririk, 400 inguruk dihardu futboleko.

Bedarretako futbol zelaia

Aretxabaletako lehenengo futbol zelaia Bedarretan egon zen. Zerrajerak utzi zizkion lurrak horretarako, eta alboko beste bi lursail ere behar izan zituzten. 1950eko abuztuaren inauguratu zuten, eta, horretarako, Athleticen eta Eibarren arteko partidua antolatu zuten; Athleticen

"Edonork erabili ahal izango du zelaia"

AGURTZANE ELKORO UDA-KO PRESIDENTEA

Pozik dago presidentea, zain egon diren zelaia badator eta.

Gustura proiektuarekin?

Bai; guk eskatzen genuena da: zelai sinplea, itxura amerikarra duena –horma barik–, inpaktu gutxi eragiten duena inguruan eta edonori zabalik.

Garrantzitsua da UDAREN dako?

Bai. Batetik, leku barik gaudelako; 25 talde ditugu eta ezin dute gura beste entrenatu. Eta bestetik, gure azken



GOIENA

proiektua lantzeko beharrezkoa dugulako; horrek dio gazteek zenbat eta ordu gehiago pasatu kirola egiten, orduan eta gutxiago egongo direla beste kontu batzuetan. Hori izan zen abiapuntua, gura duen guztiak kirola egin dezan baliabideak eskaintzea. **Aurrekontuaren zatitxo bat jarriko du UDAK, ezta?** Bai, hartutako konpromisoa beteko dugu; 50.000 euro inguru izango dira.



Bedarretako zelaia inaugurazioa. U.A.



Ibarra futbol zelaia egin berrian, Malkorre baserria atzealdean duela. UDAL ARTXIBOA

irabazi zuen partidu hura (3-1) eta garaikurra Zarrak jaso zuen Gipuzkoako Federazioko idazkariaren eskutik. Bedarretako zelaia, baina, hiru denboraldi bakarrik iraun zuela du gogoan Migel Igartuak, 1965 eta 1967 urte artean kirol elkarteko presidente izan zenak: "Zerrajeraren lursaila zen, ez zizkiolako saldu gura izan lurra UDARI, eta Tubos lantegia egin ahal izateko tailerraren eta lursailaren beharrez izan zen. Dena den, zintzo jokatu zuten haiek, eta egindako gastuak ordaindu zituzten".

Markoleko zelaia

Markole inguruan futbol zelaia egiteko lurra lortzen 1947an ere saiatu ziren, eta ahalegin horri berriro heltzea erabaki zuten. Hala, 1953an akordio batera iritsi ziren haien jabearekin, Bonifacio Arregi Garairekin.

10.304 metro koadroko lursaila 131.460 pezetaren truke erostea adostu zuten, bost urtetan ordaintzeko konpromisoarekin. Futbol zelaia, oster, 557.814 pezetako aurrekontua izan zuen; 594.683 euroko diru-sarrerak izan zituzten UDAK, irabaziak zelai berriaren zainketa lanetara bideratu zituzten. 1954ko abuztuan inauguratu zuten, eta orduan, Alaves eta Eibar taldeak gonbidatu zituzten.

Lehenengo zelai hari hainbat hobekuntza egin zituzten 1967an: lur buztintsua jaso eta hobe botata, ureztatze arekak egin, ur-berogailu berriak jarri eta belarra mozteko makina erosi, besteak beste. Behin lanok egin da, ahal zen egoera onenean mantendu gura zuten zelaia. Hala, partiduetarako bakarrik erabil zedin, beste zelai bat egokitu zuten haren alboan: anexoa.

Hareaz eta lurrez egindakoa zen, araututako zabalerara (45 metro) iristen ez zena; entrenamenduetarako eta beheko mailako eta emakumezkoen partiduetarako erabili zuten, 1994a arte. "Oroitzapen benetan politak ditut; putzuz beteta egoten zen beti", dio han jokatu zuen Agurtzane Elkorok.

Udalarekin hitzarmena sinatu zuen 1990ean UDAK, eta futbol zelaiari zegozkion lurra hari eman zituzten. Trukean, belar artifizialeko zelai berria egiteko konpromisoa hartu zuen Ibarra eta anexoaren lekuan. 1995ean inauguratu zuten zelai berria, emakumezkoen partidua jokatuta: UDA Bergararen aurka.

"Aretxabalean zeresan handia du UDAK eta futbolak; niri neurri, dena eman didate: lagunak, balioak... Zaindu egin behar ditugu horiek", dio Elkorok.

Tristura handia eragin du Aitor Sarasuaren heriotzak

Oso maitatua zen bertsolari aretxabaletarra; hileta elizkizuna bihar izango da, Itsasun (Lapurdi), 11:00etan

M.A. ARETXABAETA

Gaixoaldi luze baten ondoren, eguaztenean, hilaren 14an, hil zen Aitor Sarasua Maritxalar (Aretxabaleta, 1967). Tristura handia eragin zuen berriak herrian; izan ere, aspalditxoan Itsasun (Lapurdi) bizi arren, oso maitatua zen. Bihar, zapatua, izango da hileta, Itsasuko elizan, 11:00etan. Senideek harrera egingo diete lagunei, etxean, gaur, egun gutzian.



Aitor Sarasua. BERTSOA.EUS

Bertsoen bueltan beti

Bertsolaria, bertso eskolako irakaslea, eragilea, gai-jartzaila... horretan eta beste hainbat kontutan jardun zuen. Almen ikastolako bertso-eskola aitzindarian hasi zen bertsoan, 7 urte ingururekin, Jon anaiaren eta beste hainbat lagunaren artean. Bertsozalelanari eutsi zion Arrasateko AEDko bertso-eskolako lagunartean. Eta gero, gazteen artean sustatzaile lanetan jardun zuen.

Jon anaiak adina oholta ez zituen zapaldu, baina beti jardun zuen lanean bertsozalelanaren bueltan. Diskoa ere kaleratu zuen bertso jarri musikatuarekin, anaiarekin batera, 1995ean: *Fau-*

na txiki bat bertso berrian. Lapurdira bizitzera joandakoan, bertso-irakasle izan zen lehenengo, eta Iparraldeko Bertsolarien Lagunak elkartean sartu zen. Bertsozale Elkarteko eragile lanetan ere jardun zuen.

Umorea azkenera arte

Patxi Goikoleak, bertso-eskolako haren irakasleak, tristura handiarekin hartu zuen berria: "Felix Iñurrategiren ostean, bigarren ikaslea hil zaigu. Orain-tsu egonak ginen hura ikusten; beti lez, aparteko umorearekin jarraitzen zuen".

Ezaugarri nagusiak

Futbol zelaia

- **Tamaina:** 52x32 metro.
- **Belarra:** Artifiziala.
- **Ureztatzea:** 6 aspertore.
- **Argiztapena:** Lau proiektore (LED) dituzten lau zutabe (12 metro).
- **Instalakuntza:** 2 ate; markagailua; 4 kórner zutabe; jokalarien aulkiak; eta ikusleen eserlekuak.

Ingurua

- **Lurzoru:** Hormigoizkoa.
- **Horma:** Hormigoizkoa.
- **Hesia:** 2 metro.
- **Sarea:** 6 metro.
- **Sarrerak:** Autoendako bat, oinezkoendako bi.

Zein oroitzapen dituzue?



DEUNORO BENGUA JOKALARI ETA PRESIDENTE OHIA

"Bedarretan jokatu nuen nik lehenengo, eta gero, Ibarra; oroitzapen oso politak ditut: Armendariz erkiko defentsan eta ni ezker hegalean, Olivares... Giro polita genuen taldean, baita gero ere presidente izan nintzenez; 300 pezetako irabaziak eta guzti lortu genituen".



MIGEL IGARTUA PRESIDENTE OHIA

"Bedarretako futbol zelaia eraikitzen lanean jardun nuen, harriak kentzen; eta gero, Ibarra ere bai, gurdiairekin, aitzurrarekin... Jokalari ez nintzen izan, baina bai diruzain eta presidente. Diru gutxi genuen, baina giro ederra, Arrasatek eta Gasteiztik ere etortzen ziren jokatzerara".

Bisita gidatua domekan, argazki zaharrei jarraituta

Herriko hainbat gunetan orain-tsu jarri dituzten argazki zaharrei jarraituta bisita gidatua egingo dute etzi, azaroak 18. Herriko Plazatik abiatuko dira, 10:00etan, Aitor Antxia Leturia gidari hartuta. Gaztekeraz izango da oraingoa; eta hurrengo domekan, hilaren 25ean, euskaraz egingo dute.

Kalebarrenean hasi eta poliki-poliki eta kontu kontari egingo dute Ibarra futbol zelai ingururainoko ibilbidea. Ibilaldi horretara gerturatutakoek ezagutuko dituzte, besteak beste, Errotazarko eta udaletxe zaharreko kontuak, trenaren gaineko istorioak, Beroa lantegikoak eta bainuetxeak.

EUSKARALDIA

Jai giroan ekingo diote Euskaraldiari hilaren 23an

Euskaraldia abiatzear da, eta dagoeneko 1.000 aretxabaletarrek egin dute bat horrekin. Jai giroan ekin gura diote azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean iraungo duen ekimenari eta horretarako egitarau dotorea gertatu dute. Hamaika etxafuego botata ekingo diote egunari hilaren 23an, eta arratsaldean musika eskolako kideek kantuak eta dantzak eskainiko dituzte Herriko Plazan (17:00). Ekitaldi nagusiari hamaikakoak emango dio hasiera (19:00), eta gero, bertsolariak –Iñaki Apalategi eta Iñaki Viñaspre– eta trikitilariak girotuko dute.

Txakur kakak direla-eta kezka agertu dute umeek

Alkatearengana jo dute Arizmendi Ikastolako Basabeazpiko 5 urteko neska-mutikoeak, azken asteotan landutako proiektuaren berri ematera: txakurren gaineko kontuak eta, batez ere, horien gorotzak direla-eta herrian dagoen arazoa

Mirari Altube ARETXABALETA

Herria txakurren kakekin bete dagoela ohartu dira Arizmendi Ikastolako Basabeazpi guneko ikasleak; ohartu bakarrik ez, frogatu ere egin dute. Izan ere, txakurren gaineko proiektua landu dute hainbat astetan. Eta horren guztiaren berri alkateari ematera joan dira.

Errealitatea ezagutzen

"Abiapuntua izan zen txakur kakekin zikindutako oinetakoak kanpoan utzi eta ortozik gelara sartu zen irakasle bat. Horrek segituan piztu zuen umeen interesa", jakinarazi du Iñaki Gonzalez irakasleak, eta gaineratu: "Ondoren, kalera joan ginen, herrian dagoen errealitatea zein den behatzera. Umeak konturatu ziren kaka kopuru handia dagoela edozein bazterretan". Inkesta egin zuten herritarren artean, eta etxean ere bete zuten galdetegia. "Datu mordoa jaso genituen; asko, oso interesgarriak. Txakurren funtzio soziala, esaterako, balioan jarri da. Baina arazoa ere hor dago: kakak". Hala, albaitari bati deitu zioten, eta hark azaldu zien kaka horiek beste animalia batzuegan izan dezaketen eragina. Txakur hezitzaile baten bisita ere jaso zuten, horien lana eta animalien errealitatea gertutik ezagutzeko: "Txakurtegietan daudenek bizi dutena jakin genuen, eta txakurrek egiten dutena bertatik bertara ezagutu". Hainbat arlo lantzeko baliatu dute jasotako materiala eta jakintza hori guztia: matematika, irakurketa, musika...

Ordenantza betearazten

Arazoari konponbidea topatu nahian joan ziren joan den astean alkatearengana: "Egindako lanaren berri eman diogu eta konponbidea ere proposatu diogu. Zein? Txakurren jabeek kaka horiek jasotzea".



Basabeazpiko neska-mutikoeak alkatearen aurrean azalpenak ematen. MAIALEN REGUEIRO



Txarteltxoak txakur kaken gainean

Sentsibilitate kanpaina jarri gura izan dute abian umeek. Horretarako, familien laguntzarekin, txarteltxoak jarri dituzte topatutako gorotz bakoitzaren gainean. "Txartel mordoa atera ditugu, eta, hala eta guztiz ere, motz geratu gara".

Unai Elkorok harrera beroa egin zien: "Poztekoa da umetatik kontzientzia hartzen hasi direla jakitea", adierazi du, eta arazo horri heltzekotan direla dio: "Ordenantza bat egon badagoela jakinaraziko diegu herritarrei

laster, eta hori betearazten hasiko garela. Izan ere, ez da bakarrik kaken kontua, animaliak lotuta ez eramateagatik ardiekin sortu den arazoa ere hor dago. Jabeek dagozkien ardurak bete behar dituzte".

Zibereskubideen gainean hausnartuko dute nerabeek

Gaztelekuan elkartuko dira hiru egunetan horretarako, eta eguaztenean gurasoendako hitzaldia dago

M.A. ARETXABALETA

Azaroaren 20an ospatzen den Haurren eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Egunaren bueltan antolatutako *Like! Zibereskubideak* kanpainarekin bat egin du dute Udalak eta herriko hainbat eragilek –ikas-tetxeak, hezitzaileak...–, eta Interneten nerabeek dituzten eskubideen eta betebeharren gainean jardungo dute egunotan. Hala, gaztetxoek, 12 eta 16 urte bitartekoek, gaztelekuan landuko dute gaia, aste bukaeran, egubakoitzetik domekara.

Gurasoek, ostera, eguaztenean, hilaren 21ean, ziberbullyingaren gaineko hitzaldia izango dute udaletxean (18:00); Pantallas Amigas elkarteak kideak joango dira argibideak ematera.

Azaroaren 23an jaialdia

Lanketa borobilduko dute hilaren 23ko jaialdiarekin. Ipuin kontaketa izango dute umeek, eta gazteek ikastaro bi: *scratch* -a eta bideo jokoan programazioa. Eta kanpaina bukatzeko, txapa tailerra, mural-egitea eta DJa izango dituzte.



MAIER ETXEBARRIA

Jaiki elkartearen urteurrena

Hamabosgarren urteurrena dabil ospatzen Jaiki; joan den egubakoitzean, esaterako, erakusketa zabaldu zuten Arkupen eta lagun zaharrak elkartu ziren. Gaur, ostera, *Contakids* saioa izango dute Arkupen bertan (17:30). Gurasoek eta neska-mutikoeak elkarrekin dantzan eta jolasean jarduteko une goxo eta atsegina izango da, Zigor Lasagabasterrek gidatuta.

'Milaka lelokeri' ipuin kontaketa Miren Larrearekin

Miren Larrea kontalariak maleta ipuinez beteta eroango du haurren liburutegira, bihar, zapatua, 11:30ean –debalde da–. Maleta gorri horretatik aterako ditu oihal zatiak, argazki zaharrak, kartoiak, txikitako oroitzenak eta milaka lelokeria. Eta, hain zuzen, *Milaka lelokeri* izenburupean milaka istorio kontatuko ditu.

OHARRAK

Dokumentala

Joseba Egibar argazkilari aretxabaletarrek *Espiritu indio* izeneko dokumentala eskainiko du martitzenean, Arkupen (19:00).

'Cold war' filma

Helduek *Cold war* filma (Polonia, 2018, 88 min.) izango dute aste bukaeran eta umeek, *Superagente canino* bihar eta etzi (17:00).



Maite Uribe, Joserra Zubizarreta eta Josu Ezkurdia, udalbatzan, egitasmoaren aurkezpenean. AMAIA TXINTXURRETA

Herritarren partaidetzan oinarritutako ekimena

Herritarrak aktibatze eta Eskoriatza hobea egiteko, ekimenaren inguruko informazioa duen eskuorriarekin batera inkesta bat helaraziko da eskoriatzarren etxeetara, herritarrek hainbat gairen inguruan duten iritzia ezagutzeko

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzak merezi du kampaniaren lehenengo bi herri bilerak egin dituzte dagoeneko, eta, hemendik aurrera, elizateetako ekarpenak jasoko dira. Horrekin batera, ekimenaren gainean diseinatu duten inkestaren berri ere eman dute.

Agintaldi hasieran, Udalak herritarren partaidetzan oinarritutako *Hiri berritze plana* abiarazi zuen. Ekimen horren baitan, irisgarritasunaren, hiri altzarien egoeraren eta udal zerbitzuen sarearen inguruan herritarren ekarpenak jaso ditu azken urteotan. Ekimen arrakastatsua izan da, Udalaren iritziz, 450 eskaera baino gehiago jaso dira eta horietatik 360 inguru eginda edo egiteko bidean daude eta beste 60 bat baztertu egin dira, hainbat arrazoirengatik. Hori horrela, *Hiri berritze plana* baztertu gabe, *Eskoriatzak merezi du* ekimenak pauso bat harago joan nahi du. Horretarako, herritar guztien artean,

kale garbiketa, gazte lokalak, ibilgailuen abiadura... hainbat arazo eztabaidatu eta konpondu nahi dituzte.

Eztabaida foroak

Herritarrak aktibatze, eztabaidatu beharreko gai batzuen inguruko foroak izango dira. Foro horietan, aniztasuna bilatu nahi du Udalak, ikuspuntu desberdinak aztertu eta sentsibilitate desberdinetako pertsonen arteko kontsentsuak lortzeko. Foro horietan parte hartzeko gonbidapena inkesta baten bidez helaraziko die Udalak herritarrei. Inkestaren bidez, Udalak eskaintzen dituen zerbitzuen inguruan edota aurrera eramandako proiektuen inguruan herritarrek

**GAI BATZUEN GAIAN
EZTABAIDATZEKO ETA
KONPONBIDEAK
BILATZEKO FOROAK
ANTOLATUKO DITUZTE**

dituzten iritziak eta proposamenak ere jasoko dira.

Joserra Zubizarreta alkateak adierazi duenez, "*Eskoriatzak merezi du* ekimenaren helburua ez da *Hiri berritze plana* ordezkatzea. Ekimen berri honekin, pauso bat harago joan nahi dugu. Herritarrak ahaldu nahi ditugu eta ikusarazi nahi diegu egunerokotasuneko gauza txiki-ekin herrian eragiteko dugun ahalmena. Guztion artean, Eskoriatza hobea egitea da helburu nagusia, guztion inplikazioarekin eta guztion iritziak kontuan hartuta".

Inkesta bidaltzeko

Udaletxean, kultura etxean, liburutegian eta kiroldegian jarriko diren postontzietan utzi ahal izango dira inkestak, azaroaren 23tik abenduaren 14ra; eskoriatzakmerezidu@eskoriatza.eus ere helbidera bidali daitezke. Inkesta udal webgunean eskuratzeko aukera ere izango dute herritarrek.



Eskoriatzako batzordea hasiera ekitaldirako ekintzak prestatzen. EUSKARALDIA ESKORIATZA

'Ahobizi' eta 'belarriprest' txapak eskuragarri daude kultura etxean

Azaroaren 23an, 19:00etan, Euskaraldiaren hasiera ekitaldia egingo dute; hainbat ekintza daude antolatuta

I.B ESKORIATZA

Euskaraldia Eskoriatza Batzordeko kideak atzo hasi ziren Euskaraldia egitasmoa begirako txapa banaketekin. Asteleheneetik eguenera 17:00etatik 19:00etara bitartean eta egubakoitzean, gaur, 18:00etatik 20:00etara bitartean banatuko dituzte, kultura etxean.

Azaroaren 23an hasiko da *Euskaraldia 11 egun euskaraz* egitasmoa, eta ekimenen parte hartuko duten Eskoriatzako herritarrek jaso dezakete dagoeneko beraien *ahobizi* edo *belarriprest* txapa. Aste honetako

datuen arabera, 610 pertsonak hartuko dute parte Euskaraldian: 199 *belarriprest* eta 411 *ahobizi*, hain zuzen ere.

Euskaraldirako prest

Azaroko lehenengo bi asteetan informazio saioak ematen izan dira batzordekideak, ia egunero, eta 114 herritar pasa dira bertatik. Hori horrela, saioen gaineko balorazio positiboa egin dute antolatzaileek eta bertaratu direnek.

Horrekin batera, azaroaren 23an hasiera ekitaldia izango da, 19:00etan, herriko plazan.



I.B

Bazter-babesak Bolibarren

Bolibarrera bidean, GI-3344 errepidean, bazter-babesak jarri berri dituzte. Eskoriatzako Udalak bideratutako proposamena izan da eta errepidearen beheko aldean doan pasealekuko erabiltzaileak babesteko helburua dauka. GFA arduratu da lanak egiteaz, eta 240 metrotan jarraipena eman zaio aurrez zegoen biondari. Aurrekontua 15.000 eurokoa izan da.

Hiru egunez, hiru pintxo berezi izango dira aurten

Eskoriatzako Udalak antolatuta, III. pintxo lehiaketa izango da, gaur hasi eta domekara arte. Parte hartuko duten tabernak ere hiru izango dira, Akeita, Urrestilla eta Mirentxu, eta bertako produktuak erabiliz pintxo bereziak izango dituzte

Imanol Beloki ESKORIATZA

Herriko merkataritza eta ostalaritza sustatzeko eta pintxoak egiterakoan bertako produktuak erabiltzeko helburuarekin, Eskoriatzako Udalak hirugarren urtez antolatu du pintxo lehiaketa. Gaur, 18:30ean, hasiko da, eta, domekara arte, Akeita, Urrestilla eta Mirentxu tabernekin egunerako prestatu dituzten pintxo bereziak probatzeko aukera izango da.

Brazztet MV Brass Band taldea

Gaur, egubakoitza, 18:30ean hasiko da lehiaketa, eta, giroa berotzeko, ordu berean, Brazztet MV Brass Band taldea arituko da lehiaketan parte hartuko duten tabernen inguruan giroa alaitzen. Metal, haize eta perkusioko zazpi musikaririk osatzen dute taldea, eta jazz, swing, blues, funk, hip hop, latindar saltsa, rock fusio eta reggae estiloak uztartzen dituzte.

Pintxo bakoitza 1,80 eurotan

Gaur, egubakoitza, hasiko da lehiaketa, eta domekan, 14:00etan, izango da sari banaketa, herriko plazan. Pintxo bakoitzak 1,80 euroko prezioa izango du, eta ordutegi hauetan probatu ahal izango dituzte herritarrek Akeita tabernak prestatutako *Neguari Koxk*, Urrestilla tabernaren *Kokotxa-nel* eta Mirentxuren *Frantsesatxue* pintxoak: goizez, 12:00etatik 15:00etara bitartean; eta arratsaldean, 18:00etatik 21:30etara bitartean. Noski, pintxo bakoitza egin duen tabernan.

Domekan, eguerdiko hamabietatik aurrera, herriko plazan egongo dira lehiaketan parte hartuko duten tabernetako ordezkariak beraien pintxoak eskaintzen, txistulariek lagunduta. Hala, 14:00etan, epaimahai-kideek pintxoak probatuko dituzte eta sari banaketa egingo da. Irabazleak 300 euro eta trofeo jasoko ditu.



Aurtengo lehiaketarako Akeita tabernakoek prestatutako pintxoak. ESKORIATZAKO UDALA

BOTATZEN DUTEN HERRITARREN ARTEAN, 50 EUROKO BI SARI BANATUKO DITUZTE

Herritarren botoen garrantzia

Hirugarren pintxo lehiaketako pintxo onena aukeratzeko, epaimahaiaren eta herritarren botoak hartuko dira kontuan. Herritarrek tabernetan egongo den eskuorria erabili beharko dute botatzeko. Probatutako pintxo bakoitzeko zigilu bat jarriko du tabernak eskuorrian, dagokion lekuan. Hiru zigiluak izandakoan –herritarren botoak balio izateko, gutxienez, hiru pintxo ezberdin dastatu beharko ditu–, pintxo onena aukeratzeko atala bete eta, hain zuzen, parte hartzen duten tabernetan egongo diren kaxetan utzi beharko da.

Botatzen dutenen artean 50 euroko bi sari zozketatuko dira, gainera: bat, parte hartu duten tabernetan gastatzeko izango dena; eta bestea, Eskoriatzako edozein dendatan gastatzeko izango dena.

Hiru pintxo ezberdin izango dira

Hirugarren edizio honetan parte hartuko duten hiru tabernekin pintxo hauek prestatuko dituzte lehiaketara begira.

Akeita taberna

• **'Neguari koxk'**
Osagaiak: txerri-ukondoa, foiea, sagarra eta patata-purea.

Urrestilla taberna

• **'Kokotxa-nel'**
Osagaiak: Kokotxak, tenpura-irina, perrexila eta berakatzatza, piperra eta tipula, ogia eta patata.

Mirentxu taberna

• **'Frantsesatxue'**
Osagaiak: Moldeko ogia, gazta, txistorra, behi-okela xerra, urdaiazpiko egosia, saltsa –irina, tomatea, garagardoa–.



Volar dokumentalaren momentu bat. EMAKUNDE

Indarkeria jasan duten bederatzik emakumeren testigantzak

Azaroaren 21an, eguaztenean, 'Volar' dokumentala izango da ikusgai Zaldibar antzokian, 18:00etan

I.B ESKORIATZA

Indarkeria Matxistaren Kontra Eguneko ekintzen barruan antolatuta, datorren eguaztenean, azaroaren 21ean, *Volar* dokumentalaren ikus-entzunezkoa proiektatuko dute Zaldibar antzokian. 18:00etan izango da, gazteleraz, eta, dokumentala ikusi ostean, Asocion de Mujeres al Cuadrado elkarteak kideek solasaldia eskainiko dute.

Bertha Gaztelumendik zuzendutako lana da eta indarkeria jasan duten bederatzik emakumeren testigantzak jasotzen ditu. Emakundek, Emakumearen

Euskal Erakundeak, sustatutako lana da, eta Donostiako 65. Zinemaldian aurkeztutako lana ere bada *Volar* dokumentala.

Indarkeriazko joerak aldatzea

Lan horren helburua da testigantzen bitartez indarkeriazko joerak aldatzea; zer dagoen horien atzean adieraztea, nola eragiten dien emakumeei, zein ondorio dituzten, eta zein ondorio izan ditzaketen helaraztea... Izan ere, gizartea ez da jabetzen tratatu txarrak jasan dituen pertsona bat nola sentitzen den, eta hori erakutsi nahi izan da.

Bandaren eta musika eskolako ikasleen kontzertuak izango dira

Azaroaren 22an ospatuko da Santa Zezilia eguna, eta, horren bueltan, bi emanaldi izango dira Eskoriatzan

I.B ESKORIATZA

Urteroko tradizioarekin jarraituz, Santa Zezilia eguna ospatuko dute Eskoriatzako musikariek. Hori horrela, datorren eguenean, azaroaren 22an, kontzertua eskainiko dute, beti bezala, Beheko Errota musika eskolako ikasleek. 17:30ean hasiko da emanaldia, Fernando Eskoriatza plazan, eta hainbat ikasle egunerako prestatuko dituzten kantuak egingo dituzte, musika eskolako irakasleen laguntzarekin. Ostean, txokolatjana izango da kultura etxeko

erretiratuen sukaldean. Hori horrela, norbanako bakoitzak bere edalontzia eramatea beharrezkoa izango dela adierazi dute antolatzaileek.

Musika eskolako ikasleek gain, musikarien patroia Santa Zeziliaren omenez Eskoriatzako bandak ere urtero eskaintzen du udazkeneko kontzertua, eta aurten, azaroaren 23an, egubakoitzean, izango da, 20:00etan, Zaldibar antzokian. Aurten, gainera, Jesus Urrutia bandako zuzendari berriaren gidaritzapean eskainiko dute kontzertua.

Zibereskubideen zeharkako lanketa

Eskoriatzako gaztelekuko nerabeek sare sozialen erabilera egokia egin dezaten, hainbat film labur ikusiko dituzte zapatuan, 17:30etik aurrera. Interneten dituzten jarrerak, eskubideak, sentsazioak, eta abar aztertuko dituzte, era informalean

Imanol Beloki ESKORIATZA

Azaroaren 20an, martitzenean, Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Eguna denez, asteburu honi begira, zibereskubideen gainean hainbat ekintza antolatu dituzte Eskoriatzako gaztelekuan.

2015ean Eusko jaurlaritzak egindako gida pedagogiko bat dago DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleei gomendatuta. Gida hori eta Aretxabaletako Udalak mar txan jarri berri duen *Like! Zibereskubideak!* egitasmoa aztertuta, lanketa xume bat egitea erabaki dute gaztelekuko hezitzaileek.

Film laburren proiektzioa

Nerabeei sare sozialen erabilerraren gainean pentsarazteko, hainbat film labur ikusiko dituzte zapatuan, 17:30ean hasita. Sare sozialen prebentzioa, adingabeen babesa sare sozial eta txatetan, Facebookera edo Instagramera edozer publikatu aurretik pentsaraztea, zibererasoak, pribatutasuna Interneten... Askotariko gaiak jorratzen dituzten zortzi film labur ikusiko dituzte.

Proiektzioen ostean, gaztelekuko erabiltzaileek bizi izandako adibideak, izan dituzten sentsazioak... izango dituzte hizpide, era informalean. Hauxe adiera-



Txanogorritxoren ipuina eta sare sozialak nahasten dituen film laburra. YOUTUBE

zi du Iratxe Arretsek, Eskoriatzako gaztelekuko hezitzaileak: "Era informalean, luntx baten bueltan ikus-entzunezkoak aztertu eta bertan ikusi ditugunak izango ditugu hizpide. Norbako bakoitzak, nahi izanez gero, berari gertatutakoak, sare sozialetan zerbait publikatu eta izan dituen iruzkinekin sortu zaizkion sentsazioen, eta abarren gainean hitz egingo dugu. Hain zuzen ere, aurrera begira, sare sozialen gainean kontzientzia hartzeko eta erabilera egokia egin dezaten".

Horrekin batera, adingabeek edo adinez nagusiek dituzten zibereskubideak zeintzuk diren aztertuko dute, eta betetzen dituzten edo ez ikusi.

Sareko hamar portaera egokiak

Hamar portaera izango dituzte hizpide: errespetua, askatasuna, nire bizi kalitatea hobetzen, identitatea, adingabeak babesten ditut, segurtasuna, legezkoa, erantzukizuna eta legez kontrako ekintzak. Hala, *Zibereskubideak* kanpainako bost eskubideak aztertuko dituzte.

Hildakoak gogoratuz

Atxorrotx Kultura Elkartek Memoria Egunaren bueltan ekitaldi hunkigarria antolatu zuen pasa den egubakoitzerako, kontzejupean. Eskoriatzako Benito Reola eta Aretxabaletako Felix Alberdi militante errepublikanoen familiak batu zituzten, eta elkarrekin borrokatu ziren bi lagun horien bizipenak ezagutzera eman zituzten.



XABI URZELAI

LEINTZ GATZAGA | 23



Hiru gatzagarak Teide mendiaren gainean. DORLETA ELKOROBARRUTIA

Itsasoaren mailatik hasita, Teidera, erronka lortzeko asmoz

Hiru gatzagar Tenerifen izan dira asteburuan; planak aldatu behar izan dituzte eta ederto ibili dira

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Tenerife uhartean dagoen Espainiako mendirik altuena da Teide, 3.718 metrorekin, eta, joan den asteburuan, Dorleta Elkorobarrutia, Nerea Maruri eta Ainhoa Lamariano gatzagarrek bertara joan ziren, itsasoaren mailatik gorainoko igoera egiteko.

"Sarri elkartzen gara hiru lagun mendi ibilaldiak egiteko. Gustuko dugu natura, kirola, mendia, eta ohiko tokietatik irteteko eta deskonektatzeko bidaia bat egiteko ohitura hartu dugu". Hori horrela, egubakoitzean, Playa del Socorroren hasi, eta egun baten

Altabista aterperaino heltzea jarri zuten erronka. Hurrengo egunean, 07:20 baino lehen Teide gainean egoteko eta eguneko lehenengo eguzki izpia irtetean tontorretik ikusteko.

Erronka ez, irtenbidea bai

Mufloien uxaldia egiten ari ziren Teideko parke naturalean, eta ezin izan zuten beraien erronka bete. "Planak egokitu, eta Pico Viejotik pasata beste 5-6 orduko zirkularra egin genuen helmugara heltzeko. Hiru emakume, hiru lagun, gailur bat, egunsenti zoragarria".



IMANOL SORIANO

Sanmilixanak ederto ospatuta

Joan den domekan egin zuten, Gatzagan, eskulangintza azokaren 26. aldia, eta jende ugari batu zen bertan; artisauek eramandako produktuak ikusi eta erosi zituzten. Horrez gain, gaztetxoentzako buztinezko eskulanak egiteko tailerra izan zen, eta 1968tik gaur egunera arteko herriko jaien karteekin erakusketa egin zuten, besteak beste.



Bergarako Musika Bandak atera duen azken argazki ofiziala, epaitegiaren aurrean. IÑIGO ZAITEGI

Bandaren diskoa elkartearen martxari

'Begarako ereserkia eta elkartearen martxak II' izeneko diskoa kaleratu du bandak eta domekako Santa Zeziliaren omenezko "kontzertu berezian" jarriko dira salgai lehen aldiz, bost eurotan; piezen artean, 'Pobres y alegres' ezaguna grabatu da lehenengoz

Jokin Bereziartua BERGARA

1832an sortu zenetik, Begarako herriaren DNAn egon da musika banda, bergararren artean oso estimatua dena oraindik ere. Estimatu horren adibide garbia da bandak hileroko eskaini ohi duen kontzertua frontoian egin behar izaten dutela gerturatzeko den jende kopuruagatik. Urtarrilean irekitako Seminariarixoa, esaterako, ez da nahikoa -254 eserleku- gutxi gorabehera hileroko 400 bat lagun elkartu ohi dituen emanaldi baterako.

Gaur egun, 66 kidek osatzen dute banda, eta, kaleratu berri duten diskoa aurkezteko eguaztenean egindako agerraldian adierazi zutenaz, batez besteko adina 30 urteren bueltan ibiliko da. Hain zuzen, *Begarako Ereserkia eta Elkartearen Martxak II* izeneko diskoa atera dutela da albiste orain. 750. urteurrenaren

bueltan Kultura Mahaian landu zen diskoa argitaratzearen proposamena, eta, apirilean zehar udaletxeko osoko bilkuren aretoan grabatu ostean, 500 ale atera dituzte. Elkartearen martxak, batzuk San Martin jaietako danborradan entzun daitezkeenak, dira protagonista diskoan.

Kontzertu berezia eta sorpresak

Diskoak lehenengoz domekan jarriko dituzte salgai, bost eurotan, Santa Zeziliaren omenezko frontoian (12:30) egingo den "kontzertu berezian". Ondoren, martitzenetik aurrera erosi

GAUR EGUN, 66 KIDEK OSATZEN DUTE BANDA ETA BATEZ BESTEKO ADINA 30 URTEREN BUELTAN DAGO

ahalko dira, liburutegian edota Udaleko Kultura Zerbitzuan. Kontzertuaren aurretik, 10:30ean hasita, kalejira egingo dute alde zaharrean, eta, bandako zuzendari Alfredo Gonzalez Chirlaqueren aurreratu duenez, sorpresak egongo dira kontzertuan.

Diskora bueltatuz, *Pobres y alegres* grabatu izana nabarmendu du zuzendariak: "Martxa hori ez da sekula grabatu eta bagenuen gogoia grabatzeko. Ezin da ahaztu Bitorianatxoren jaietsierarekin batera Pentekosteei hasiera ematen dien martxa dela, bergararren artean oso ezaguna".

Kontzertuko egitaraua disko martxez dago osatua eta, tarteka, bandako kide Igor Larrañagak elkartearen gaineko zenbait datu emango ditu. Izan ere, asmoa da elkarte bakoitzeko ordezkari bat igotzea agertokira bandarekin emanaldian

Domekan salgai, bost eurotan

1995ean martxan lehen diskoa kaleratu ostean, 2018an heldu da bigarrena. Disko berriak 13 pieza ditu, herriko elkarteak oinarri: Pentekosteei hasiera ematen dien Miguel Gonzalez Bastidaren *Pobres y alegres* martxa ezaguna; Txomin Mujikaren *Zuloa* (1995); Alfredo Gonzalez Chirlaqueren *Gorla* (1996), *Artatse* (1996), *San Migelpa* (1998), *Aizepe* (2001), *Sagarpe* (2002), *Lokatza* (2012), *Gaztetxeruntz* (2013); Jose Mari Gonzalez Bastidaren *Erraldoien Martxa* (2015); eta Alfredo Gonzalez Chirlaqueren *Aritzeta* (2017) eta *Begarako ereserkia* (1994). Azken pieza hori birritan ageri da diskoan, bertsio baten Aitzol Mujikak abesten dituelako Juan Martin Elexpuren hitzak. Hain justu, Aitzol Mujika bera izan da grabaketaren arduraduna, apirilean udaletxeko osoko bilkuren aretoan gauzatu zena. Diskoa domekako kontzertuan jarriko dute salgai lehen aldiz, bost eurotan.




Diskoaren azala. BERGARAKO UDALA

Bandako kide gazteen gonbidapena



ANDONI ETXEZARRETA
TRONPA-JOTZAILA

"22 urte ditut eta duela urte eta erdi hasi nintzen bandan jotzen. Lehen aldia izan da disko bat grabatzen aritu naizena eta esperientzia oso polita izan da. Hilabete eman genuen osoko bilkuren aretoan grabatzen; hainbat alditan errepikatu behar izan genuen, baina dena ondo irten da eta merezi izan du".



MAIALEN VERGUIZAS
FLAUTA-JOTZAILA

"17 urte ditut eta ia bi urte daroztat bandan jotzen. Domekako kontzertura etortzeko gonbidapena egin nahiko nieke helduei eta gazteei; bergarar gehienentzat martxa ezagunak dira, oso alaiak, eta kontzertu polita izango da. Martxak ondo entseatuta daude. Gainera, sorpresa batzuk egongo dira".

zehar. "Begararen elkarteak oso errotuta daude, eta horien jarduna jendearen aurrean erakusteko aukera bikaina da. Horri elkartearen martxa entzutea gehitzen badiogu... Une oso polita izan daiteke", adierazi du Larrañagak.

KONTZERTUAN, DISKO BERRIKO MARTXAK JOKO DITUZTE ETA, DIOTENEZ, SORPRESAK EGONGO DIRA

Lete: "Hau Bergaran gertatzen da"

Udalarenak izan dira diskorako produkzio lanak. Hala ere, Elena Lete alkateak dio produktu berrirako "meritu guztia" bandarena izan dela. "Eskualdean akaso ez da ulertuko bandak duen harrera; hau Bergaran gertatzen da. Seminarixoa askoz egokiagoa litzateke soinu aldetik, baina ez da nahikoa. 400 bat herritar elkartu daitezke erraz bandaren edozein kontzertutan; domekan, berezia izanda, uste dut 700 ikusletik gertu egon gaitzkeela", gaineratu du.



Joan den asteburuan, 100 bat lagun erakarri zituen Aranzadi Ikastolan ospatutako Wolfram Encounterrak. IMANOL SORIANO

Jardunaldiak, "inoizko arrakastatsuenak"

Zientzia eta berrikuntza jardunaldiak orain arteko arrakastatsuenak izan dira, Udalak dioenez, partaidetzari eta eskaintzari dagokionez, eta elkarlanerako bide berriak zabaldu dira aurten; 2019a taula periodikoaren urtea izango denez, hori izango da abiapuntua

Jokin Bereziartua BERGARA

Urriaren 15ean hasi eta azaroaren 12an bukatu ziren zientzia eta berrikuntza jardunaldiak "inoizko arrakastatsuenak" izan direla adierazi du Udalak, partaidetzari zein eskaintzari dagokionez. "Are eta bidelagun gehiago batu dira ekimenera, eta Debagoienetik kanpo ere

hizlari, parte-hartzaile eta entzule asko erakarri ditu. Hala, Euskal Herri mailan eta Estatuan zientzian eta berrikuntzan erreferente diren hainbat erakunde eta eragile alboan izan dira. Elkarlan horrek guztiak oso emaitza esanguratsuak eman ditu, eta bergararrek zein kanpotarrek ederto erantzun dute".

Encounterra, egonkortuta

Udalak nabarmendu duenez, aurtengo edizioan inoiz baino ekintza gehiago antolatu dira. Hamabi hitzaldi, lehiaketak, antzezlanak, azoka, erakusketa eta dagoeneko herrian erroto diren Elhuyarrek antolatutako *Wolfram Deuna* bakarriketa saioa eta, bestetik, Wolfram

Encounterra. Bereziki, *gamerak* elkartzen dituen topaketa hori egonkortu egin dela diote antolatzaileek: "100 lagun bueltan egon da aurtengo parte-hartzea. Ekintza gehiago pasa dituzte zapatutik domekara, eta datorren urtean ere asmo horri eutsi gura diote".

Hezkuntzaren aldeko apustua

Herriko ikasleengan jarri dute aurten ere fokua: "Hezkuntza eskaintzan apustu nabarmena egin da aurten, ekitaldiak biderkatuz eta datak aldatuta ikasleen parte-hartzea erraztuz. Eta emaitza arrakastatsua izan da". Ikasleekin egin den lanke-ta horren adibide da aurten *Emakume zientzialaririk ezagutzen?* izeneko lehiaketa antolatu dela lehen aldiz, emakumeen papera ere ezagutzera emateko, eta Lehen Hezkuntzako seigarren mailako 31 ikaslek parte hartu dutela; hamasei lan aurkeztu dira.

Beste hainbat ekintza ere antolatu dira; bereziki, ikasleei begira: nanoteknologia tailerra, tramankulu mekanikoen erakusketa eta pieza gonbidatua, besteak beste.

'Leku historiko' izendapena

Gainera, ezin da aipatu gabe utzi Bergarak ofizialki urriaren 20an jaso zuen izendapen berezia: *Historical site* edo *Leku historiko* izendapena. Elhuyar anaiek wolframa isolatzea lortu

izana abiapuntu hartuta jaso zuen Bergarak izendapen berezi hori: "Lorpen horretan bidelagun izan du Bergarak Donostia International Physics Center erreferentziazko gunea. Eta Bergarak erakusten du zientzia mimatzen eta hari merezitako balioa ematen jarraitzen duela", adierazi du Udalak.

Herritarren inplikazioa eskertu

Aldi berean, Udalak ez du ahaztu nahi izan jardunaldi hauetako beste osagai garrantzitsu bat azpimarratzea: "Aurten ere kanpotik etortzen diren diziplina anitzetako hizlariez gain, hainbat herritarrek jardunaldietarako propio hartzen duten lana azpimarratu beharra dago, euren jakinduria eta ezagutza herritarren artean zabaltzeko erakusten duten prestutasunagatik. Horie ere eskerrik beroenak eman gura dizkiegu".

Aurtengo jardunaldiak bukatu berri badira ere, Udala datorren urtekoei begira jarrita dago dagoeneko. Izan ere, 2019a taula periodikoaren urtea izango da mundu mailan eta ZTB jardunaldiek osagai garrantzitsu hori izango dute abiapuntu.

IKASLEEI BEGIRA, JARDUNALDIEN DATA AURRERATU DA ETA EKINTZA GEHIAGO ANTOLATU DIRA

GORA ETA BEHERA



Bidekurutzetan, seinaleei kasu egiteko eskaera

Bidekurutzeta kalean, Leturia harategiaren eta Cafe Bergararen artean bizi diren bizilagun batzuek "behin eta berriz" salatu dute "zirkulazio arazo handia" dutela. Ibilgailuek espalaira igotzeko ohitura dutela diote, eta, ezer gertatu aurretik, seinaleak errespetatzea eskatu dute.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



JOKIN BEREZIARTUA

EH Bilduko Agurne Barruso 'Harira' saioan, hilaren 20an

Goiena telebistak martitzenetan ematen duen *Harira* saioan, Debagoieneko alkate eta zinegotziak elkarrizketatzen dituzte, eta datorren astean, EH Bilduko bozeramaile Agurne Barruso izango da gonbidatua. Eneko Azkarate kazetariak egingo dio elkarrizketa eta askotariko gaiak jorratuko dira saioan zehar: Udal Gobernuaren kudeaketaren gaineko balorazioa, EH Bilduko alkategaia izendatzeko prozesua... Hala ere, herritarrek ere izango dute galderak egiteko aukera. Horretarako, bidali galdera, Whatsapp edota Telegram aplikazioen bidez, 688 69 00 07 zenbakira, edota, posta elektronikoz, berriak@goiena.eus helbidera.

OHARRAK

Gaztaina erre eguna

Domekan, San Juango ermitan elkartuko dira (18:30): gaztainak, patata-tortilla, txokolatea eta sagardoa dastatzeko aukera egongo da. Prezioa: bost euro.

Bedelkar txartela

Azaroaren 22ra arte, Bedelkar txartela erabilia, erosketa doan izateko aukera egongo da.

1980an jaiotakoak

Azaroaren 24an elkartuko dira, Bule tabarnan (13:00). Agirrebeña jatetxean bazkalduko dute (15:00) eta izena emateko 20 euroko aurrerapena ordaindu behar da hilaren 21a baino lehen: ES76 3035 0009 10 0090102187.

Dirua ostu dute kartzela zaharrean, "beste behin"

Domeka gauean, ate nagusia behartu eta "kalte material eta ekonomiko handiak" eragin zituzten lapurrek; kartzela zaharreko eragileek azpimarratu dute bertan jarraituko dutela lanean: "Ez digute lapurtuko sekula lanerako gogoia eta herria xaxatzeko indarra"

Jokin Bereziartua BERGARA

Lapurrak sartu dira kartzela zaharrean, "beste behin ere". Hain zuzen ere, domeka gauean sartu ziren, eta gaztetxean elkartzen diren askotariko kolektiboek ohar bateratu baten azaldu dutenez, "kalte ekonomiko eta material handiak" sortu zituen gertaerak. GOIENAK jakin duenez, dirua ostu zuten, baina barrura sartzeko orduan kalte nabarmenak eragin zituzten; bereziki, ateetan.

Herri osoari "eraso larria"

Kartzela zaharreko eragileek ez dute lapurreta gaztetxearen kontrako eraso moduan bakarrik hartzen: "Kolektibooi, kartzela zaharraren erabiltzaileei eta Bergarako herriari egindako eraso oso larri bezala ulertzen dugu", adierazi dute. Bergarako Gazte Asanbladako kide batek zehaztu duenez, ate nagusia behartu ostean sartu ziren lapurrak kartzela zaharrean, eta



Kartzela zaharraren ataria, artxiboko argazki batean. GOIENA

dirua eraman zuten: "Normalean egoten dena baino gehiago eraman dute. Ez dugu ohiturarik dirua gaztetxe barruan uzteko, baina, lapurreta izan zen unean, asteburuan irabazitakoa zegoen bertan". Hain justu, lapurrek

ostu zuten diru kopurua zenbatekoa izan zen ez dute zehaztu gura izan, *dei efekturik* ez eragiteko, eta adierazi dute halakorik berriro gertatu ez dadin hartu beharreko neurriak hartuko dituztela.

Hainbat kolektiboren elkargune

Herriko hainbat eragileren topaleku da kartzela zaharra. Azken urteetan, gainera, eragile eta talde berriak hasi dira gaztetxera hurbiltzen. Beste elkarte batzuei zabaldu izanaren adibide da mahai jokoen munduan aritzen diren lagunez osatutako Maijoku elkarte, esaterako. Hala, kartzela zaharreko mugimendu horren adierazle garbia da joan den domeka gaueko lapurreta gaitzesteko oharra sinatu zuen kolektiboen zerrenda. Honako hauek dira: Martxantera talde feminista, Txapa irratia, Bergarako Gazte Asanblada, Angiolillo liburutegia, Jau! Haur eta Guraso Asanblada, Dynamo zinekluba, Bergarako Elektronika Topaketa (BET), Kopla Barik bertso eskola, Maijoku elkarte, gitarra taldea, sukaldaritza begano taldea eta boxeo taldea.

Egoerari aurre egiteko ekintzak

Gaztetxea elkargune moduan duten eragileendako eraso kolpe gogorra izan bada ere, adierazi dute bertan lanean jarraitzeko borondate osoa dutela oraindik: "Ez digute lapurtuko sekula lanerako gogoia, ondo pasatzeko grina eta herria xaxatzeko indarra. Egoera honi aurre egiteko antolatuko diren ekintzei adi egoteko eskatzen dizuegu".

Egoera horri buelta emateko ekitaldien artean, asmoa dute Gabonetarako elkartasun jaialdi bat antolatzeko. Aurretik beste zerbait antolatu gurako lukete, baina oraindik ez dute ezer zehaztu.

2014ko azaroko lapurreta

Esandako moduan, domeka gauekoa ez zen gaztetxean izan den lapurreta bakarra izan.

Aurretik egon dira beste batzuk, eta horien artean nabarmen-tzekoa da 2014ko azaroan gertatu zena. Lapurrak kartzela zaharrean sartu ziren, eta, barruko txoko guztietan ibili ostean, musika ekipo bat, argazki kamerak, dirua eta beste hainbat gauza eraman zituzten. Orduan kalkulatu zuten, lapurretak 4.000 euro inguruko kaltea eragin zuten; besteak beste, eraso hura salatzeko prentsa agerraldi jendetsua egin zuten hainbat gaztek Irala kalean, *Zeinek apurtzen dittu etxeko sarraillak* lelopean.

2014KO AZAROKO LAPURRETAN 4.000 EURO INGURUKO KALTEA ERAGIN ZUTEN LAPURREK



EUSKARALDIA BATZORDEA

Pentsiodunak Euskaraldiarekin

Astelehen eguerdiko bezala, Bergarako erretiratu eta pentsiodun asko elkartu ziren San Martin plazan pentsiodunen alde. Euskaraldia batzordeak hitzordua aprobetxatu zuen azaroaren 23tik abenduaren 3ra izango den kanpaina zer den azaldu eta izena ematera

gonbidatzeko. Gogora ekarri dute izena eman ez dutenek aukera dutela oraindik; informazio gehiagorako, Barrenkaleko 10. zenbakiko lokaletik pasatzea gomendatu dute. Internetez ere badago izena emateko aukera: <https://izenematea.euskaraldia.eus>.



NIRE USTEZ

ASIER ELORZA

Idazle

Ikasle garaian, norbaitek esan bazidan GOIENA astekarian hau bezalako artikulu ridikulu eta barregarriak –zentzu txarrean– idatziko nituela, txorotzat joko nuen. Hizkuntzak erakusten ahalegindu ziren irakasleak deskojonatzen egongo dira –zentzu onean–. Ez zitzaidan idaztea gustatzen, baina tontakeriak beti izan ditut esateko. Nire lehen idatzia *Goienkaria*-ko gutunetara bidali nuen 2005eko apirilaren 22an. Zinema-zale amorratua nintzen eta Novedades aretoa itxi berri zuten, *Kabreauta nago* izenburuarekin, hau idatzi nuen: *Tristia iruditzen jat Bergara moduko herri bat zinema aretorik gabe egotia. Ez dakit zeintzuk diren arrazoiak eta ez ditut jakin nahi, ez baita nire lana; baina diru asuntua bada, pertsonalki nahiago dut, adibidez, herrian palmera eta lora gutxiago ikustea (edo Gabonetako argi gutxiago) zine barik geratzea baino. Dena den, esperantza daukat gai honen ardura dutenek, zerbait egingo dutela Bergara zinema aretorik gabe ez geratzeko.* Kurioso da ia 14 urteren ondoren, idatzia aktuala izatea; zinema barik jarraitzen dugu –harridura musuaren emotikonoa jarri nahi nuen amaieran, baina ez dakit nola egin...

"Madariagari aitortza txiki bat da liburu hau"

YON SUINAGA IDAZLEA

Bihar, zapatua, aurkeztuko dute Bergarakoaren barruak ase dituen 'Miguel Madariaga, ametsak errealitate bihurtuz' liburua, Derion

Jokin Etxebarria BERGARA

Txirrindularitza-zale amorratua da Yon Suinaga (Bergara, 1967), eta, aurrez beste liburu pare bat argitaratuak bazituen ere, aspalditik zeukan bere pasioari buruzko liburu bat idazteko nahia. *Miguel Madariaga, ametsak errealitate bihurtzen* liburuarekin, bere ametsa ere errealitate bihurtu du.

Zergatik Miguel Madariagari buruzko liburu bat, Yon?

Idaztea ikaragarri gustatzen zait eta berez nobela bat idatzita daukat jada, eta ziklismo-zale itsua naiz. Txirrindularitzari buruzko liburu bat egin ahal izatea beti izan dut amets, eta segituan etorri zitzaidan Euskadi Fundazioaren inguruan egon diren taldeei buruz zerbait egin behar nuen ideia; izan ere, gai honetan zulo bat zegoela iruditzen zitzaidan. Ideia horrekin gerturatu nintzen Miguelengana eta segituan konturatu nintzen Miguelek berak bazeu-



Yon Suinaga, Miguel Madariagari buruz idatzi duen liburuarekin. JOKIN ETXEBARRIA

kala liburu bat adina idazteko gauzak kontatzeko, eta zor zaion omenaldi txiki bat egitea erabaki nuen.

Izan ere, Miguel Madariaga gabe, oso zaila da gaur egungo euskal txirrindularitza ulertzea, ezta?

Horrela da. Gaur egun puntapuntan dauden euskal txirrindulari ia guztiak bere eskuetatik pasa dira. Mikel Landa, Izagirre anaiak, Pello Bilbao... guztiak ibili bere talderen batean. Gainera, 120 ziklistak baino gehia-

gok debutatu ahal izan dute profesionaletan Migueli esker. Seguruenik, fundaziorik gabe, erdiak ere ez zuen debutatuko. **Eta zer aurkituko du irakurleak liburu honetan?**

Proiektuarekin hasi nintzenean, ez nekien nondik nora bideratuko nuen guztia, baina, azkenean, Miguel Madariagaren historiaren eta bere taldeen historiaren batuketa irten dela esango nuke. Bertan irakurri ahal izango dira Miguelen gazetako urteak, itsasoan lanean ibili zenekoa, taldeetan edukitako esperientziak, gaur egungo bere bizitza... eta Euskadi Fundazioaren 25 urteetako historian ere asko sakondu nahi izan dut. Biografia bezala katalogatzea zaila egiten zait, bizitzako kon-tuetatik harago doalako. Etiketata bat jarri beharko banio, *aitortza txiki bat* jarriko nuke.

Eta guztia, testigantza pila batekin uztartua.

Egia da. Agian, formatua telebistarako aproposagoa zen. Izan ere, 60 testigantza baino gehiago agertzen dira, guztiak Migueli eta berarekin bizi izandako anekdotak kontatzen. Bertan aurki ditzakegu Eddy Merckx, Bernard Hinault, Miguel Indurain eta halako ziklista handiak, eta Miguelen masajista garaitik ziklismoarekin zerikusi handirik ez duten Genar Andrinua eta Herri Torrontegi bezalakoak. Testigantza bakoitzak historia bat gordetzen du.

Ziklismo-zale batentzat horrelako liburu bat egin ahal izateak gozamen hutsa izan behar du, ezta?

Ordu pila bat dira, eta, disfrutatzen ez baldin baduzu, ez du merezi horrelako esfortzurik egitea. Niretzako, plazera eta luxua izan da proiektu hau aurrera atera ahal izatea eta horrenbeste jende ezagun ezagutzea, eta beraiekin tarte polit bat pasa ahal izatea ikaragarria izan da. Miresten dudan jendearekin kafe bat hartu eta luze eta zabal Migueli buruz, ziklismoari buruz eta beste gauza askori buruz hitz egiteko aukera hau oso polita izan da.

Liburua zapatuan aurkeztuko duzue, Derion.

Gela Pedagogikoaren 20. urteurrenaren barruan egingo da eta Ilaski Serranok eta Pedro Delgado aurkeztuko dute. Liburuan parte hartu duen jendea egongo da bertan. Javier Guillen, Espainiako Itzuliko zuzendaria, espresuki etorriko da Madrildik eta Roberto Laiseka, Xabier Eloorriaga eta beste asko ere han egongo dira. Gainera, aurkezpenaren ondoren, Igor Antoni omenaldia egingo zaio, eta espero dugu ekitaldi polita izatea.

"EDDY MERCKX, INDURAIN ETA HALAKO ZIKLISTA HANDIEN TESTIGANTZAK AGERTZEN DIRA"

Carlos de Cos irabazle

Gaur, ostirala, 20:00etatik aurrera, banatuko dituzte, Aroztegi aretoan, aurtengo Kirol Argazki Lehiaketako sariak. Bai zuri-beltzeko kategorian—ondoko argazkian— eta baita koloretakoan ere Carlos de Cos soraluzetarra izan da aurtengo irabazlea. Behin sariak banatu eta gero, eta abenduaren 2a bitartean, 40 argazkiz osatutako erakusketa egongo da ikusgai.



CARLOS DE COS

Gipuzkoako Txapelketako hiru partidu Udal Pilotalekuan

Gaur, egubakoitza, hilaren 16a, infantilek, gazte mailakoek eta nagusiek jokatu dute bertan

J.E. BERGARA

Gipuzkoako Txapelketako hiru partidu ikusteko aukera egongo da gaur, egubakoitza, 19:30etik aurrera, Udal Pilotalekuan. Nagusien mailan, lehen jardunaldia izango da banaka jokatzen dena. Hasiara batean, Beñat Iñarra da titularra, eta, hasteko, Oñatiko Aloña Mendiko Baseta izango du aurkari.

Partida horren aurretik, bigarren mailako gazteek jokatu dute. Oraingo, zazpigarren daude sailkapenean, jokatutako bost partiduetatik bi irabazita.

Aurkaria, baina, ez da nolana hiko izango, Tolosako bikoteak orain arte jokatutako dena irabazi baitu.

Lehenengo partidua bigarren urteko infantil mailako izango da. Lehen faseko azken jardunaldian, Josu Lazpiurrek Goierriko pilotari bati egingo dio aurre. Punta-puntako partidua espero da, biak goian baitaude sailkapenean, garaipen kopuru berarekin.

Zapatuan, bestalde, 16:30ean hasita, eskolartekoek jokatu dute.



Brigade Loco, promoziorako argazki baten: Oier Aperribai, Mañex Egaña, Lander Aznal, Mikel Soto eta Alex Arteaga. NEKANE MUÑOZ

Punk-rockaren lekukoari gogotsu heldu dion taldea

Brigade Loco talde bergararra, Tafallako Rotten XIII, Beasaingo Azken Sustraiak eta Bergarako DJ Aifil igoko dira bihar kartzela zaharreko agertokira, 19:00etan hasiko den jaialdian; gaztetxea goraino beteko da, sarrera guztiak ordu gutxitan agortu ziren eta

Jokin Bereziartua BERGARA

Ekintzek dute hitza izenburu duen disko berria etxean aurkeztuko du Brigade Loco talde bergararrak, kartzela zaharrean (19:00). Punk, rock eta oi! doinuak nagusi izango dituen jaialdi handi bat izango da, Rotten XIII eta Azken Sustraiak taldeekin eta DJ Aifilekin batera partekatuko du-eta boskoteak gaztetxe-ko agertokia.

Zapatuko kontzertu bereziaren prestaketen lekuko izateko, entseatzeko duten goiko estazioko lokaletan egin du hitzordua GOIENAK Brigade Locorekin. Diskoak oso harrera ona izan duela diote. "Asko saldu da, espero genuena baino gehiago. Esfortzu, denbora eta ilusio asko inbertitu dugu diskoan, baina ez genuen halako harrerarik espero. Une gozoa bizi dugu orain bertan", dio Manex Egaña batera-jotzaileak. "Diskoa asko saltzeaz gain, zorion-mezu asko jaso ditugu. Ederra da hori, gozatzen ari gara. Hori bai, hankak lurrean

izan behar ditugu eta lanean jarraitu", gaineratu du Alex Arteaga gitarra-jotzaileak.

Rotten XIII taldekoekin, "familian"

Duela urtebete eskas sortu zuten taldea, eta, uztailean estudioan sartu ostean, orain gutxi kaleratu dute *Ekintzek dute hitza*. "Orain arte jotzen aritu garen abestiak ditu diskoak, eta askotariko gaiak lantzen ditugu: aldarrikapen politikoak, gai sozialak... Amaieran, sorpresaren bat ere badago", arreratu du Egañak.

Disko bat kaleratzeak ematen duen poztasunarekin batera, "politena" bidean egiten ari diren lagunak direla dio Arteagak: "Lagun berriak egin, lagun

'EKINTZEK DUTE HITZA' DISKOAK IZAN DUEN HARRERA EZ ZUTEN ESPERO: "UNE GOZOA ARI GARA BIZI IZATEN"

zaharrekin elkartu... Kontzertuekin topera ari gara disfrutatzen". Bestalde, Mikel Soto beste gitarra-jotzaileak azpimarratu du bertako jarraitzaileekin batera Tafalla inguruan lagun talde eder bat dutela: "Rotten XIII-koekin eta euren lagunekin harreman estua dugu eta ederra izango da gaztetxe-ko agertokia eurekin partekatzea. Pozik gaude Nafarroan ere jarraitzaileak ditugulako".

Sarrerak, ordu gutxian agortuta

Brigade Locok badaki zer den kartzela zaharrean jotzea *Aurrea doa* abestiaren bideoklipa bertan grabatu zuten, besteak beste-, baina zapatuko "oso berezia" izango da: "Gure lan handienarekin gatzatzea goraino beteko dela, sarrera guztiak agortu ziren eta", zehaztu du Egañak. Izan ere, domeka baten jarri zituzten salgai sarrerak eta astelehen arratsalderako guztiak agortu ziren.



Aitor Borobia bergararra –ezkerrean– da obraren egilea eta aktore nagusia. A.B.

Aitor Borobiak Seminarixoa taularatuko du 'Punkowsky'

Lehenengoz ikusiko ahalko da aktore bergararraren lan hori Bergaran; gaur, Seminarixoa –22:00etan, zortzi euro–

J.B. BERGARA

Aitor Borobia bergararrak lehen aldiz taularatuko du bere herrian *Punkowsky* antzezlan; gaur izango da, Seminarixoa, 22:00etan hasita –sarrera zortzi euro da-. Borobia bera da antzezlari horren egilea, ekoizlea eta aktore nagusia. Behin papelean idatzita, bere historia agertokietara eramatea erabaki zuen eta beste lau aktore batu ziren proiektuan. Hortaz, autobiografikotik izateaz gain, punketik badu obra horrek, Bukowskytik, eta baita hausnarketatik eta lotsagabekeriatik ere. Barrubarrutik egindako obra da.

Aktore ibilbidea Bergaratik kanpo egin du Borobia; hain justu, Bergaran bertan "esentzia puruenean" ikusteko aukera eskasetako bat izango da gaurkoa. "*Punkowsky*-n, garaipenetik porrota egin nahi izan dugu, zintzotasunetik gezi bat, gure

talentutik arku bat, testutik tentsioa, punketik pozoia eta zuengandik jomuga", dio obraren sinopsiak. Gaztelaraz izango da.

Tenpora boskotea zapatuan

Bihar, sorlekua Tolosan duen Tenpora taldeak *Itzulika* diskoa aurkeztuko du Seminarixoa (19:00). Kantuak pop eta jazz artean sortu, eta elektronika eta rock progresibo eremuetan nahastu dituzte. Diskoa Beasaingo Pottoko estudioan grabatu dute, Fredi Pelaez musikari eta soinu teknikariarekin, eta Hasier Oleaga (bateria), Itsaso Etxebeste (baxua), Beñat Barandiaran (gitarra), Juantxo Zeberio (teklatuak) eta Elene Arandia (ahotsa) osatutako boskoteak Karlos Linazasoro eta Harkaitz Cano idazleen elkarlana izan du berriz ere kantuen hitzetan. Bost musikariak dira eskarmentu handikoak.

Musika kalera aterako du eskolak Santa Zezilia ospatzeko

Mizpirualdan gaur bukatuko den Kultura Astearen parte hartu ostean, azaroaren 22an Santa Zezilia ospatuko du musika eskolak. Ikasleek, irakasleek eta gurasoek hartuko dute parte musikarien zaindariaren omenezko ospakizunetan: gazte banda eta ikasleak kalejiran joango dira eskolatik plazaraino (17:30); ordu berean, trikitilariak kaleak animatuko

dituzte, plazatik irtenda; eta, ondoren, San Martin plazan elkartuko dira "ekitaldi txiki bat" egiteko: "Herri guztia gonbidatu gura dugu *Euskal Herrian euskaraz* abestera". Amaieran, txokolata banatuko dute. Bestalde, abenduaren 15ean *Agian Bai* izeneko *flashmob*-a grabatuko dute (Iralan, 13:00) eta 500 lagun elkartu gura dituzte; izena emateko azken eguna azaroaren 26a da eta entsegu bakarra abenduaren 3an egingo dute, eskolan: bergarakoflashmoba@gmail.com.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.

943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosari J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprelides 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Arexabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Arexabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Arexabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Clarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka, 13, behea

943 76 11 38 / 639 23 57 53.



Basili Ormazabal, Goiena telebistako platoon. JAGOBA DOMINGO

"Gauzak motel doaz Udalean"

Agintaldia bukatzeaz dagoen honetan, Basili Ormazabal bozeramaile jeltzaleak balorazioa egin du Goiena telebistako 'Harira' saioan. EAJren hautagaia aukeratzeko prozesua abian dutela azaldu du eta hautagai onak egon badaudela dio

Maidar Arregi ANTZUOLA

Datorren maiatzean izango diren udal hauteskundeetarako hautagaia aukeratzeko prozesua hasi du EAJK. "Antzuolan badaude hautagai posible onak. Kontak-tuak egiten bagabiltza; oraindik goiz da eta astia badago, ordea. Eta lanean jarraituko dugu antzularrekin zerrenda ona eta parekidea osatzeko. Hautagairik ez bada aurkezten, ni neu aurkeztuko naiz berriro. Izan ere, alderdiaren ardura errazen eramatzen dudana naiz. 1991n lehenengo sartu nintzen zerrendan. Aurkezten denari, gainera, lagundu egingo diogu; izan ere, herrigintzan aritzeko jende oso ona dago eta", argitu du.

Garbiketa ordenantza

Ormazabalek garbiketa ordenantza baten beharra ikusten du. "Antzuola dotore dago, ha-

rritu egiten dira datozenak; baina zikinkeria ugari ere ikusten dute. Ez dugu zaintzen. Atez atekoak ere ez du laguntzen. Egun, 40 gune daude. Edukion-tziak jarriko balira, gune gutxiago izango genituzke, 15 bat edo. Atez ateko sistema oso ondo hasi zen, baina, egun, erosotasunean erortzen da jende asko eta ez da ondo egiten". Bestetik, salatzen du kalean itsasten diren kartelak ez direla epea pasa ostean kentzen. "Garbiketa ordenantza baten beharra dago Antzuolan", azpimarratu du bozeramaile jeltzaleak.

"GARBITASUN ORDENANTZA BATEN BEHARRA DAGO, EPEZ KANPOKO KARTELAK KENTZEKO, ADIBIDEZ"

Kudeaketa motela

Ormazabalek dio Antzuolako Udaleko kudeaketa oso motela dela: "Antzuolako azken inbertsioaren berri, komun publikoena, 2016ko uztailean izan nuen, prentsaren bitartez. 2017ko aurrekontuetan jaso zen inbertsio hori egitea. Eta martxan orain gutxi jarri dira". Komunak jartzearen ideia EAJrena izan zela aitortu du: "Udal langileek, igogailuaren obra egitearekin batera, komun publikoaren beharra zegoela aitortu ziguten. Izan ere, udaletxeko komunak langileendako dira. Eta horrelaxe, bada, Hirigintza batzordean egin nuen komenen eskaera aspaldi".

Oso bilera gutxi egiten direla ere badio Ormazabalek: "Hirigintzan bilera bakarra egiten dugu, hiru hilean behin; hori ez da normala. Gobernu presidentzialista da eta aukera gutxi

izan ditugu gure proposamenak egiteko. Azpimarratu gura dut ez nagoela gobernu presidentzialisten aurka. Baina gaia dominatzen duten presidentzialistak gura ditut, eta ez besteen menpe dagoena. Gauza asko atzeratzen dira-eta modu horretan. Antzuolan hori gertatu da".

Zenbait gairen berri prentsaren bitartez izaten duela aitortu du jeltzaleak.

Gobernu batzordeetan ere ez dutela parte hartzen argitu du: "Gu hiru gara eta euren ahotsa gehiago da. Euren iritziak nagusitzen dira. Guri, oposizioa egitea tokatzen zaigu. Ondo dagoena txalotu eta gaizki dagoena kritikatu".

Gardentasunik eza

Basili Ormazabalek gardentasun eza leporatzen dio Udal Gobernuari. "EH Bilduk behin eta berriro dio alderdi gardena dela. Baina, gero, ez da ikusten ekin-tzetan. Orain, gainera, plan estrategikotik irten diren emaitzak kontuan hartu beharko ditugu kudeaketa eta inbertsioak egiteko garaian. Gainera, plan estrategikoaren beharra guregandik irten zela gogorarazi behar da eta *Antzuola eitten* prozesuko ondorio asko jada guk geure planean jasoak genituela aurretik".

Hiru agintaldi oposizioan

Badira hamabi urte Euzko Alderdi Jeltzalea Udal Gobernutik kanpo dagoena. Baina EAJK galdutzat dauka Antzuolako alkatetza? "Inondik inora ere ez. Antzuolan badago jende oso ona. Nahikoa da pertsona egoki bat eta talde indartsu bat aurkeztea hauteskundeetara, hauek irabazteko eta alkatetza eskuratzeko. Horretan ari gara gogor lanean, gainera".

Uholdeen ondorioak

Ormazabalek adierazi du ekainaren 3an gertatutako uholdeen harira egindako kudeaketa eta momentuko antzularren erantzuna txalotzekoa izan zela. "Uholdeek gogor eragin zuten azpiegituretan. Alkatea asko

"TORRESOROAKO PROIEKTUA AURRERA ERAMAN GENUEN, ETA EGUN, ESKERRAK EMATEN DIZKIGUTE"

inplikatu zen eta herritarrek ondo kudeatu zuten egoera. Alkateak, baina, beroaldi batean, errua obrari bota zion. Ez diot arrazoirik kenduko. Baina ez zitzaidan gustatu behin hiru hilabete pasa ostean berriro kontu berarekin GOIENAn azaltzea. Uholdeak gertatu ziren eta 500.000 euroko kaltea kontsoltzioak ordainduko du. Egin behar duguna da ondo geratu Diputazioarekin eta saiatu ahalik eta etekin gehien ateratzen".

EAJren bozeramaileak gogorarazi du ondorio larriagoak izan zituztela orain dela 30 urte gertatu ziren uholdeek: "Kalte handiagoak eragin zituzten orduan uholdeek eta pertsonen bizia arriskuan jarri zen. Zer-gatik? Bada, orduan, erreka estalita zegoen eta gainezka egin zuen urak. Hamabost urteren ostean, horri irtenbidea eman zitzaion, eta, besteak beste, erreka bistaratu egin zen, Herriko Plazan. Berriro etorri dira ur handiak, eta bortitzagoak, gainera. Zorionez, ez da ezer gertatu obra hori eginda zegoelako. Aukera izan zuten obra hori inauguratzeko, eta orain, obra hori balioan jartzeko ere ez da ezer egin. Jendeak garai hartan oso minduta bukatu zuen".

Liburutegia eta gimnasioa

Gimnasioaren beharra dagoela azpimarratu du. Hutsik jarraitzen du, eta orain, gainera, liburutegia jarri behar izan dela dio. "Torresoroako liburutegira jende gehiago joaten zela ikusi da. Behera jaistea asko kostatzen zaio jendeari, eta ea lehenbaila lehen Torresoroara bueltatzen den". Gimnasioaren beharra ere badagoela dio: "Jendea hasi da Bergara edo Urretxura joaten, eta gero, bueltatzea kosta egiten da, zerbitzu hobea dutelako. Orain, erreklamazioa jarri dute Antzuolako eta Elgetako udalek, gehiago kobratzen dietelako Agorrosin erabiltzeagatik. Niri, ondo iruditzen zait, baina Bergaran EH Bildu egon den urteetan ez dute ezer egin".

Torresoroak, 10 urte

"Bere garaian, 700 sinadura aurka izan zituen proiektuak. Guk erretiratuen babesia izan genuen eta aurrera egin genuen. Denborak arrazoa eman digu, eta egun, eskerrak ere ematen dizkigute", azpimarratu du Ormazabal bozeramaileak.

EUSKARALDIA

Euskaraldiari babesan eman dion herritarra *ahobizi txapa* jantzita. MAIDER ARREGI

300 atxikimendutik gora jaso ditu Euskaraldiak

Izena eman eta Euskaraldian parte hartu gura duten herritarrek azken aukera izango dute azaroaren 22an. Pitxo-potearen giroa aprobetxatuz, erdigunean jarriko dute postua. Hamaika egunetan zehar eta jai giroan egingo den egitaraua ere prest dago

Maidar Arregi ANTZUOLA

Aurreikuspen guztiak gaintitu ditu Euskaraldiak Antzuolan. "Uste baino jende gehiagok eman du izena eta oraindik astebete falta da. Oso balorazio positiboa egiten dugu. Oraingoz, 300 herritarrek baino gehiagok eman dute izena eta dagoeneko rolean sartuta ere badaude asko", argitu du Euskara zinegotzi Jon

Ugarteburuk. Izena emateko aukera badago oraindik, eta azaroaren 22an, egun iluntzean, postua jarriko dute erdigunean.

Egitarau polita

Azaroaren 23an, hasiera ekitaldia egingo da Zurrategin, 19:30ean. Pintxoekin lagunduta sorpresaren bat edo beste izan-ego dela aurreratu du Ugartebe-

ruk. Hilaren 29an, berriz, bertso-poteoa egingo da Oihana Iguaran eta Aitor Sarriegirekin, 19:30ean, Beheko auzotik abiatuta. Abenduaren 1ean, Antzuolako hitanoa aztertu duen Onintza Legorburuk hitzaldia eskainiko du Olanen, 11:30ean.

Abenduaren 3an, berriz, Herri Eskolako ikasleek *flashmob*-a egingo dute Zurrategin, 16:30ean.

Txistulariak, Euskaraldiarekin bat

Antzuolako txistulari taldeak ere Euskaraldiarekin bat egin du eta hamaika egunez rol bat izango dute. Horren erakusle, plazan atera duten talde argazkia.

Euskaraz, egunero

Hamaika egun horietan hartutako rola eutsi eta ikasitako ohitura horiekin jarraitzeko eskaera egin dute Euskaraldiko Batzordeko kideek.



Antzuolako txistulariak Herriko Plazan. TXISTULARI TALDEA



OLALDE TALDEA

Galeano eta Balerdi, bikain

Antzuolako pilotari gazteak sasoiko daude. Leire Galeano eta Manex Balerdi, nor bere kategorian, maila oso ona erakusten ari dira. Galeanok lehenengoz lau t'erdiko Emakumeen Master Cup-ean parte hartu du eta final-laurdenetaraino iritsi da. Balerdi, aldiz, Gipuzkoako Binakako lehen mailako txapela jantzi du Aitor Atxotegi soraluzetarrarekin batera.



ARROLA

Irikorta iturrian plaka jarri dute

Arrola Mendizale Elkarteak antolatuta, 15 lagunek parte hartu dute mendi irteeran. "Irikortako iturriari berriro jarri diogu plakatxo eta ondoren Lizargaraten hamarretako ona egin dugu". Izan ere, Irikortako iturriak 30 urteko historia dauka, eta, irteera honetan, "paisaia ederraz" gozatzear gain, iturriaren historia ere bertatik bertara ezagutu dute.

OHARRAK

Gaztaina erre jana

Udalak antolatuta, etzi, domeka, gaztaina erre jana egingo da Herriko Plazan, 19:00etan hasita. 100 kilo gaztaina erreko dituzte danbolinarekin, modu tradizionala erabilita. Euskal jaki honen gainean tertuliatxoa ere egingo dute.

Txistularien diana

Domekan, azaroaren 18an, herriko txistularien diana izango da, goizeko hamarretan hasita.

Santa Zezilia

Azaroaren 22an, eguna, Santa Zezilia ospatuko da. Kalejira izango da Antzuolako txistulariekin batera, 18:30ean.

EUSKARALDIA

Euskaraldiko txapak jaso daitezke liburutegian

Astebete barru emango zaio hasiera Euskaraldiari eta handitzen doa Elgetako 'ahobizi' zein 'belarriprest' kopurua. Garrantzitsua da zein konpromiso hartzen den ondo ulertzea. Horiek azpimarratzeko ahalegin berezia egingo du egunotan batzordeak

Goiena komunitatea

Euskaraldia batzordea / ELGETA

"Badator Euskaraldia eta Udal Liburutegi zerbitzuaren bitartez egingo dugu txapen banaketa. Lerrook idazterakoan, Elgetako 262 lagun daude izena emanda; 220 *ahobizi* eta 42 *belarriprest*. Domekan ekin genion txapen banaketari, eta 120 daude jasota. Batzordetik jakinarazten dugu Euskaraldirako izena eman duten gainerako euskaltzaleek liburutegian jaso behar dituztela txapak. Zerbitzuaren ordutegia da astelehenetik eguenera bitartean 16:30etik 20:00etara, eta barikuetan eta jai bezperetan 14:30etik 17:30era.



Ahobizi zein belarriprest txapak, banatzeko prest, Elgetako liburutegian. L.Z.

Ekitaldi berezia hilaren 23an

Euskaraldiari hasiera ofiziala emateko ekitaldi berezia prestatzen ari gara hurrengo barikurako. 18:00ak aldera elkartuko gara plazan eta Euskaraldia-ekin lotutako kantuak, bideoak eta argazkiak izango ditugu ikusgai giroa prestatzeko. Izen-emateak, txapa banaketa eta material salmenta ere izango dugu. 19:00etan emango diogu hasiera ekitaldi nagusiarri. Etxa-fuegoak botako ditugu, txapa jartze kolektiboa egingo dugu

EUSKARALDIARI HASIERA EMATEKO EKITALDI BEREZIA EGINGO DUGU AZAROAREN 23AN

eta talde argazkia aterako dugu. Elgetako *ahobizi* eta *belarriprest* guztiak daude parte hartzeragorbidatuta. Mokadu txiki bat ere prestatuko dugu elgetarrok

Euskaraldian ematen ditugun lehenengo pausoak elkarrekin emateko.

Euskaraldia zertarako

Garrantzitsua da Euskaraldian izena ematea, baina ariketa ongi ateratzeko ondo ulertu behar da *ahobizi* edo *belarriprest* izateak zein konpromiso eskatzen dituen. Horiek azaltzeko ahalegin berezia egiten jarraituko dugu Elgetako Euskaraldia batzordetik. Zalantzak, dena den, helarazi".

'Besarkada solidarioa' amarruaren beste biktima bat izan da Elgetan

Emakume bat gerturatu zitzaion lan eske, eta besarkada bat eman zion, ustekabean: "Ziurrenik, katea kentzeko"

L.Z. ELGETA

Gauean, urrezko katea kentzeko unean konturatu zen falta zuela. Orduan konturatu zen lapurretan egin ziotela. "Autoan Bergararik Elgetara nentorrela, atzetik zetorren beste ibilgailu batek argiak bota zizkidan behin baino gehiagotan. Zerbait gerta zitekeela pentsatuta, gelditu egin nintzen Ubera inguruan eta emakume bat gerturatu zitzaidan", azaltzen du 74 urteko elgetarrak. "Lan bila zebilela, premia handia zuela esan zidan. Ea banuen lanik. Ezetz esan

nion, galdetzeko beste nonbait, eta, oso jatorra nintzela esanez, besarkada bat eman zidan. Oso arraroa egin zitzaidan kontua eta berehala aldendu nuen, baina ordurako hartua izango zuen nire katea", dio gizona. Salaketa ipinita dago.

Uztailaren 2an, oso antzerako beste kasu bat izan zen Elgetan; izan ere, amarru berarekin bi kate lapurtu zizkioten adineko emakumezko bati. Horrelakoak saihesteko Ertzaintzaren aholkua da "mesfidati jokatzeko eta distantziak mantentzeko".

GORA ETA BEHERA



NORA UGARTEBURU

'Bizilagunak' bazkaria lehen aldiz Elgetan

Elgeta, Bergara, Kolonbia eta Hondurasko ordezkariak elkartu ziren domekan, kulturartekotasuna bultzatzeko bazkarian. Txikiteoa, bazkaria eta gauera arteko bazkalondoa egin zituzten.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Izen-emate asko azken txanpan

Aurreikusi moduan, Elgetan ere bizkortu egin da izen-ematea Euskaraldiaren hasiera eguna gerturatu ahala. Gogoratu Internet bidez erraz egin daitekeela *Izenematea.euskaraldia.eus* atarian. Udaletxean, liburutegian eta Euskaraldia batzordearen mahaian ere eman daiteke izena. Domekan Ozkarbipean izango gara berriz ere.



Euskaraldia batzordeak domekan Ozkarbipean ipinitako mahaia. L.Z.

Landa garapenerako proposamenak aurkezteko deia

Herritarren proposamenak jaso gura ditu Udalak eta abenduaren 3ra arteko epea zabaldu dute. "Debagoieneko Landa Garapenerako elkarrekin Landaola federazioaren bitartez 2019rako proiektuak aurkezteko epea irekitzen duenean, elgetarren proposamenak sartuko ditugu bertan", jakinarazi du Sebastian Arantzabal zinegotziak.

'Elgeta lehen eta orain' liburua hilaren 28an aurkeztuko dute

Manolo Cainzosen *Elgeta lehen eta orain* liburua kalean da. Udaletzeko areto nagusian aurkeztuko du hilaren 28an, 19.00etan. Elgetaren kokalekua, egitura, historia eta ondarea jasotzen ditu, besteak beste, 292 orriko argitalpenak. Ahozko testigantzak, udal artxiboko dokumentuak eta aurretik idatzitako argitalpenak ditu iturri.



Bittor Gallastegi txapela buruan eta inguruan Haizea tabernako lantaldea. L.Z.

Bezeroek emango dute botoa domeka honetan

Haizea tabernako 'Haize goxua' pintxoak jaso zuen Elgetako XI. pintxo lehiaketako epaimahaiak emandako saria, domekan. Egunean bertan jaso zuten txapela. Etzi, bigarren pintxo domeka izango da. Bezeroek saria jaso dezakete botoa emateagatik

Larraitx Zeberio ELGETA

Estu egon da aurten pintxo lehiaketa; izan ere, pintxo landuak aurkeztu dituzte Maialde lande-txeak, Rincon de Lola jatetxeak, Bolatoki tabernak eta Haizea tabernak. Xalbadorpe erretiratuaren elkarteko Pedro Mari Ubera, Maala guraso elkarteko Enara Merino eta Elgetako emakume taldeko Ainhoa Zeziaga ibili ziren epaimahai lanetan, eta emandako puntuazioen baturak berdinketa ekarri zuen. Horrelakoetan, zapoaren atalean puntuazio onena lortu duen pintxoaren alde egiten da, eta Haizea tabernako *Haize goxua* pintxoak izan da irabazlea. "Ez genuen saria espero, eta beti da pozgarria. Saiatzen gara lehiaketarako zerbait txukuna egiten, eta etxeko guztien artean joan gara *Haize goxua* pintxoak sortzen. Gustukoa izan bada, gu pozik", esan zuen Haizea tabernako Bittor Gallastegi txapela jantzi eta gutxira. Haizea tabernak jaso zuen saria 2014an ere.

Bezeroak boto emaile, etzi

Domekan pintxo lehiaketaren bigarren eta azken eguna izango da. Aurrekoetan moduan, bezeroen iritzia jasotzeko eguna izango da eta Publikoaren Saria jasoko du boto gehien jasotzen dituen pintxoak.

Botoa emateko, hainbat bide daude: gustuko pintxoarekin *selfie* bat atera eta 634 43 84 58

zenbakira bidaltzea edo Hirix plataforma digitaleko galdetgia betetzea. 30 euroko bi txartel banatuko ditu Udalak parte-hartzaileen artean.

Osagaiak asmatu lehiaketa ere martxan izango da lau taberna parte-hartzaileetan. Domeka girotzeko, berriz, Burrunbazale txaranga izango da herrian, 12:30etik aurrera.

Argazki lehiaketa, 12:00etan

Argazki lehiaketa ere izango da aurten Elgetako pintxo lehiaketaren bueltan. Interesatuek 11:45etik 12:00etara bitartean eman beharko dute izena, plazan kokatuko den mahai batean. Aurrekoetan moduan, unean proposatutako lau gairen inguruko argazki digitalak atera beharko dituzte parte-hartzaileek, eta 16:00ak aurretik bidali beharko dituzte danonartian@elgeta.eus helbidera. Lau argazki bidali behar dira, bana gai bakoitzeko.

Antolatzaileek jakinarazi dute kamerak eskaintzen dituen aukerak soilik erabili ahalko direla, ez besterik. Eta irabazleak argazki kamera digital bat jasoko duela operari. Lehiaketa adin guztietako herritarrei dago zabalik, eta Udalak aukera izango du aurkeztutako argazkiak etorkizunean erabiltzeko.



INTXORTAKO LEHOKIAK

Gamarra, lagunarteko presidente

Elgetako athleticzaleen lagunarteko presidente berria du; izan ere, hilaren 10ean egindako urteko batzarrean, Javier Gamarra izendatu zuten Felix Irizarri erreleboa hartzeko. Aurrera begirakoei dagokienez, Elgetako lagunarteko itereak antolatuko ditu Valladolidera eta Athletic museora, eta senidetzea iragarri dute Palentziako Guardo lagunartekarekin.

Udal Liburutegian martxan dute marrazki lehiaketa

Seigarren aldiz deitu dute lehiaketa, eta gaia aurten da *Ipuinen ordua*. "Kontzeptu edo ideia hori abiapuntu hartuta eta irudimena bidelagun, seguru aurten ere artelan zoragarriak jasoko ditugula", esan du Geaxi Ezpeletak. Lanak hilaren 30erako aurkeztu behar dira. Liburutegitik kanpoko epaimahai batek aukeratu ditu irabazleak.

Urrian egindako lehiaketei eta zozketei dagokienez, udal liburutegian jakinarazi du literatura ginkanako saria Janitz Isasik, Arkaitz Errastik, Itsaso Askasibarrek eta Unai Frailek osatutako taldeak eraman zuela. Aukeratutako liburu dendan erabiltzeko 60 euroko erosketabonua jaso dute. Eta Liburutegiaren Eguna ospatzeko erabiltzaileen artean egindako zozketaren ondorioz, liburu bana jaso dute Patxi Basaurik eta Urtzi Sarasuak.

PILOTA TXAPELKETA

AZKEN EMAITZAK

Alberto Telleria-Anjel Ibarluzea / Iban Retolaza-Jose Mari Zubiaurre **08-18**
 Josu Mañarikua-Beñat Arabaolaza / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta **18-14**
 Diego Cantabrana-Txomin de Vega / Andoni Elorza-Oskar Sarasua **10-18**
 Mikel Beretxinaga-Ibon Unzetabarrenetxea / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta **18-08**

PARTIDUAK, BARIKUAN, 18:00ETAN

Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar / Gorka Bolinaga-Sergio Bouzas
 Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar / Iñaki Ugarteburu-Mikel Elkoru
 Alberto Telleria-Anjel Ibarluzea / Gorka Bolinaga-Sergio Bouzas
 Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta / Alain Valle-Eneko Ormaetxea
 Andoni Elorza-Oskar Sarasua / Mikel Beretxinaga-Ibon Unzetabarrenetxea

OHARRAK

Diabetesa

Elkoro botikan, diabetesa izateko arriskua detektatzeko kanpaina dute martxan. Testa doan da eta diabetikoak ez diren 45 urtetik gorakoendako da. Barikura bitartean.

Argazki erakusketa

Azken egunak Jose Antonio Ojanguren zeramika gelan ikusgai duen *Arbola zaharrak* argazki erakusketa ikusteko.

'Go!azen' Espaloian

Telesail entzutetsuko protagonistek bi emanaldi egingo dituzte abenduaren 6an Elgetan. Saioak izango dira 17:00etan eta 19:00etan. Sarrerak salgai daude, 15 eurotan, Musikaze.net atarian.



Astelehen iluntzean egin zuten partaidetzako aurrekontuen emaitzaren aurkezpena udaletxean. AMAIA TXINTXURRETA

Komun publikoek dute lehentasuna

Partaidetzako aurrekontuetan parte hartu dutenen %98k bozkatu dute herriko bi paseo-gunetan komun publikoak jartzea. Hamasei proposamen izan dira aukeratuak eta orain erabaki behar dute horietako zeintzuk egin 2019an eta zeintzuk 2020an

Oihana Elortza OÑATI

Herritarrek aukeratu dituzte euren gustuko proposamenak bozketa bidez, eta emaitzak kaleratu dira. Orain, udal agintariei dagokie horiek gauzatzeko. Horixe da eta partaidetzako aurrekontuetan udalbatza osatzen duten bi alderdiek adostutakoa: datozen urteko bi aurrekontuetan jasotzea partaidetzako prozesuan oñatiarrek proposatu eta aukeratu izan dituzten ekarpenak, proiektuak.

Proiektu bakoitza noiz

Abenduaren 5eko osoko bilkuran eztabaidatuko dira 2019ko aurrekontuak eta hor jasoko dituzte bozka bidez aukeratuak izan diren proposamenetako batzuk. Agian, baina, ez modu zehatzean. Izan ere, bi aukera daude: aurrekontuetan zuzenean jasotzea aukeratuak izan diren

artean zeintzuk egingo diren 2019an edo urte horretarako 250.000 euro gordetzea partaidetzako aurrekontuetan inbertitzeko. Dena dela, saiatuko dira aukeratuak izan diren proiektuak dagokion departamentuaren aurrekontuan sartzen. Orain, aztertu egin beharko dituzte bozkatuenak izan diren hamasei proiektuak, urte bakoitzean zeintzuk egin erabakitzeko. Dena dela, aurreratu dute, seguruenik, botoen %98 jaso dituen komun publikoen proiektua datorren urtean egingo dutela. Eta bigarren bozkatua, Ugarkaldeko

TEKNIKARIEK AZTERTU BEHARKO DITUZTE ORAIN, NOIZ EGIN AHAL DIREN ZEHAZTEKO

jolas parkea estaltzea, alegia, 2020an.

Hamasei proposamen aurrera

Erabilera publikoko komun irisgarriak jartzea da partaidetzako aurrekontuen proposamen bozkatuena. Guztira, 1.032 baliozko bozka jaso dituzte herritarrengandik eta %97,8k egin dute erabilera publikoko komun irisgarriak jartzearen alde; Olabarrieta eta Asentzio artean eta San Pedro eta Madalena artean jarriko dituzte. "Horixe izan da bozkatuena. Baliozko bozken %98 lortu ditu. Datu esanguratsua da", adierazi du Partaidetza teknikariak, Onintza Andresek. Bigarren proposamen bozkatuena, botoen %47,1ekin, haurren jolas parke bat estaltzea izan da, eta Ugarkaldekoa estaliko dute. Eta botoen %40 inguru jaso dituzte beste hiru proposa-

men hauek: bizikletendako aparkaleku estaliak jartzea, zebra-bideak argiztatzea eta launakako zakarrontziak jartzea herriko hainbat puntutan. Dena dela, badaude aurrera egin duten beste hamaika proposamen ere; tartean sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpaina ezberdinak, hutsik dauden industrialdeen azterketa edo rokodromo bat edo aire libreko zinema ikustea ahalbideratuko duten azpiegiturak, adibidez.

Urria izan da herritarren iritziaz emateko sasoia eta bozketan 1.150 lagunek hartu dute parte; 1.032 izan dira balizkoak. Nerea Zubia zinegotzia pozik agertu da prozesuak izan duen parte-hartzearekin: "Mila lagunetik gorak bozkatzea oso ondo baloratzen dugu kuantitatiboki. Horrek, nolabait, bermatzen du atera den emaitza ahalik eta justuena izan dela, jende askok parte hartzeak hori ahalbideratzen duelako".

Emakumeen botoak, gehiago

Herritarren parte-hartzeari dagokionez, bi bide jarri zituen Udalak bozkek jasotzeko eta datuek diote gehienek, %59k, herriko eraikin ezberdinetan jarri zituzten postontziak erabili zituztela euren iritzia emateko; horien artean, udaletxeko kristalezko ontzian jaso zituzten betetako eskuorri gehien, %33. Gainerakoek, %41ek, online bidea erabili zuten. Bide hori erabili zuten %79, bide batez,

16 eta 25 urte arteko oñatiarrak izan ziren.

Generoari begiratuta, bestalde, jasotako datuek diote bozka eman duten gehienak emakumeak izan direla. Hain zuzen ere, %55 emakumeak izan dira eta %45, gizonetakoak.

Teknikarien lana dator orain

Behin proiektu bozkatuenak zeintzuk izan diren jakinda, ze urtetan zein egin erabaki behar dute. Hori, baina, ez dago agintarien esku bakarrik, baita teknikarien esku ere. Izan ere, departamentu bakoitzeko teknikariak daki zein proiektuarekin ari diren eta zeintzuk dituzten datorren urterako agendan, batzuk bukatzeko daudelako eta beste batzuk urtero errepikatzen direlako, adibidez. Beraz, beraiek ikusi eta aztertuko dituzte orain eta euren iritzia helaraziko diete udal agintariei, euren jakiteko zeintzuk egin ahal diren noiz, ikuspegi teknikitik, behintzat. Argi dagoena da agintariak 500.000 euro dituztela gordeta bi urtetarako eta urte bakoitzean 250.000 euro, gutxi gorabehera, inbertituko dituztela herritarrek proposatu eta ondoren bozkatu dituzten proiektuetan.

BOTOA EMAN DUTEN GEHIENAK POSTONTZIAK ERABILI DITUZTE EUREN BOZKA EMATEKO

Aukeratuak izandako proiektuak, botoen arabera




Erabilera publikoko komun irisgarriak jartzea. San Pedro-Madalena gunean bat eta Olabarrieta-Asentzion bestea. Aurrekontua da 55.000 komun bakoitza. Bozkak: %97,8.



Haurren jolas parkea estali. Bat aukeratu behar zen eta Ugarkaldekoa izan da aukeratuena. Aurrekontua da 118.000 euro. Jasotako bozkak: %47,1.



Bizikletendako aparkaleku estaliak ipintzea: Kiroldegia-Ikastola, kultura etxea, Urgain-Errekalde, Elkar Hezi, Azkoagain. Guzтира, lau. Aurrekontua da 60.000 euro. Bozkak: 42.



Bide segurtasuna hobetzeko zebra-bideak argitzea. Herriko hainbat kaletan dauden zebra-bideetan argi gehiago jartzea. Aurrekontua da 20.000 euro. Bozkak: %42.



Hondakinak gaika botatzeko launakako zakarrontziak jartzea herriguneko hainbat kale eta plazatan. Honen aurrekontua da 13.500 euro. Eta lortu dituen bozken ehunekoa: %40,3.



Herriko hainbat gunetan banku eta eserleku gehiago jartzea. Seigarren proposamen bozkatuena izan da. Honek duen aurrekontua da 14.000 euro. Bozkak: %34,8.



Kontzientziario kanpaina bat, herritarrei esateko zaborra ez dela lurrera bota behar, dagokion edukiontzira baizik. Kanpaina honen aurrekontua da 5.000 euro. Bozkak: %29,7.



Olakua auzoko kirol pista edo kantxa hobetu: margotu, sareak berritu eta ingurua argiztatu. Proiektu honen aurrekontua da 47.000 euro. Lortutako bozkak ehunekotan: %29,5.



Herrigunean altuera txikiko rokodromo bat eraikitzeko pareta bat prestatzea, adin eta maila ezberdinetarako aproposa izango dena. Aurrekontua da 2.000 euro. Bozkak: %28,4.



Urdandietako udal ur depositurako baso bidean dagoen lur jauzia konpontzea. Hamargarren bozkatuena izan da. Aurrekontua da 7.000 euro. Bozkak: %26,5.



Igotzeko eta oreka mantentzeko jolasekin gune bat hornitzea (sokak, sareak...) 6 eta 14 urte bitarteko gaztetxoendako. Honen aurrekontua da 60.000 euro. Bozkak: %24,1.



Kartelak, pankartak edo pintadak horretarako egokitutako tokietatik kanpo ez egin edo jartzeko sentsibilizazio kanpaina. Aurrekontua da 5.000 euro. Bozkak: %22,9.



Adineko pertsonen erorketen prebentziorako eta gaitasun fisikoaren mantentzerako jarduerak garatzeko espazio bat egokitzea. Aurrekontua da 6.500 euro. Bozkak: %22,6.



'Emakumeen etxea' martxan jartzeko herri mailako diagnostia egitea. Proposamen honen aurrekontua da 12.500 eurokoa eta lortu dituen bozkak, ehunekotan, %21,9.



Aire libreko zinema emanaldiak egitea herrian. Horrelako bi emanaldi urtean. Horixe da proposamena. Honek eskatzen duen aurrekontua da 5.000 euro. Bozkak: %21,3.



Industria-pabiloi hutsak eta horiek zertarako erabili ahal diren aztertzea. Aukeren azterketa egitea. Aurrekontua da 12.500 euro. Lortutako bozkak, ehunekotan: %21,2.

"Ekintza plana diseinatzen" hasita dago EH Bildu

Harritu prozesuaren barruan, herrian zer mantendu eta zer hobetu gura duten identifikatu du EH Bilduk, eta horretarako bidea zein den zehaztuko du ekintza planean. Proposamenak jasotzen jarraitu gura du, eta, horretarako, bilerak egingo dituzte, datorren astelehenetik aurrera, EH Bilgunean, arratsaldeko zazpietan.

Bilera horiek gaika egingo dituzte: lurralde antolaketa, gazteria, euskara, sozioekonomia, hezkuntza... eta bilera bakoitzean arloko egoera hobetzeko edo mantentzeko proposamenak jaso gura dituzte. Aurretik egindako diagnosi fasean ere jaso zituzten proposamenak, baina gehiago jaso gura dituzte, "etorkizuneko Oñati diseinatzeko".

Azaroaren 19tik 30era egingo dituzte bilerak eta guztiak lantzeko tailer bat egingo dute abenduaren 15ean. Jakinarazi dute EH Bilgunean bertan zein postaz jasoko dituztela ekarpenak: onati@ehbildu.eus.

Tinduf-erako eskola materiala batuko du Hermansoloñak

Tinduf-eko kanpalekuetan bizi diren umeendako eskola materiala batzen hasiko da astelehenan Hermansoloña elkarteak. Abenduaren 15era bitartean, arkatzak, margoak, motxilak eta antzerakoak jasoko dituzte herriko ikastetxeetan, paper eta liburu dendetan eta Ulma Packaging-en. Jostailuak eta arropa ere jaso gura dituzte.

OHARRAK

Kintada

1963an jaiotakoek abenduaren 1an kintada ospatuko dute Zumelzegi dorrean, 14:30ean. Izena emateko: Jabi Etxeberria (606 66 69 63) edo Roberto Plazaola (666 44 41 20).

Mendeurrena

San Migel kooperatibak 100 urte beteko ditu azaroaren 20an. Mendeurrena ospatuko du.



Eltzekideak, topagunea prestatzen, gaur eta bihar egingo diren ekitaldietarako. XABI URZELAI

Etorkizun hobe baterako, eragin

Gaur eta bihar bitartean, 'Eltziari eragiten' jardunaldiak egingo dituzte Eltzian. Antzerako ekimenak ezagutzeaz gain, topagunea ideiatzeko eta diseinatzeako tailerra egingo dute eta herritarrek hura barrutik ezagutzeko aukera izango dute bihar

Arantzazu Ezkibel Galdos OÑATI
Eltziari eragiten jardunaldiak egingo dituzte gaur eta bihar bitartean Eltzian.

Gaur, egubakoitza, espazio publikoen kudeaketarako formula berriak ezagutu eta horien gainean hausnartzeko eguna izango da. Goiz partean, administrazioaren begiradatik egingo dute tailerra; *eltzekideen* txanda arratsaldean izango da.

Eltzia moduko esperientziak
Getxoko Bentaranoa, Iruñeko Plazara, Zaragozako CSC Luis Buñuel eta Bartzelonako Can Batlo esperientziak bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute eragileek.

17:30ean, ongietorria egingo zaie beste esperientzia batzuk kontatzera datozenei, eta ondoren, esperientzia horiek entzungo dituzte. 20:30ean, saioa itxitzat

emango dute. Horietako ekimen batzuk aspaldikoak dira eta beste batzuek, Eltziak, adibidez, orain dela gutxi hasi dute ibilbidea. Hala, esperientziak elkartrukatu eta elkarrengandik ikasteko aukera izango dute.

Topagunea ideiatzeko tailerra
Bihar, zapatua, Eltziako erabiltzaileekin topagunearen espazioaren erabileraren hausnarketak egingo da. 11:00etatik 13:30era egingo dute hori. Topagunea Eltziako sarrera nagusitik sartuta dagoen espazio irekia da. *Eltzekide*-ek bere garaian

BIHAR, ZAPATUA, ELTZIA BARRUTIK EZAGUTZEKO AUKERA IZANGO DUTE HERRITARREK

erabaki zuten gune horrek erabilera bikoitza izango zuela: batetik, Eltziako erabiltzaileak elkar ikusteko gunea izatea, eta modu horretan euren arteko harremanak sustatzeko gune informala izatea; eta, bestetik, Eltziara doazen herritarrek egoteko moduko gunea izatea.

Hasierako ideia haiek errealitate izateko beharrezko ikusi dute topaguneari zein funtzio eman nahi zaion zehaztea eta horretarako bitartekoak zeintzuk izango diren pentsatzea.

Eltzia ezagutzeko bisita gidatua
Bihar, 11:00etan, Eltzia barrutik ezagutzeko aukera izango dute herritarrek. Bisita gidatua egingo dute gelaz gela –hasiera sarrera nagusiko eskaileretan izango da–.

Jardunaldia borobiltzeko, bazkaria egingo dute Topagu-

nean. Tabernaren ardura hartu dutenek izango dute menua prestatzeko ardura –100 bat lagunendako–. Bazkariaren ondoren, bertsolariek kantatuko dute, eta gero, Herrixa Dantzan folk dantzaldia egingo dute, 17:00etan. Gidatutako dantzaldi ludikoa izango da, tradiziozko dantza eta musika oinarri hartuta. Herritarrek dantzan elkarrekin ondo pasatzea izango da helburua; sarrera doan izango da eta parte-hartzea librea –*eltzekide*-ak eta herritarrek dau-
de gonbidatuta–.

Bost urteko ibilbidea

2013ko urte amaieran hasi zen Eltzia gorpuzten. Urte amaieran eta 2014 urte hasieran sartu ziren lehenengo elkarteak ETEO zaharreko eraikinera lanera. Udalaren asmoa sormenaren etxea gauzatzea izan da: komunitatetik sortua eta komunitatearentzat izatea helburu duena.

Herrian dauden kultur eta gizarte taldeak leku berean egonda elkarren arteko harremanak sustatzeko bide ematen du; modu horretan, sinergiak eta elkarlana sortuz. 2016-2017 bitartean eraikin zaharra eraberritu egin zuten; Eltzia osatzen duten elkarten beharrak hobeto aseko dituen proiektua landu zuen Izaskun Legaristi arkitektoak. 2018ko maiatzean, aldiz, eraikinari beste itxura bat eman diote: Arte Y Muralismo enpresak margotu du eraikina.

Eltzia osatzen duten 'eltzekide'-ak

Kultura eta gizarte arloko hainbat taldek osatzen dute gaur egun Eltzia.

Elkarteak

- Algaraz ikuskizun elkarte
- Andraitz elkarte feminista
- Creciendo Con Arte. Artez Hazten
- Ilunpetan argazki taldea
- Irazan antzerki gunea
- Joskintza
- Lagun Leku
- Lizargarate trikitizale elkarte
- Margo taldea
- Olaiturri Kultur Elkarte
- Oñatz dantza taldea
- Ortuzabala kontsumo taldea
- Sare
- Swing dantza taldea
- Txantxiki familia elkarte
- Txinparta bertso eskola
- Yoga
- Zai Zoi Bele musika kolektiboa
- Zazpi Udaberri
- Zizelkariak



Arduradun izango denetako bat, Tommaso Galati, tabernan. X.U.

Tabernako lanak martxa onean doaz

Oraindik guttiz prestatu barik dute taberna –abenduaren 1ean egingo dute inaugurazioa–. Hala ere, konpromisoa hartu dute aste bukaera honetan atea zabaltzeko eta zerbitzua eskaintzeko. Gaur arratsaldean, aukera egongo da taberna barrutik ezagutzeko.

"Zaletasun handia dago Oñatin mendira joateko"

MIKEL OTERO ALOÑA MENDI KIROL ELKARTEKO MENDI SAILEKO KIDEA

Aloña Mendi kirol elkarteko mendi sailak urtero antolatzen duen hamabostaldiaren barruan, hainbat ekintza izango dira: film proiektzioa, ikastaroak eta argazki lehiaketa

Imanol Beloki OÑATI

Oñatin, Aloña Mendi kirol elkarteko mendi sailak mendi hamabostaldia antolatzen du urtero, eta aurten ere egin du. Datorren astean hasiko da, eta ekintza ugariarekin dator aurtengo egitaraua.

Aurtengo mendi hamabostaldiko kartela ikusita, egitarau osatua prestatu duzue, ezta?

Bost ekitaldi daude; pelikula bat, Euskal Mendi Federazioak antolatutako segurtasunaren inguruko ikastaro bat eta hitzaldiak proiektioekin izango dira. Horrekin batera, argazki lehiaketa ere egingo da, eta hilaren 20an irekiko dugu erakusketa.

Nolako harrera izaten du hamabostaldia?

Jende asko etortzen da, normalean, ekitaldi guztietara. Batez ere, filma izaten da aretoa gehien betetzen duen ekintza, baina guztiak izaten dira arrakastatsuak, orokorrean. Ekintzetara datozenak jaisten dira behera argazkiak ikustera... Aurten, gainera, oñatiar asko aurkeztu dira lehiaketara, eta aukeratuak ere izan dira batzuk, baina ez dut gehiago aurreratu.

Film emanaldia urtero antolatzen duzue zineklubarekin batera. Zein ikusi ahal izango da aurten?

Eskaladari buruzkoa izango da aurtengo filma, *Al otro lado de la cuerda* izenekoa. Maila handiko bederatzi eskalatzailearen gainekoa da; horietako bat Christian Ravier da. Bere anaia-rekin batera Pirinioetan bide garrantzitsuak irekitzen zituzten eskalatzaileak dira. Eskaladaren balioak, etika... halako hausnarketa bat egiten dute. Itxura polita dauka.

Badago mendizaletasunik Oñatin? Neurtu daiteke hori?

Momentu honetan, 920 federatu ditugu Oñatin. Horrek esan nahi du hauek aseguru bat atera dutela. Baina horiek baino gehiago



Mikel Otero, Aloña Mendi kirol elkarteko mendi saileko kidea. OIHANA ELORTZA

"GAUR EGUN, 920 BAZKIDE DITUGU ALOÑA MENDI KIROL ELKARTEKO MENDI SAILEAN"

dira mendira joaten direnak. Gainera, arlo guztietan: eskaladan, mendiko zeharkako eskiekin ari direnen kopurua asko igo da azken urteotan... Nik uste dut Oñatin aukera dagoelako dela hori. Jendea, gainera, Alpeetara, Himalaiara-eta ere joaten da. **Mendi Federazioko fitxen tramitazio lanekin ari zarete orain; gora-behera asko izaten da urtetik urtera?**

Azken urteetan goraka doa pittin bat. Beti daude baja batzuk, eta orain hasi gara aldaketa batzuk eskatzen, eta aurten, hogeit bat baja eta beste hamar bat alta sumatu ditut. Baina kontuan eduki behar da urtean zehar alta gehiago izaten direla, eta bajak, berriz, gutxiago. Iaz, 890 bazkide ginen, eta aurten, berriz, 920ra iritsi gara. Bazkide gehien dituen Aloña Mendiko taldeen artean, talde potenteena gara.

Zergatik da garrantzitsua Mendi Federazioko txartela izatea?

Urbiara paseoa joateko ez du merezi, baina eskalada, eskia egiten baduzu, edo kanpora joaten bazara... Estaldura bakarrik ez da kontuan izan behar; garestiena da, baina, Euskal Federaziolari, Gipuzkoakoari laguntzen diozu. Kolektibo bat gara, eta horrek indarra ematen digu. Ez da kostua bakarrik ikusi behar.

Urtero moduan, elurretara irteera ere egingo duzue, ezta?

Datorren urtera begira, bi irteera egingo ditugu, bat otsailean eta bestea martxoan, arrakastatsuak izaten baitira. Gidariarekin egiten dugu, eta jendea Pirinioetara animatzeko egiten dugu. Oinarritzko ezagutza bat izan behar da, baina segurtasun kontuak ikasteko oso interesgarriak dira.

Urtean zehar, hilean behin mendi irteerak egiten dituzue; herritarrak fidelak dira?

Abuztuaren izan ezik, hilero egiten ditugu, eta 30 pertsona inguru batzen gara. Arantza aldeira goaz azaroan, eta abenduan, Aia-Zumaia egingo dugu, eta gero, baita bazkaria ere.



Eñaut Elorrieta eta Kaabestri String Ensemble boskotea. KULTURKLIK

Eñaut Elorrieta, 'Harian' lan berriarekin, Santa Anan, etzi

Domekan 19:00etan izango den emanaldian, Elorrieta hari boskotearekin izango da oholza gainean

I.B OÑATI

Musikegunak egitasmoaren barruan, kontzertua eskainiko du Eñaut Elorrieta musikariak, domekan, 19:00etan, Oñatiko Santa Ana Udal Antzokian. Zuzenean interpretatzeko eta gozatzeko asmoarekin sortutako proposamen berriarekin izango da, gainera: *Harian* izeneko proiektuarekin, hain zuzen ere.

Urriaren 28an hasi zuen *Harian* proiektuaren bira berria, Bilboko Arriaga antzokian, eta asteburuan, Santa Anako oholza gainean izango da, bere musika banda hari instrumentuekin ordezkaturatuta. Euskadiko Orkestra Sinfonikoko bost musikaririk osatzen duten Kaabestri String Ensemble hari boskotearekin egin du proiektua: Oscar Lopez, Igor Torre eta Arkaiz Martinez biolinistak, Jon Arraz Txelotzalea eta Paloma Torrado kontrabaxista dira taldekideak.

Kontzertu horrek aukera bakarra eskaintzen du Ken Zazpiko abeslariaren gozatzeko beste musika-tesitura batean; horrela, haren ahotsa entzuteko aukera izango da bi biolinek, biolak, txeloak eta kontrabaxuak lagunduta eta emanaldi honetarako egindako musika-moldaketekin.

Zuzeneko emanaldia

Lau abesti berri grabatu ditu Elorrietak hari boskotearekin batera, baina ez dute euskarri fisikorik argitaratu. Hala ere, sarean jarri dituzte sortu dituzten abestiak entzungai. Kontzertu bira horretarako sortutako kantu berriei gain, Eñaut Elorrietaren errepertorioko hainbat abesti moldatu dituzte hari boskoteari egokitzeko.

Sarrerak, aldiz, egunean bertan leihatilan hamar eurotan erosi daitezke, edo, aurrez, *Bibe.me* webgunean.

'Como un viento helado' lana izango da ikusgai Santa Anan

Sexu abusuak oinarri dituen antzezlanak ikusteko aukera izango da zapatuan, Oñatin. Ttanta konpainiaren *Como un viento helado* antzezlan izango baita, hain zuzen ere, zapatuan, Santa Ana antzokian, 19:30ean.

Nerea Elizalde, Tania Fornieles eta Koldo Olabarri aktore gazteak izango dira oholza gai-

nean Rafael Herreroen lana antzeztzen, Fernando Bernues zuzendari eta eszenografoaren gidaritzapean. Suspensea oinarri duen antzerkia gaztelaraz izango da, eta haurrek izandako sexu abusuaren gainekoa da.

Tantakak eskaintzen duen ikuskizun berria Victoria Eugeniaren aurkeztu zuten. Oñatin, berriz, zapatuan izango da, eta sarrerak hamar euroko prezioan erosi daitezke, *Bibe.me* webgunean, edo leihatilan egunean bertan.

"Sagan ez da arduratzen bizikletaren pisuagatik"

IVAN VELASCO ASTANA PRO TOUR TALDEKO TEKNIKARIA

TXIRRINDULARITZA Azken hiru urteak Specialized etxean egon eta gero, ingeniari arrasatearra Kazakhstango taldearendako dabil lanean iraila ezker

Xabier Urzelai ARRASATE

Lau urte igaro dira Ivan Velasco (Arrasate, 1980) txirrindularitza profesionala alde batera utzi zuenetik. Behartutako erabakia izan zen; berez, erorikoengatik aurretik dezente zigortuta zeukan gorputzak nahikoa zela esan zion, 2013ko Vueltako etapa batean lurrera joan eta gero. Caja Ruralgo maillota defendatzen hartu zuen min, eta, errekupekatzen ahalegindu bazen ere, amore eman behar izan zuen. Eta hutsetik hasi. Ibilbide berria emankorra izaten dabil. **Gertutik jarraitu ez zaituztenedako, zertan ibili zara lau urte haue-tan?**

Lehenengo urte eta erdia hainbat kurtso egiteko aprobetxatu nuen, biomekanikakoak, elikadurakoak... Kontua da profesional nintzenez Specialized etxeak ematen zizkidala zapatilak, eta bertan nuen kontaktua birtartez nire curriculum bidali nien arduradunei. Nire perfila gustatu zitzaie, eta eurekin hasi nintzen lanean.

Kirolari profesional askori kosta egiten zaie eguneroko berrira moldatzea. Zuri ere bai?

Bai; gauzak diren moduan, lehenengo urtea ez zen batere erraza izan. Gainera, txirrindularitza uztea ez zen nik hartutako



Ivan Velasco, aste barruan, Arrasaten. X.U.

erabaki bat izan, ez nuen beste aukerarik izan, eta horrek amorratzen ninduen. Zorionez hainbat lagun ondoan izan nituen; esaterako, Markel Irizarrekin bizikletan ibiltzera joaten nintzen, eta, bueno, ezagutzen duzu Markel, badakizu zelakoa den. Psikologo lanak egin zituen nirekin, eta oso lagungarria izan zen. Gero, denborak gauza ba-koitza bere lekuan jartzen du.

Eta zein ikuspuntu duzu orain?

Bada, seguruenik, ziklista nintzenez baino zoriontsuagoa naizela orain. Lehen, 24 orduz

nintzen txirrindulari, eta estresatuta bizi nintzen: lasterketen emaitzak ez ziren beti nahi modukoak, erorikoak, errekupe-ratio faseak... Eta ez nuke aldatuko, txirrindularitzak gauza asko eman dizkidalako: ezagutu ditudan lekuak, egin ditudan lanak... Baina orain, gauza guztietarako daukat tartetxo bat, gauza askorekin gozatzen dut. Lehen, ez.

Hain zuzen, Irizar kontsolatu behar-ko duzu laster; profesional moduan azken lan kontratua sinatu duela esango nuke.

[Barre] Ezberdina da. Markelek berak erabakiko du noiz utzi txirrindularitza, apenas geratzen dira bere belaunaldiko txirrindulariak, aukera ezberdinak izango ditu lanean jarraitzeko; gainera, ez daki geldirik egoten. Azkar beteko du hutsune hori. **Hiru urtez Specialized etxean egon eta gero, Astanara egingo duzu salto. Zergatik?**

Bueno, hainbat arrazoi daude. Specialized enpresa AEBetan dago, eta han daude ingeniari guztiak. Europen hiru baino ez geunden, eta gure proposamenak benetan izan behar ziren onak han kontuan hartzeko [Barre]. Amerikarrak, orokorrean, horretarako bereziak dira. Iaz jaso nuen Astanako partetik lehen eskaintza, baina, orduan, ezetz esan nien, Specialized moduko etxe bat uzteak beldur apur bat ere ematen duelako. Baina azken proiektuarekin ere ez nabilen oso gustura, eta aurtan, saltoa ematea erabaki dut.

Eta zein izango da Astana Pro Tourren egingo duzun lana?

Txirrindularitzako talde handiak konturatuta daude aerodinamikak, bizikleten diseinuek, janzkeren materialak... duten garrantziaz, eta horretan inbertitzen dabilta. Ni teknikari lanetan ibiliko naiz; ziklisten datu mordo ditugu, baina horiek aztertu egin behar dira, eta interpretatu. Belodromora joan eurekin eta bakarkako testak egin, kronoetarako bizikletak zelakoa izan behar duen ikusi, ibilbideak aztertu... Orain momentuan, erlojupekoetako kasko berria diseinatzen laguntzen nabil.

Izan ere, bizikleta batek aurrerapen gehiago izan ez ditzakeela uste duzunean, gauza berrieekin datoz. Etengabeko berrikuntza prozesuan daude, bai. Nik uste dut

materialari dagokionez oraindik badagoela zer hobetu. Trek-ek bost kilo pisatzen duen bizikleta dauka, eta oraindik badago arinagoak egiteko tartea, baina UCIk lasterketarako gutxieneko pisu-muga ezartzen du. Aerodinamikan ere lan handia dago egiteko...

Horren harira, mekanikari batek aspaldi esan zidan puntako ziklistak ez direla horren zorrotzak materialarekin.

Bai, egia da [Barre]. Bueno, pertsonaren arabera da hori. Alberto Contadorri lasterketa egunean 300 gramo gehiago dituen bizikleta ematen badiozu, urduritu egingo da, eta egun horretan ez du lasterketa ona egingo. Peter Sagani, berriz, bost axola bizikletak 500 gramo gehiago baditu. Irteera puntuan 40 pultsaziotara egongo da, eta kafe bat hartuko du lasai, bada-kielako lasterketa ona egiteko kapaz dela, eta, seguruenik, horrela izango da. Batzuek detaile guztiak zaindu behar dituzte; beste batzuek...

Omar Fraile, Pello Bilbao, Izagirre anaiak... Euskaldun kuadrilla polita zaudete taldean.

Bai; taldeko entrenatzaileetako bat Aritz Arberas da... Brometan esaten dugu lehendakariari eskatu behar diogula taldea babesteko. Gainera, txirrindulari guztiak taldekide izan ditut, bai Euskaltelen edo bai Caja Ruralen. Eta oso jende jatorra da, plazera izango da eurekin lan egitea.

"ORAIN MOMENTUAN, ERLOJUPEKOETAKO KASKOAREN DISEINUAREKIN LAGUNTZEN NABIL"

Oñatikoak, erreferente

ESKUBALOIA Asteburuan, bai Fagor Industrialek eta baita Ford Mugarri Arrasatek ere kanpoan jokatuko dute. Jokatutako zazpi partiduetatik sei irabazita, bistakoa da oñatiarrak aurtengo talde erreferenteetako bat izango direla. Domekan jokatuko dute, Hondarribian (18:00). Ford Mugarri Arrasatek, berriz, Siglo XX taldearen kantxan jokatuko du bihar (18:00).



I.S.

Arnasa hartu du Bergarak

FUTBOLA Ligako talde gogorrenen kontra jokatu behar izan du Bergarak hasierako partidu hauetan, baina, hain zuzen, talde horietako baten aurrean arnasa hartu zuten bergarrek joan den domekan, Leintz Arizmendi hartu zuten-eta mendean. Bihar (15:30), Touring izango da Ipintzan. Leintzeko neskak, berriz, Lasartera joango dira bihar (17:30).



I.S.

ARETO FUTBOLA Mondratek etxean jokatuko du bihar

Joan den astean Eskoriatzaren kontrako derbia 2-0 galdu eta gero, Mondratek azken sailkatu Scalibur hartuko du bihar arratsaldean Musakolan (17:30). Kategoria berean dabiltzan Aretxabaletak eta Eskoriatzak, berriz, kanpoan jokatuko dute. Eskoriatzak Sondikan zapatuan (17:30) eta Aretxabaletak Tolosan (16:00).

Ishiguro Nobel sariduna, orain, euskaraz ere bai

Amaia Apalauzak eta Iñigo Roquek itzuli dute japoniar-britaniarraren 'The Remains of the day' eleberria. "Esperientzia aberasgarria" izan dela dio itzultzaile bikoteak eta 'Egunaren hondarrak' liburua "edonork irakurtzeko modukoa" dela gaineratu dute

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
Booker sari prestigiotsua eta mundu osoan onespina lortu zituen eleberriak; ezagunago bilakatu zen, gero, filmarekin; eta egilearen Literaturako Nobel sariak biribildu du *The remains of the day* liburua fama. Orain, euskaraz irakurtzeko aukera dago. Amaia Apalauza Ollok eta Iñigo Roque Eguzkitzak itzuli dute *-Egunaren hondarrak-*, AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak Arrasateko Udalaren eta Laboral Kutxaren laguntzarekin antolatutako Jokin Zaitegi itzulpen sariketaren bitartez.

Ekimenaren bultzatzaileak "pozik daude emaitzarekin", eta itzultzaileek diote "liburu ederra geratu dela eta lortu gura zuten betetasun hori lortu dutela", gaineratu dute: "Opari bat izan da Kazuo Ishiguroren unibertsioan sartzea. Etxe handi ingelesetako giroan sartzeko aukera ematen dio irakurleari, baita Ingalaterrako hegoaldeko landa-eremuan barrena bidaiatzeko ere; betiere, gutako edonori ezagunak edo gertukoak zaizkigun gatazkak, kontraesanak eta gogoetak planteatuz. Bidaia bat egitea izan da guretako oparia: bidaia Ingalaterran barrena, eta bidaia geure izatean barrena. Aurkezpenaren ere aipatu genuen



Aurreko astean aurkeztu zuten *Egunaren hondarrak* liburua. ELKAR ARGITALETXEA

gaur egun, tamalez, halako sarien premia dugula literatura baldintza duinetan itzultzeko".

Maiordomo batek kontatuta

Itzultzeko gako nagusia tonu egokia harrapatzea zela zioten lanari ekin ziotenean, eta hala xe berretsi dute bukatutakoan: "Maiordomo ingeles batek kontatzen du istorioa; bera oso zorrotza da gauza guztietan, arras perfekzionista, eta oso hizkera hanpatua erabiltzen du, oro har. Batik bat, giro aristokratikoan ibiltzen da, itxurakerian erabat,

nahiz eta badiren kaleko herri-tarrekin izandako elkarrizketak. Esan gabekoak esandakoak bezain garrantzizkoak direla asko gustatu zaigu. Pertsonaia nagusiak isilean gordetzen ditu barruan bor-bor dabilzkion nahi eta ezinak. Bestalde, Europako historiaren pusketa bat ere erakusten digu, eta, Marc Blochek zioenez, historiak, besterik ez bada ere, entretenitu egiten du. Edonorentzako modukoa da; irakurleei dei egin nahi genieke mundu zabaleko literaturetara euskaraz atera daitezen".

"Intuizioz osatu dut bilduma, antologiarik egiteko asmo barik"

RUPER ORDORIKA MUSIKARIA

Ibilbideko kantuen bakarkako bertsioak grabatu ditu

A. A. OÑATI

Hemeretzigarren diskoa atera du oñatiarrak; aurreko lanetako hamabi abestiren bertsio berrie-kin osatu du *Bakarka* bilduma. Goiena telebistako *Hemen Debagoiena* saioan izan da asteon, Txomin Madina kazetariarekin. **Bakarrik, beste musikaririk barik, grabatu dituzu kantuak, hainbat kontzertutan jo dituzun moduan.**

Etxean ere horrela ibiltzen naiz, bakarka, eta jendaurrean, orain dela hiru urte hasi nintzen bakarkako kontzertuak egiten; pentsatutakoak, ez taldeak ezin zuelako joan, baizik eta nahita, konturatu naizelako jende askori horrela gustatzen zaiola entzutea, eta horren ondorioz erabaki nuen hastea.

Jonan anaiarekin Mamia estudioan grabatu dituzu zure ibilbideko hamabi kantu daude; zergatik horiek?

Ez da erraza izan aukeratzea; 25 bat kantu grabatu nituen, eta gero, ez dakit nire ustez intuizio baten arabera, ez da antologia bat izan edo gai baten inguruan egindako sorta. Hamaseira nahiko samur heldu nintzen, baina konturatu nintzen ahotsa eta gitarra bakarrik izanda askotxo zirela, eta beste lau kendu nituen. **Kantu horiek asko aldatu dira?**

Gauza txikiak dira, ez dakit entzuleak zenbat sumatzen duen, baina, niretzako, aldaketa txiki horiek ez dira horren samurrak. Formetan ahaleginduko naiz nahiko eusten kantua zenari.

Zuri ere balio izango zizun, nolabait, kantuak berraurkitzeko, ezta?



Ordorika, Goiena telebistan. GOIENA

Asko, asko; musikariekin beste mundu bat da. Hasieran, zuzenean grabatzea pentsatu nuen, baina ez nuen dokumentu bat egin gura, baizik eta soinu ona izango zuen zerbait. Asko saiatu gara soinuarekin gauzak txukun egiten. Udaberrian grabatzen hasi eta iraila arte ibili naiz.

Azala Fernando Lutxo Neira mugalarriak egin dizu.

Arkitektoa da *Lutxo* baxu-jolea, eta bakarkako kontzertuetarako kartela egiteko eskatu nion mesede moduan, eta horren gainean proposatu nion, gero, lan berriaren azala egiteko.

Abenduan zuzenekoa grabatuko duzu taldearekin Bilbon.

Kafe Antzokian grabatuko dugun hirugarren diskoa izango da, bai. Nire nolabaiteko etxe bilakatu da, eta datorren urtean 25 urte beteko ditu antzokiak; horren harira dator, bada.



EUSKARALDIA

GOIENA TELEBISTA, MUTRIKUKO ETA ZARAUZKO PROTAGONISTAK
AZAROAREN 21EAN, EGUAZTENEAN,
21:00ETAN ETA 23:00ETAN
JULEN IRIONDOK ETA IZARO INSAUSTIK AURKEZTUTA

goiena
Zu hemen zaude.



Asmoa zena errealitate bihurtu du Mendikutek

Haurrentzako 'Vera la soñadora' liburua argitaratu dute Bergarako ilustratzaile Usoa Mendikutek eta Sardiniako Cinzia Tuveri idazleak; proiektua aurrera eramateko, askotariko mezenasen laguntza izan dute; horien artean gehienak, Bergarakoak

Aitziber Aranburuzabala BERGARA

Iaz, ekainean, italieraz argitaratu zuten *Vera Mongolfiera 4* eta 7 urte bitarteko irakurleentzako liburua. Aspaldiko lagunak dira Sardiniako idazle Cinzia Tuveri eta Bergarako ilustratzaile Usoa Mendikute, eta Tuverik buruan zituen istorioak irudikatze proposatuta abiatu ziren elkarrekin abentura horretan.

Harrera ona izan zuen 8 urte dituen Vera neskatala ameslariaren istorioak, eta beste hizkuntza batzuetan argitaratzeko nahia sortu zitzaizen liburuaren egileei. Argitaletxeekin harremanetan jarri, eta, hilabeteetako lanaren ondoren, astelehenean argitaratu zuten Sevillako Babidi-Bu argitaletxearekin gaztelarazko bertsioa: *Vera la soñadora* izenekoa. Argitaletxearen webgunean *-Babidibulibros.com-*, Casa del Libroren eta El Cortes Inglesen atarietan eta liburu dendetan eros daiteke.

Euskaraz ere ateratzeko bidean

"Urte hasieran esan ziguten liburua argitaratzeko prest zuela, baina, gure lehenengo liburua denez, gutxieneko salmenta bermatzeko, guk 200 ale erosteko baldintza jarri ziguten. Gastu horiei aurre egiteko Ver-



Bergarako ilustratzailea, argitaratu berri duten liburuarekin. USOA MENDIKUTE

kami plataformaren bitartez *crowdfunding* kanpaina abiara zi genuen eta 150 mezenasen laguntzarekin –gehienak Bergarakoak– aurrekontua biltzea lortu genuen. Oso esperientzia aberasgarria izan da *crowdfunding* kanpaina, eta jendearen harrera ezin hobea; hortaz, Verari buruzko istorio berriak sortuz gero, eta diru beharra izanez gero, bide beretik joko nuke", dio ilustratzaileak.

Sevillako editorialarekin bost urterako kontratua sinatu dutela gaineratu du Bergarakoak:

"Kontratuak jasotzen du epe horretan ezingo dugula beste argitaletxe batekin liburu hori argitaratzeko hitzarmenik egin, eta esan digute beste herrialde batzuetako argitaletxeekin negoziatuko dutela beste hizkuntza batzuetan atera ahal izateko; horien artean, euskaraz".

Biodibertsitateari buruz

Mediterraneoko itsasoko irla bateko aspaldiko gertaera batek abiatuta, haurrengan martzeko jakingura eta imajinatze-ko ahalmena sortzea da asmoa.

Puntako hardcore jaia datorren Kooltur Ostegunak emanaldian

Kontzertu bikoitza izango da: Jerry A. –Poison Ideako abeslaria– 25th Coming Fire taldearekin; eta Estricalla

A. A. ARRASATE

Talde batzuk zuzenean ikustea ez da erraza izaten, eta hori da 25th Coming Fire taldearen kasa, Kooltur Ekintzak taldeko Iker Barandiaranen esanetan: "Euskal Herriko hardcore esze-

nan eskarmentua duten musikariek sortu zuten, 2000. urtean, eta, Gipuzkoako taldea den arren, Alex Montiel taldekidea Ameriketako Estatu Batuetan bizi da; hori horrela, urtean, asko jota, hiru kontzertu egiten di-

tuzte. Arrasatera Jerry A. Portlandeko Poison Idea taldeko abeslariarekin etorriko dira; izan ere, Montielen laguna da, eta elkarrekin *The Remains of the remains* diskoa atera berri dute. Aurkezpen birako kontzertuetako bat gaztetxean egingo dute. Ordubeteko emanaldian, lan berriko kantuek gainera, Poison Idea taldearen ere eskainiko dituzte; Estricalla taldeak joko du, baina, aurretik. Hortaz, hardcorezaleentzako, bereziki, galdu ezinezko kontzertua izango da".

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko azaroko sariak!



Ebook reader

Parte hartzeko sariaren izena: Ebook



'Gerrateko Ibilerak' liburua

'Gerrateko Ibilerak' Iñaki Alkain - Antonio Zabala

Parte hartzeko sariaren izena: Liburua

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

www.harramandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: klubo@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte hartzaileen artean egingo da zozketa.

Irabazteko: LPO 15/1999 legearen arabera, jaiaren ondoren, goiena.eus webgunetik, Goiena Klubeko 25. Kontzertuaren irabazteko sariaren izena da. Datu bilaketaren helburua da irabazteko sariaren izena jakitea. Eskubide bakoitzak sariaren izena jakiteko eskubidea du. Irabazteko sariaren izena klubo@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

DUKUNA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!



943 25 05 05



klubo@goiena.eus



KLUBA Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoari eskerrak

"Luisa Fernanda" zarzuela emanaldietarako sarrerak ditugu.

Durango | Plateruena Kafe Antzokia | Azaroaren 23an eta 24an | 19:30ean

PARTE HARTZEKO:

E-posta: klubo@goiena.eus **WhatsApp:** KLUBA "Zarzuela" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte hartzaileen artean egingo da zozketa.

Irabazteko: LPO 15/1999 legearen arabera, jaiaren ondoren, goiena.eus webgunetik, Goiena Klubeko 25. Kontzertuaren irabazteko sariaren izena da. Datu bilaketaren helburua da irabazteko sariaren izena jakitea. Eskubide bakoitzak sariaren izena jakiteko eskubidea du. Irabazteko sariaren izena klubo@goiena.eus




Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailak gozatzeko...



Bazkidetu zaituzte: 2018 (azarotik aurrera): 15€.
Deitu: 943 25 05 05. klubo@goiena.eus


goienakluba
Euskara trabazte, denok irabazte!

URTEURRENA



Carlos Gomez Gonzalez de San Pedro
2009ko azaroaren 14an hil zen.

Beñar Gonzalez de San Pedro Saenz
2016ko azaroaren 12an hil zen, 57 urte zituela.



Hainbeste maite zintuztegun, eta sekula ez itzultzeko joan zineten.

Urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 18an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, etxekoan izenean. Bergaran, 2018ko azaroaren 16an.

URTEURRENA



Susana Larrañaga Guillen
2008ko azaroaren 13an hil zen.



Hamargarren urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 18an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2018ko azaroaren 16an.

URTEURRENA




Joxan Etxeberria Luarizaristi
2017ko azaroaren 1ean hil zen, 68 urte zituela.




Urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 18an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2018ko azaroaren 16an.

URTEURRENA



Jose Luis Irizar Uribetxeberria
2017ko azaroaren 6an hil zen, 80 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 18an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2018ko azaroaren 16an.

URTEURRENA



Peio Unamuno Alberdi
2017ko azaroaren 6an hil zen, 71 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 18an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2018ko azaroaren 16an.

URTEURRENA



Maria Etxabe Garai
2017ko azaroaren 17an hil zen, 97 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 18an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2018ko azaroaren 16an.

URTEURRENA

Maria Larrañaga Orbea
Gregorio Muruamendiaren alarguna
2017ko azaroaren 14an hil zen, 96 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 18an, 11:00etan, Antzuolako Erukizko Amaren parrokian.

Urak dakarrena urak daroa, baina zu, amona, Ugarrixan sortua, beti izango zaitugu gure artean.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Antzuolan, 2018ko azaroaren 16an.

URTEURRENA



Aitor Arkauz Kortabarria
2017ko azaroaren 11n hil zen, 56 urte zituela.



Azken urte hau ez da erraza izan, dago aitortu beharra. Zure laguntzaz eta oroimenez, atera dugu indarra. Batzun laguna, bezten anaia, aita, osaba, senarra. Oroimenean mantentzen degu zure umore ta irrifarra.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, azaroaren 17an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2018ko azaroaren 16an.

HILETA

Aitor Sarasua Maritxalar



Askok ta asko maite izan zaitugu zu jasotakoa biderka itzuli duzu.

Hileta larunbatean 11etan izango da Itsasuko Elizan. Adiskideak ostegun arratsalde eta ostiralean etxean hartuko zaituztegu.

Itsasun, 2018ko azaroaren 16an.

ESKER ONA

Ana Mari Crucelaegui Altuna
Ignacio Azcoagaren alarguna
2018ko azaroaren 11n hil zen, Gasteizen, 77 urte zituela.




Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.


Haren aldeko irteera meza domekan izango da, azaroaren 18an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian. Bertaratuko zaretenoi, aurrez eskerrik asko.

Arrasaten, 2018ko azaroaren 16an.

ESKER ONA



Mercedes Larrañaga Belategi
Markelin Etxeberriaren alarguna
2018ko azaroaren 4an hil zen, 102 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2018ko azaroaren 16an.

OROILORE
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguruia izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA



BERGARA
Mikel eta Nahia Aristimuño Blazquez
Azaroaren 20an, 4 urte. Zorionak eta muxu bat, etxekoan partetik.



ESKORIATZA
Nora Gomez Gomez
Azaroaren 20an, 3 urte. Zorionak, maittia, zure hirugarren urtebetetzean. Egun polita pasa ezazu, etxekoan eta lagunen artean.



ARRASATE
Ametz Albes Unzueta
Azaroaren 19an, 2 urte. Zorionak, Ametz! Aurten ere behar bezela ospatuko dogu zure eguna, merezi dozu-eta! Patxo handi bat, etxeko danon partetik.



OÑATI
Irene Campagnoli Arkauz
Azaroaren 19an, 7 urte. Zorionak, polit hori! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Patxo handi bat, etxeko danon partetik.



OÑATI
Nora San Miguel Billar
Azaroaren 18an, urtebete. Zorionak, printzesa! Urte askotarako! Patxo handi pila bat, familiara danaren partetik!



OÑATI
Aimar Ferreira Gomez
Azaroaren 17an, 3 urte. Ene! Gure etxeko txikixak 3 urtetxo itten daue! Zorionak, maittia! Oso ondo pasatu zure egunian. Familiara osuak ospatuko bazkari goxo batekin zure omenez! Patxo danon partetik. Berezik! Anerrek.



ESKORIATZA
Kerman Petralanda Garate
Azaroaren 16an, 10 urte. Zorionak, Kerman, gure txapelduna! Jarraitu beti bezain alai. Laztan handi bat, etxekoan partetik. Muak!



BERGARA
Garazi Aretxaga Arabaolaza
Azaroaren 14an, 4 urte. Zorionak, Garazi! Lau urte! Zu bai neska handixa! Patxo handi bat, etxeko danon partetik, maitxia!



ESKORIATZA
Itziar Kortazar Olabarria
Azaroaren 14an, 6 urte. Zorionak, Itziar! Egun polita pasatu eta urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua, etxeko guztion partetik.



OÑATI
Ainhize Arregi Baseta
Azaroaren 13an, 8 urte. Zorionak, polit hori! Egunez egunera neska jator eta langileagoa zara! Eta lagunak lagun, noski! Disfrutatu! Muxubatez ere Ekhiren partetik!



ARRASATE
Txaro Azkarate Zabarte
Urriak 22an. Zorionak, tia Txaro! Familiara guztion partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkartzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

TXUTXU-MUTXUAK



1. 1976ko kintoen bazkaria

Zapatuan elkartu ziren 50 lagun euren kinto bazkaria ospatzeko. Egun osoko festa egin zuten. Poteoa goizean, bazkaria Arteaga jatetxean, eta bazkalondoko dantzaldia jatetxean bertan. Ederto ibili ziren elkarrekin, kontu zaharrak gogoratu.

2. San Martin bezpera alaitzen

Aramaioko trikitilari eskolako 30 bat trikitilarik kalejira egin zuten aurreko egubakoitzean, San Martinen omenez. Gainera, Errezilgo trikitilarekin elkarlanean sortutako 61,4 kilometro diskoa aurkezteko aprobetxatu zuten. Diskoko abesti batzuk jo zituzten.

3. 'Amandre Santa Ines' ezagutzen

San Juan parrokian dagoen momiak ikusmin handia piztu zuten herritarren artean. Arrasate Zientzia Elkartearen kideen azalpenak adi-adi entzun zituzten, eta ostean, *Amandre Santa Ines* gertutik ikusteko aukera izan zuten, Europako Ondarearen Jardunaldien baitan.

4. Katxopo erraldoia jan zuen

Danel arrasatearrak katxopo erraldoi jan zuen Armintzako Begotxu jatetxean. Katxopoa osorik eta patatak jan eta hango txapelketa irabazi zuen. Erronka platera garbi uztea da, eta arrasatearrak lortu zuen. Danel da oraingoz, Begotxu jatetxeko txapelduna.

5. 50 urte ezkontuta

Oñatin bizi diren Tito Herraizek eta Vicenta Cortesek urrezko ezteiak bete dituzte gaur, azaroak 16. Etxekoekin eta lagunekin ospatuko dute. "Zorionak, zuen seme-alaben eta biloben partetik! Bihar, dotore jantziko gara eta elkarrekin ospatuko dugu."





AZKEN BERBA

IDOIA
ETXEBERRIA

Pribilegiatua

Saria emango digute. Abbadia saria. Ahozko ondarea jasotzeko egiten dihardugun lanarengatik. 2009an hasi nintzen *Ahotsak. eus* proiektuan lanean, aitona-amonak elkarrizketatzen. Eta ordutik, pribilegiatua sentitzen naiz.

Bukatu zen etxe eta baserrietako atea zabalik zeuden sasoia. Transmisioa sutondoan egiten zen garaia. Elkarlana dirua baino garrantzitsuagoa zen aroa. Pribilegiatua naiz, etxe atea parez pare irekitzen dizkidatelako. Ezezaguna izan arren, eskuzabalik hartzen nautelako. Etxekoa sentiarazi. Kafesnea, irribarrea. Tarteka, patxaranen bat.

Pribilegiatua naiz bihotza ireki eta euren bizipenak kontatzen dizkidatelako. Gerrako kontuak, nobio garaikoak, aspaldiko kantuak. Eta jasotako jakintza hori guztien esku ipini dezakedalako. Interneten, teknologia berriak erabilia.

Pribilegiatua naiz gure proiektuaren ardatza elkarlana delako. Iruditzen zaidalako ez dugula gure aurrekoen esentzia galdu. Benetan sinesten dugulako *guztion artean, guztiontzat* leloan. Eta sari hori milaka lagun lanaren aitortza delako. Auzolanaren emaitza.

BUKATZEKO



MovemBer Gara taldeko kideak Agorrosinen spinning saioan. ION ANDUEZA

Biboteak musikaren erritmoan izerditzen

MovemBer Gara taldeak hainbat ekintza antolatu ditu azaroan zehar, gizonezkoen bizimodu osasuntsuagoaz sentsibilizatzeke, bibotea lagata. Ekintza horietako bat egin zuten Agorrosinen, musika doinuekin lagunduta, spinning saio berezi batean

Josu Bilbao BERGARA

Aurten ere, MovemBer Gara taldekoek ez dute hutsik egin eta bibotea uztera eta hilean zehar antolatu dituzten ekintza ezberdinetan parte hartzeko dei egin dute. Movember fundazioak, hain zuzen ere, gizonezkoen bizimodu zoriontsuagoa eta osasuntsuagoa bultzatu nahi du, prostata-minbiziaren, barrabila-

minbiziaren, osasun mentalaren eta inaktibitate fisikoaren inguruan kontzientziazio-lana eginez eta ikerketarako finantziarioa bilatuz.

Horrela, ekintza horietako bat egin zuten pasa den egubakoitzean. Agorrosinen spinning eta gimnasio saio musikatuak, hain zuzen ere. "Biola bat, hiru gitarra akustiko eta perkusioan

Aitor Aranburu batu ginen Agorrosinen spinning klasean, eta, egia esan, oso gustura ibili ginen. Oso bizarroa izan da guretako, eta jendeak hala esanda ere konturatu gara gure abestiak oso ondo doazela spinningarekin. Errepertorioan, Queen taldearen *We Will Rock You* bertsioa ere sartu genuen, eta AC/DC taldearen *Highway to hell* bukaeran.

Jendea motibatzeke onak", azaldu du Azkaiter Pelox taldeko Unai Azkaratek.

Agorrosingo saioan, Bergarako KB argazkilaritza estudioko Ion Andueza ibili zen argazkiak ateratzen, Movember-ekin bat egin baitu argazkilaria.

Ekimen gehiago

Asteazkenean, Gurutz Orbe barne medikuntzako aditua egon zen gizonezkoen ohiko gaixotasunen inguruko hitzaldia ematen, eta azaroaren 22an pintxobibote musikala egingo dute. "Azaroaren 30erako, Irala kalean kontzertua antolatu dugu, eta gero, bibotea kentzeko aukera egongo da kalean bertan. Hori ere oso bizarroa izan zen iaz eta aurten ere horrela izatea nahi dugu. Unean bertan moztuko diogu bibotea nahi duenari", aipatu du Unai Azkaratek.



GERRA ETXE ATARIAN

GOIENA TELEBISTA, ERREPORTAJEA
AZAROAREN 22AN, EGUENEAN, 21.00ETAN ETA 23.00ETAN
ELGETAKO FRONTEA ETA GERRA OSTEKO BIZIMODUA

goiena
ZU HEMEN ZAUDE

